



Megan Guarnier irabazle

Birako lehen etapa Arrasaten izan zen | 26



Megan Guarnier. | XABIER URZELAI

Glaukoma eta Kalakan ekarriko ditu Errekan Gora zikloak Eskoriatzara | 30



Gabez Takarraran badator, bosgarrenez, zapatuan | 27



Gaur zabalduko dute udako bainu denboraldia eskualdean | Ikus 'Herriak' saila

260 oihal eramango dira Debagoienetik Anoetara

2.000 boluntariok jardungo dute lanean domekan | 3

Ordezko mediku euskaldun eskean, berriro

Aramaioko kasua da; protesta egingo dute ekainaren 17an | 24

SINADURAK

Gutako bakoitzaren 'ri' zumunaz... | 6
ANDONI URZELAI

10 | Batu zertarako?
INES ALDAI

Beldurra? | 15
JON OLIVARES

18 | 'Sandwich' belaunaldia
AMAIA MADINA

Denon artean birziklatuz | 20
OIER ARANTZABAL

24 | Leihotik begira
SONIA ETXENAGUSIA

Herriarentzat eta herriarekin | 40
AINTZANE OIARBIDE



1945eko Arrasaten murgiltzeko aukera paregabea Kulturaten

Orduko 200 erretratu eta 200 produkturekin osatutako erakusketa irekiko du Arrasate Zientzia Elkarteak | 8

Botoen esana errespetatuko dute biharko ekitaldietan

Bihar, zapatua, eguerdian gauzatuko da maiatzaren 24ko hauteskundeetan herriak erabakitakoa. Datozen lau urteotan Debagoieneko udalbatzak eratuko dira inbestidura ekitaldietan. Eta ez da ezustekorik espero gobernatuko dutenen aukeraketari dagokionez. | 2 eta 'Herriak' saila

puntua

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Argazkilaritza pasio bihurtu duten 9 herritar
- Gemma Zabaleta sozialistari elkarrizketa

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

GAES

"Nire konfiantza osoa du"

Vicente IMOKARRETA
JANER 440 BIZTAN

%20-rainoko deskontua audifonoetan

Esaintza balaguna ekainaren 30 arte.

Angela VICENTE-REN AUDIOPROFESISTA
ORAIN DELA 15 URTEATIK

Otalora Lizentziatua, 18 behea • Tel. 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero, 10 • Tel. 943 76 94 55 • BERGARA

gaes.es / facebook.com/GAESCentrosAuditivos

R. P. S. 57/58/59/60/63/64/65/66/67/68/10/48E. 5. 7933

Alkate izango dira boto gehien lortu dituzten hautagaiak

Alderdiak elkarren artean berbetan ibili diren arren, ez da ezustekorik espero

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Egun esanguratsua da biharkoa udalerrietan. Datozen lau urteotan udalen gidaritza izango duten hautetsiek karguak hartuko dituzten eguna delako. Debagoieneko bederatzia herrietatik zortzitan 12:00etan hasiko dira inbestidura ekitaldiak. Salbuespena Leintz Gatzaga da, 13:30ean hasiko da han. (Xehetasu- netarako, ikus *Herriak* saila)

Guztietan, hori bai, emozioak bor-bor ibiliko dira. Ilusioarekin hartuko dute kargua hautetsiek.

Ez da sorpresarik espero

Izendapenei dagokienez, ez da ezustekorik espero. Hau da, boto gehien eskuratutako alderdietako zerrendaburuak izendatuko dituzte alkate biharko ekitaldian.

Ezustekoa gerta zatekeen kasua Eskoriatzako zen; han, EAJ ez beste alderdi guztiak adostasuna lortu eta beste hautetsi baten alde bozkatuko balute, hura irtengo litzateke alkate. Baina Irabazik Goienari esandakoaren arabera: "Guk gure buruari bozkatuko dio-

gu lau herrietan. Eskoriatzan ere bai, batzarrean hala erabakita". Horixe dio Juan Luis Merinok, Irabaziko ordezkariak. Gauzak horrela, beraz, Eskoriatzan ere ez da ezustekorik espero.

Edozein modutan, eskualdeko alderdiak ibili dira euren artean berba egiten. EAJk Goienari esan dioenez, batzarrak egiten dabilta zerrenda bozkatuena izan duten herrietan, Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, alegia. "Gure ardura da guztiak

hitz egin eta gobernua osatzeko akordioetara iristea. Oraindik ez dira elkarriketak bukatu eta ez dago erabakirik. Zapaturako alkate izendatze akordioak lortzea espero dugu", esan du Aintzane Oiarbidek, bailarako EAJko komunikazio arduradunak.

Debagoiengan bigarren indarra izan den EH Bilduk, berriz, esan du EAJ lehen indarra den herrietan hari utzi diotela "governua osatzeko inizatiba eta herri guztietan beraiekin harremanetan" daudela. "Uste dugu lehenengo indarra izanik beraie dagokiela gobernatzea eta ez dugu egingo beraiek gobernutik kentzeko saiakerarik, ezta Eskoriatzan ere", esan du Ibai Redondok, Debagoieneko EH Bilduko ordezkariak.

Gehiengo argiak

Gainontzeko herriei dagokienez, Arrasateko kasuan EAJk eskuratuko du alkate, ezusteko handia litzateke eta PSE-EEK EH Bilduren alde bozkatzea; eta Baleikek eta Irabazik EH Bilduren alde bozkatuta ere, boto baten faltan geratuko lirateke EAJrekiko. Bergaran, berriz, ezker abertzaleak berak jakinarazi dio Goienari ez duela Agurte Berruso aurkeztuko bozketara. Aretxabaletan, PSE-EEK du giltza Unai Elkoro jeltzalea lehen bueltan edo bigarren indarrean alkate izendatzeko. Baina argi dago Elkoro izango dela alkate. Eta Oñatin, Antzuolan, Elgetan, Aramaion eta Leintz Gatzagan, berriz, ez dago itunetarako aukerarik, boto gehien eskuratu dituztenek gehiengo argiak dituzte eta.

Atez atekoa zalantzan

Kontuak kontu, behin zapatuko gauzatuta, eta debagoienarren egunerokoen eragiten duten gaiei buruz galdetuta, lau urteotan horrenbeste zeresan eragin dituen atez ateko bilketa sistemarekin zer gertatuko den da askoren zalantza.

Kasu horretan, Eskoriatzako EAJk iragarrita du herri galdeketa egingo duela hondakin bilketa sistemak zein izan behar duen erabakitzeko.

Ildo beretik jotzen du Aretxabaletako EAJk ere, Elkoroaren ahotan: "Programan gai honi buruko kontsulta egiteko konpromisoa azaldu dugu eta lehenbailehen martxan jarri nahi dugu galdeketa prozesua. Horrekin ez dut esan nahi galdeketa berehala burutuko denik, legedia bete beharra dugu, kontsultak erabakitze eskubidea berma dezan. Kontuan dugu herrian gai hau bor-borrean dabilela eta beste behin adierazi nahi dugu hartutako konpromisoa beteko dugula. Gure apustua bosgarren edukiontzaren aldekoa da (...) Udala osatzeko izanik zail da data zehatz bat jartzea, baina berehala martxan jarriko gara, gardentasun osoz, kostu eta emaitza datuak aurkeztuko ditugu, herritarrek aukeratzeko garaian zalantzarik izan ez dezaten".

Bergaran, berriz, Juanje Alberdi jeltzaleak maiatzaren 24ko gauean iragarri zuen "governura iritsi bezain laster" jarriko direla "Mankomunitateko erabakiak aztertu eta aldaketak egiteko erabakiak hartzen. 5. edukiontzia ipintzeko prozesuari hasiera lehenbailehen emateko bergararren gehiengoak nahi duen bezala".

"Programa aurrera eramatea"

Osterantzean, EAJk aditzera eman du agintaldian "herri bakoitzak bere eskumena" izango duela gobernu osatu ondoren. "Programa aurrera eramatea izango da helburua. Herritarrek gehiengo aldeko botoa eman dioten programa aurrera eramatea", esan du Oiarbidek.

EH Bilduk, berriz, azpimarratu du "oposizio zorrotza eta eraikitzailea" egingo dutela. "Lau urtetan udal gobernu gehienetan egon gara eta zenbait kasutan oposizio zikina, manipulazionala eta errespetu gutxikoa bizi izan dugu. Guk ez dugu inolaz ere gauza bera egingo", dio, eta zera gehitu du: "Saiatuko gara herritarrekin batera egindako programak praktikara eramaten eta horretarako adostasun zabalak bilatzen, herritarrekin, herri eragileekin eta oposizio alderdiekin".



Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Administrazioa eta Finantzak goi mailako zikloa ikasten Oñati Gestio Heziketan

Itziar Bueno Arrizabalaga
Legazpia



Zergatik aukeratu zenuen enpresa kudeaketa arloko goi mailako ziklo bat egitea?
Irteera zabalak dituelako gehienbat. Edozein enpresetan lan egiteko aukera eskaintzen du eta are gehiago, enpresa mailan departamentu askotan lan egin dezakezulako ziklo honekin.

Zergatik aukeratu zenuen Oñati Gestio Heziketan burutzea zure ikasketak?
Bi arrazoi nagusi izan ziren. Alde batetik, badakit enprekin harreman handia duen zentro bat dela eta praktika bolondresak egiteko aukera badagoelako, horrela errazago da enpresa mundua ezagutzea ikasle zaren bitartean. Bestetik, irakasleei dagokionez unibertsitateko irakasleak direnez ikasketen kalitatea oso altua da.

Nola bizi izan duzu ikasturte hau?
Irakasleak gertutasun handia dute, eta hurbiltasun horrek laguntza maila altua suposatzen du ikasketak aurrera eramateko. Unibertsitate giroa harnasten dugu. Eraikin berdinean titulazio desberdinak egotea aberasgarria da guretzat ze bertan erabiltzen diren metodologia berritzaileak baliatzen gara.

Eta etorkizuna?
Hurrengo urteari begira praktikak egingo ditut eta lan mundura begira lehen esperientzia izateko aukera ona da. Dena dela ziklo honetan zehar ikusten ari naizen moduan ezinbestekoa da arrakasta profesionala izateko jarrera aktibo bat izatea. Oñati Gestio Heziketan erabiltzen den metodologia ezagutza teknikoetaz gain gaur egun enpresek eskatzen dituzten konpententzia eta jarrera hoiak lantzen ditu. Eta honetaz gain aukerak ere baditugu ikasketak unibertsitateko burutzeko konbalidazio batzuen bitartez.

Gomendatuko zenioke lagun bati ziklo hau egitea?
Batxilergotik datozen ikasleentzat aukera ona izan daiteke, ez badaukate oso garbi zer ikasi, lagungarri izan daitekelako bidea argitzeko: bi urteko ikasketak dira, ondo formatzen dutenak eta lan esparruan sartzeko aukera eskaintzen dutenak. Gainera denbora tarte horrek heldutasun maila bat lortzen laguntzen du ondoren erabakiak argiago hartzeko. Bestalde, aurretik beste ikasketak batzuk eginda edota langabezia daudenez, lan arloan eskatzen den profila osatzeko aukera ematen du lan merkatura gerturatuz.

Eskaintza akademikoa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

Ate Irekien Jardunaldia

Ekainak 17 18:00

Matrikula
Uztailaren 16tik 21era

www.mondragon.edu/ogh • info.enpresagintza@mondragon.edu • 943 71 80 09







Boto gehien eskuratu dituzten zerrendetako buruak, herri herri.



Maria Ubarretxena.



Juanje Alberdi.



Mikel Biain.



Unai Elkoro.



Jose Ramon Zubizarreta.



Beñardo Kortabarria.



Lierni Altuna.



Iraitz Lazkano.



Eneka Zankada.

Jarraipena bertatik bertara Goienan

Goiena Komunikazio Taldeak biharko inbestidura ekitaldien jarraipen berezia egin behar du. Debagoieneko bederatzia herrietan izango dira berriemaileak kargu-hartzeen jarraipena egiten bertatik bertara. Eta gero, horren berri berehalakoa emango dute *Goiena. eus* atari digitalaren bitartez; iluntzean, berriz, albistegi berezia izango da Goiena telebistan, 20:30ean, 21:30ean eta 23:00etan.

Odol beharra dago, erreserbak jaitsi egin direlako eta uda sasoia datorrelako

Odol emaile gazteak behar dira; asteotan Debagoiengan izango dira unitate mugikorak

U.M. | DEBAGOIENA

Jaitsi egin da odol-emaile kopurua. Debagoiengan ere bai. Hala adierazi dute Euskadiko Odol Emaileen Elkartetik.

Horren kontrara, ez dena jaitsi odolaren erabilera da. Hau da, ospitaleetan –operazio-geletan...– berdin-berdin erabiltzen jarraitzen da.

Bi errealtate horien emaitza da beharrezkoa baino odol gutxiago dagoela Euskadiko odol bankuen erreserbetan; %20 gutxiago, zehazki.

Eta horri gehitu behar zaio urtero uda sasoian ospitaleek izan ohi dituzten odol beharrak asetzeko eskas ibiltzen direla –abuztuan %40 jaisten da.

Laburbilduz, bada, "ospitaleetarako odol *stockage* egokia behar da", adierazi dute Arabako Odol Emaileen Elkartetik –Debagoienaz arduratzen den elkarte–. Eta mezu bat helarazi dute: *Joan zaitetz oporretara etxerako lanak eginda, eman lehenago odola.*

Abuztura bitartean

Hori ahalbidetzeko hitzorduak finkatuta dituzte, datorren asteetik aurrera: Eskoriatzara joango da autobusa ekainaren 18an, 16:30etik 20:15era; uztailaren 7an eta 13an Arrasatera, Laboral Kutxak duen egoitzara, 09:30-13:30ak bitartean; eta uztailaren 20an Eroskin izango da, han ere goizez.

Jaitsieraren arrazoiak

Arabako Odol Elkarteko ordezkarikari Isabel Viloria dioenez, hiru dira odol-emaileen jaitsiera orokorraren arrazoiak: gizartea zahartu egin dela; gazteen artean ez dagoela horrenbeste odol-emaile; eta krisia. "Gizartea nagusitu egin da, eta, odolaren erabiltzaile nagusiak 65 urtetik gorakoak direnez, erabiltzaile kopurua handitu egin da. Ildo beretik, pertsona nagusien artean dago odol-emaile kopururik handiena, eta, hiltzen doazen neurrian, odol-emaileak galdu egiten dira; beraz, jende gaztea behar da odola emateko. Eta azkenik, krisia dela-eta, batetik, jendeak beste kezka batzuk ditu buruan azken urteotan; bestetik, enpresa batzuk desagertu egin dira, eta, gu enpresetara bertara joaten garenez unitate mugikorrek, hor ere galera izan dugu; azkenik, enpresa askotan EREak izan dituzte, edo langile kopuru jaitsierak, eta horrek ere ekarri du emaile kopurua jaistea".

ESANAK

"Krisia da odol-emaile jaitsieraren arrazoi bat"

ISABEL VILORIA | ARABAKO ELKARTEA



Begarako Joste Eguneko kalejira, bertan landutako oihalekin; maiatzean egin zuten. | JULEN IRIONDO

Erabakitze eskubidea aldarrikatzeko, 260 oihal Debagoienetik Anoetara

Komeni da sarrerak ahalik eta lasterren erostea, estadioko jarlekuak zenbakidunak izango dira-eta

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Ekainaren 21ean Debagoieneko herri guztietatik aterako dira autobusak Donostiara joateko, Gipuzkoako hiriburua "erabakitze eskubidearen aldeko borondatez eta konpromisoz betetzeko helburuarekin", Gure Esku Dago ekimenetik dioten moduan. Izan ere, datorren domeka "urtean herriz herri sakabanatuta egon diren oihalak, eta horietan beraien esperantza, amets eta borondateak idatzi dituzten herritar guztiak batzeko eguna izango da".

Debagoienetik 10:00etan aterako dira autobusak; izan ere, 11:30erako gertu egon behar du guztiak, 12:00etan Urumeako sei zubien artean irudikatuko den giza katea gauzatzeko.

Oihal-katea da, hain justu, egun handi horretako lehen hitzordua. Eta Debagoienak bere leku zehatza izango du bertan: Atotxa tren geltokiaren ingurua.

Anoeta eta Ilunbe

Behin giza katea bukatuta, Gure Esku Dago ekimenaren proposamena da Urumea bazterretatik Anoeta estadio ingurura bideratzea herritarrak, kalejira erraldoian. Izan ere, Anoetaren kanpoko aldean egokituko dituzte jatekoak eta edatekoak. "Dena den, egun osoan izango da zer eginga Donostia osoan, alde zaharrean...", zehaztu du Aitor Erañak, Debagoieneko Gure Esku Dago ekimeneko ordezkarikariak.

"Beste elkargune bat Ilunbe izango da: familia-gunea. 12:30ean zabalduko ditu ateak, eta, puzgarriak, tailerrak... egoteaz gainera, Gipuzkoako pailazo guztiak izango dira bertan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots ere bai. 14:00etan Irri bazkaria izango da eta 15:30ean, berriz, dantzaldia".

Sarrerak nork bere herrian

Ekitaldi nagusia –sorpresa hunkigarriekin–, berriz, Anoetan izango da, 17:30ean. Baina 16:30ean zabalduko dituzte estadioko ateak. "Oso garrantzitsua da bertarako sarrerak nork bere herrian erostea; estadioko jarlekuak zenbakidunak izango dira eta elkarrekin egoteko bide bakarra da. 10 euro da prezioa, 14 urtetik beherakoendako 5 euro eta 0-2 urtekoendako debalde. Edozein modutan, azken

horiek ere eskuratu beharko dituzte sarrerak, lehenago arrazoi berarengatik", esplikatu du Erañak. (Sarreraren salmenta puntuen zein autobusen berri jakiteko, ikus *Herriak* saila)

Bestalde, domekako aldarrikapen eguna gauzatu ahal izateko 2.000 boluntariok jardungo dute lanean. "Debagoienetik ere bagoaz –08:30ean aterata–, eta lagundu nahi duena ondo hartuko dugu gure artean", dio Aitor Erañak.



Grupo ULMA, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2015eko ekainaren 19a

Ordua: 10:30ean lehen deialdia eta 11:00etan bigarrena

Tokia: MU-Enpresagintzako auditorioa – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta bi bazkide izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2014ko gestio soziala aztertzea eta, hala badagokio, onartzea, eta, kasuan kasu, 2015eko Gestio Plana eta kostu mankomunatuaren jarraieraren erabakia
3. 2014ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea
4. 2014ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena
5. ULMA Talde mailan aplikazio orokorreko eta araudi izaerako gaien buruz kooperatiba bazkideen Ohiko Batzar Nagusiek hartutako erabakiak berrestea
6. Kontseilu Errektoreko lehendakaria berritzea
7. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
8. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
9. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
10. Ahalmenak eskuordetzea
11. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak eta emaitzak aplikatzeko proposamena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2015eko ekainaren 5a



ANDER LARRANAGA

Lanbide heziketa bultzatu guran

Mondragon Unibertsitateko Vicente Axa errektoreak eta Tknika Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroko Iñaki Muxika zuzendariak lanbidetza hitzarmena sinatu zuten astelehenean. Helburua da Euskadiko lanbide heziketa sustatu eta hobetzea, prestakuntza eta trebakuntza, ikerkuntza aplikatua, berrikuntza pedagogikoa zein teknologikoa eta ikastetxeen gestioaren eta antolamenduaren berrikuntza erabilia.

Gidabaimena euskaraz ere atera daiteke Debagoienez

Orain dela sei urte Mankomunitateak gertatutako materiala autoeskolek dute

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Oporrak hartzearekin batera gazte askok gidabaimena ateratzeko izena emango dute Debagoieneko autoeskoletan. Gidabaimen hori euskaraz ateratzeko aukera daukatela gogorarazi gura diete Mankomunitateko eta udaletako euskara sailtako kideek.

Diruz saritua

Orain dela sei urte gertatu zuten B gidabaimenaren material guztia Debagoieneko Mankomunitateko kideek, eta ordutik hona eguneratzen joan dira: "Eguneraketa batzuk egin dira, bai esku-liburuan eta bai testetan; hala ere, ez nahi beste. Hitz teknikoek hiztegi bat egin genuen, eta gure autoeskolen esku jarri. Dena dela, honi guztiari beste bultzada bat emateko asmoa badugu", jakinarazi du Amaia Axpek, Mankomunitateko Euskara teknikariak.

Ikasle kopuruaren datu zehatzik ez daukate: "Zerotik hasi ginen eta joera goranzkoa da, bai Debagoienez eta bai Euskal Herri osoan. Garrantzitsua da aukera dagoela eta, gainera, asko direla aukera hori egiten duten gazteak", dio Axpek. Hainbat udalek diruz saritzen dituzte -zozketa bidez- gidabaimena euskaraz ateratzen dituzten ikasleak; Eskoriatzak, Aretxabaletak, Arrasate eta Oñatik, esaterako. Horren arrazoia azaldu du Axpek: "Ez da normalizatuta dagoen zer-bait; beraz, oraindik ere laguntzak ematea ezinbestekoa da, bai ikasleak animatzeko eta bai autoeskolak animatzeko".

Autoeskola gehienetan

Euskarazko materiala Debagoieneko autoeskola gehienetan daukate. Hona: Eskoriatzan eta Aretxabaletan: Solozabal; Arrasaten:



Mankomunitateko Euskara teknikari Amaia Axpe materialarekin. | MIRARI ALTUBE

Leniz, Peñakoba, Telleria eta Arrasate; Oñatin: Peñakoba eta Aloña; eta Bergaran: Larrañaga eta Urresgoi. "Gainera, batzuetan, nahiz eta irakasleak euskaldunak ez izan, ikasleak animatzen dituzte teorikoa euskaraz prestatzera", jakinarazi du Axpek.

Teorikoz gain praktikoa ere euskaraz egin ahal izatea da orain erronka: "Trafikoren kompetentzia da hori eta zailtasunak daude horrekin, nahiz eta aztertzaile euskaldunen bat badagoen. Gure helburua da hori ere aldatzea, eta horretan ari gara".



JOKIN ITURRIOTZ
LENIZ AUTOESKOLAKOAKO

"Euskaraz atera gura duten ikasleen kopuruak gora egin du. Batzuek argi dute euskaraz gura dutela, baina asko oraindik animatu egin behar dira, eta autoeskolaren baitan dago. Azterketa berdina gainditzen dute euskaraz ere".



BEÑAT ARRIETA
AUTO GIDARIA

"Iaz udan atera nuen eta euskaraz egindako bakarra izan nintzen orduan Eskoriatzan. Hizkuntzari dagokionez ez nuen inolako zailtasunik izan. Eta gainera, diruz saritu ninduten euskaraz egiteagatik; hortaz, ederto".



Elkarrizketak eskatzeko mahaia, 15:00ak aldera. | L.K.

Inoiz baino elkarrizketa gehiago egin dituzte enpresek aurtengo Lanbain

Azoka ireki (15:00etan) eta berehala bete zen enplegu azokako elkarrizketagunea

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

III. Lanbain Enplegu eta Prestakuntza Azokak berriz ere lan bila dabilen jende asko erakarri du, iaz bezala, baina aurre-rapauso kuantitatibo eta kualitatibo igarri da aurten; izan ere, iaz baino dezente enpresa gehiago izan dira curriculumak batzen -iaz 25 izan ziren eta aurten, 37-, eta elkarrizketak egitera etorri ziren enpresa asko profil zehatz bateko hautagaien bila etorri ziren; are gehiago, enpresa batzuk lan-eskaintzekin etorri ziren, egunean bertan kontratua egiteko gertu. Horixe nabarmendu zuen Mondragon Unibertsitateak, azokaren antolatzaileak Arrasateko Udalarekin batera.

Agenda, betea

Azoka 14:45ean inauguratu zuten MUko Vicente Atxak eta Jon

Altunak eta Arrasateko jarduneko alkate Inazio Azkarragaurizarrek. Azken horrek -alkate moduan egin zuen azkenengo agerraldian- esan zuen enpresek "ondo prestatutako gazteak" aurkituko zituztela, eta hurrengo udal arduradunek "orain arteko ildoak indartuko" dituzten itxaropena agertu zuen, MUrekiko lankidetzari dago-kionez.

Azoka zabaldu eta berehala hasi zen jendea MUren Garaiko gunera sartzen. Arrakasta berezia izan zuen elkarrizketa guneak -MUko ikasle eta ikasle ohiendako soilik-, 33 enpresa zeuden han eta batzuek agenda bete-betea zuten: 15:00etatik 19:30era bitartean, hamar elkarrizketa baino gehiago hitzartuta zituztenak ere bazeuden. Bailarako eta kanpoko enpresa ezagun asko zeuden tartean.

UDALBATZA BERRIAK ERATZEKO BILKURAK

EKAINA 13, ZAPATUA

Jarraipen berezia Goienan, egunean bertan, Debagoieneko herri bakoitzetik bertatik **Informazio guztia Goiena.eus-en eta albistegi berezia Goiena telebistan: 20:30, 21:30 eta 23:00.**

► GOIENA TELEBISTA

► GOIENA.EUS



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Andoni Altube eta Xabier Lizaur | Ekitermik Kooperatiba elkarteko kideak

"Etxebizitzen erreforma energetiko osoa egiten dugu, proiektutik obra bukatu arte"

Ekitermik ingeniariak enpresak energia eraginkortasunarekin lotutako denetarikoz zerbitzuak ematen ditu, tartean 'giltza eskuan' erako erreformak, bezeroari dirua aurrezten lagunduta

Energia eraginkortasuna bideratutako ingeniari enpresa da Ekitermik S. Coop. Arkitekto teknikoek eta ingeniariak osatzen dute. Espezialitate horretako hainbat zerbitzu ematen dituzte.

Etxebizitza energia aldetik eraginkorrago egin nahi duenari zer eskaintzen dio Ekitermik-ek?

Andoni Altube: Ekitermik-ek etxebizitzaren erreforma energetiko integrala egiten du, hau da, proiektua eta obra egiteaz arduratzen da, betiere energia aurrezteko alderdi guztiak kontuan hartuta.

Xabier Lizaur: Dena geuk egiten dugu, giltza eskuan erako zerbitzua emanez; hau da, bezeroa gurekin elkartzen da proiektuaren nondik norakoak zehazteko, eta ordutik aurrera, obra bukatu arte, gu arduratzen gara guztiaz.

Halako erreforma bat egiterakoan zer da hartu behar da kontuan?

A.A.: Oso garrantzitsua da etxebizitzaren ingurutzailerik termikoa ondo isolatzea, eta isolamendua ondo jartzea bere eraikuntza xehetasun guztiak ondo zainduz, zubi termikorik egon ez dadin, eta leihoak eta beirak ondo aukeratzeko. Aukeraketa hori ere guk egiten dugu.


X.L.: Merkatuan dauden berokuntza eta argiztapen sistema eraginkorrenak erabiltzen ditugu, eta baita energia berriztagarriak ere, adibidez biomasa. Eta diseinuaren azken tendentziak aplikatzen ditugu, bezeroaren beharretara egokituta.

Hortaz, etxe-jabeak dirua aurrezteko modua dauka.

X.L.: Bai, dena guk kudeatzen dugulako, ahalik eta prezio ona lortzen diogulako eta xehetasun konstruktibo guztiak ondo egiteaz arduratzen garelako.

Une ona da erreformak egiteko?

A.A.: Bai, izan ere, energia gero eta garestiagoa izango da eta asko aurreratu daiteke etxea energetikoki eragingarriagoa eginda.



Ekitermik S. Coop.-eko Andoni Altube eta Xabier Lizaur.

Etxebizitza huts parke handia dago, eta aukera ona da, etxehoriek kokaleku onean daudelako, etxebizitza bat goitik behera erreformatzeko eta horrela etxebizitza berri bat edukitzeko herriko lekurik onenetakoetan. Eta une egokia da ere diru-laguntzak daudelako leihoak eta instalazio elektrikoak aldatzeko eta biomasa galdarak ipintzeko.

Garrantzitsua da, erreforma bat egiterakoan, ondoren ahalik eta energia gutxien gastatzeko neurri egokiak hartzea.

Erreformeaz gain, ze beste zerbitzu eskaintzen ditu Ekitermik-ek?

"Une egokia da erreforma egiteko, eta diru laguntzak ere badaude"


X.L.: Komunitateentzako mantenua egiten dugu; instalazioak ondo daudela begiratzeaz gain, energia nola aurreztu aztertzen dugu eta horren jarraipena egiten dugu.

Erabilpen tertziarioko eraikinak (udal eraikinak, bulegoak...) ere aztertzen ditugu eta instalazioen mantenua egiten dugu; eta auditoria energetikoak egiten ditugu, eraikinek edo fabrikek energia aurrezteko gomendioak emanez. ISO 50001 kudeaketa sistema ezartzen ere lan egiten dugu. Kudeaketa energetikoa egiteko erreminta nagusia monitorizazio energetikoa da.


"Instalazio sistema eraginkorrenak erabiltzen ditugu"



Besteak beste, zoru erradiatzaileak instalatzen ditu Ekitermik-ek.



Erakineko izkinako fatxada, erreformatu aurretik.



Erreformatu ondoren; dagoeneko ez du energia galtzen.

eki termik
efizientzia energetikoa

**AURREZTU
ENERGIA!**

Efizientzia energetikoko ingeniariak

Etxebizitzetarako zerbitzuak:

- Etxebizitzaren zaharberitze energetiko integralak (proiektuak eta obrak)
- Instalazioak eta mantentze-lanak
- Energia berriztagarriak eta biomasa
- Kudeaketa eta aholkularitza energetikoak
- Zertifikazio energetikoak eta ITE-ak

Industria eta eraikinetarako zerbitzuak:

- Kudeaketa energetikoa monitorizazio bidez
- Auditoria energetikoak eta ISO 50001
- Klimatizazio eta berokuntza instalazio eta mantentze-lanak
- Fakturazio energetikoaren optimizazioa eta aholkularitza
- Energia berriztagarriak

ZABALIK

ANDONI URZELAI
goiena.eus/
komunitatea/



Gutako bakoitzaren 'ni' zurrunaz...

Ez naiz ona hauteskundeetako emaitzak des-
tripatzen, zaila suer-
tzen baitzait pertso-
nen motibazio sakonenak
antzematea. Norbanakoaren
barrualde sakon horrek izutu
egiten nau sarri: izaki koldar,
mesfidati eta uzkur bat ezku-
tzen duela iruditzen zait.
Zoritxarrez, hauteskunde-
hauteskunde berriztatzen zait
inpresioa: otzan eta obedien-
teak gara. Edo masokistak.

Ez dago estatu bat lotsa-
gabe eta okerrago kudeatzerik.
Hala ere, batek daki zein meka-
nismok bultzatuta, PPK lortu
ditu boto gehien estatuan.
Gaitza ulertzen. Gurean ez
dira gauzak ulerterrazagoak.
Nafarroa birrindu egin du
UPNk, ezelako disimulu barik,
eta hor diraute; errenka, aka-
so, baina zutik. Maroto modu-
ko pertsonaia makurrari eman
dizkiote Gasteizko giltzak. Zer
esan, berriz, patuaren maldi-
zio dirudien PNVren goraka-
daz? Jaio naizenetik alderdi
jeltzalea baino ez dut ezagutu
boterean, marka da gero!

Atez atekoaren inposizioa
omen EH Bilduren jaitsieraren
arrazoi nagusi. Baliteke. Harri-
garria da nola zigortzen duen
gizarteak norberaren zaborra
kudeatzeko sistema baten bul-
tzaile eta amen-amen esan
dion, ostera, gutxi batzuen
interesak lehenetsi eta gizar-
te eredu jakin bat inposatzen
duen alderdiari. Askozaz era-
gin handiagoa du gu guztion
etorkizunean ustelkeriak,
AHTak edo politika neolibe-
ralak, 5. edukiontzia baino.

Okerrak oker, ezkerreko
kudeatzaileek gauzak ondo
egin duten susmoa daukat.
Askori, lehengoek utzitako
zuloak estaltzea egokitu zaie
udalerrri askotan, eskuak lotu-
ta dituztela jardun beharra.
Jaso duten ordaina: zaplaz-
tekoa! Esandakoa: beldurtu
egiten naute norbanakoen
barrunbeek.

Goienaren
aurkako
pintaketan harira,
J. Uribarreni
erantzunez

Jon Zuloaga
Arrasate

Hasteko eta behin,
elkartasunik sentikorrena
Goienako langile guztiei, jakin
ezazue burubako eraso honek
jende asko mindu duela eta
guri, herritarroi, eginiko
erasotzat sentitzen dudala.
Behin hau esanda, noan
harira.

Joxe Migel Uribarrenek,
EAJ-PNV alderdi
eskuindarreko kideak,
idatziriko solidaritate
artikulu badiha hainbat
gauza solidaritate gutxi
dutena eta gainontzekoei eraso
egiteko tresna bilakatu nahi
izan dituen. Agian, Uribarren
jaunak ez zituen asmo gaitzoz
idatziko gutuneko hainbat
lerro, baina, disimulatik
urruti, min egiteko baliatu ditu
hitzak.

Diozu oraingoan Goienari
tokatu zaiola pintaketa eraso
hau jasatea, beste
komunikabide batzuek
jasandakoei alderatuz -
kartel, pankarta...-. Barkatu,
motz gelditu naizela ohartu
nahiz, zuk eta zure alderdiak
azken hauteskundeetan antza
erasoren bat jasan izana ere
aipatzen duzu... eta, beraz,
lerro artean zuok
jasandakoei ere alderatzen
duzu Goienak bizi behar izan
duena. Politizazioa ez da batere
ona, Uribarren jauna, eta are
gutxiago herritik eta
herritarrentzat sorturiko
hedabide bati egin zaiona zuon
aldera eraman nahi izatea.
Alderdiak hedabide honi tiraka
aritzea ere aipatzen duzu;
tiratzaile onak zarete zuek, bai,
berdin goma gaineko edo lur
gaineko saiotan.

Bestetik, eta zuon ohiko
jolasa edo denbora-pasa
bihurtu den legez, hauteskunde
lorrinekin zator. Zer dela eta
zuzentzen zataizkio idatzian
ezker abertzaleari? Esan
beharrak ez dago bera jarri
nahi duzula eraso honen
egiletzat eta bere gain jarri

GUTUNAK

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

ardura guztia, jokaera tristea
bezain zikina, Uribarren jauna,
baina zure alderdiaren izana
ikusirik... inuzentea ni neu,
ohikoa den zerbaitez harritu
naizelako.

Amaitzeko, esan, lerro
hauek idazten dituenak guztiz,
erabat eta indar osoz gaitzesten
duela Goienak jasandakoa.
Elkartasun keinu bat bera ere
ez dago soberan, baina
elkartasun horrek balio beza
gure artean dagoen hedabide
eder hau indartuko eta bere
lan eskergari jarraipena
emateko eta ez, bide batez,
elkartasun-eraso artikulak
idatzeko edo hauteskundeetako
emaitzek erakutsitakoa
erasorako arma gisa
erabiltzeko.

Jokin, Xabi, Mireia...
animo! Eta orain arteko lan
bikainak jarraipen luzea
izango duelakoan, jaso ezazue
besarkada sentikorrena.

Bide onetik goaz,
baina ezin gara
erlaxatu

Enrike Letona
(Arrasateko Zero Zabor taldearen
izenean)
Arrasate

Gure atzetik datozei gizarte
hobea utzi beharko genieke eta
hori da Zero Zabor taldearen
helburuetariko bat. Saiatu
behar duzu hondakin gutxiago
sortzen eta sortzen duguna
birziklatu eta berrerabili egin
beharko genuke lehengai
guztiak agortu aurretik.

Arrasaten hondakinen
mahaia sortu zen eta nahiz eta
guk uste sistema
eraginkorrena atez atekoa zela,
batasunaren izenean amore
eman genuen edukiontziekin

proba bat egiteko, baldin eta
%70 gaika jasotzea adosten
bazen, eta akordioa sinatu
genuen.

Orain, datuak esku artean,
Arrasateko herritarrek
zoriondu nahi ditugu, lehen bi
neurketek adierazten
digutelako bide onetik goazela.
Martxoan %70 eta apirilean
%78 gaika jaso dugu, erakutsiz
sistema honekin ere lor
daitekeela. Guk beti defendatu
dugu helburua ez dela sistema,
ondo birziklatzea baizik.
Euskal Herri osoan adibide
izan gaitezke!

Alderdiak eta eragileak
biltzen hasi ginen eta gure
harremana konfiantzan
oinarritu zen. Mahaian bertan
hartu dira gai honetako
erabaki guztiak eta une oro
errespetatu egin da bertan
adostutakoa.

Hauteskundeak iritsi
direnean mahai honetan
sortutako konfiantza urratu
egin da, hainbat
komunikabidetan EAJko
alkategaiak esan duenean
zintzilikarioak erosita daudela
Arrasaten atez ateko sistema
jartzeko. Azken bileran
mahaian atera genuen gaia eta
Udaletik ziurtatu digute hori ez
dela egia. Oraindik badaukagu
zer egin, eta konfiantzari heldu
eta lanean elkarrekin jarraitu
nahi badugu, alkate berriak
bere adierazpenei buruz
azalpenen bat eman beharko
lukeela uste dugu.

Edozein modutan, badago
larria izan daitekeen beste
datu bat karakterizazioan
(neurketan): organikoaren
inpropioen batez bestekoa ia
%4 izan da, eta datu hori
tentuz jaso behar dugu. Izan
ere, %5etik pasatuko balitz,
kamioi guztia errefus bezala
kontabilizatuko litzateke eta
ehuneko orokorra asko jaitsiko
litzateke.

Beraz, bide onetik goaz,
baina arreta jarri behar dugu
sailkapenean. Ezin gara
erlaxatu eta orain arte bezala
edo hobeto egiten jarraitu
behar dugu. Guztiok ikusi
dugu erraza dela eta egingarria
dela. Gai izan behar dugu
norbaiti gaizki egiten ikusiz
gero, esplikatzen nola egin
behar duen. Hori egiteko gai
izanez gero, arrakasta
ziurtatuta egongo litzateke.
Zorionak arrasatear guztioi!

Irati libre nahi
dugulako...

**Lander Egino Sagasta, Olatz
Ibarluzea Santisteban eta Aizpea
Otxandiano Madinabeitia**
(Irati Libre taldea)
Arrasate

1981. urtean zabaldu zen Irati
etxea. Etxea diogu zenbait
arrazoierengatik, taberna soil
bat baino gehiago izan delako
arrasatear askorentzat, gazte
asko eta asko bertan hazi eta
hezi direlako edota askotan
babesleku sentitu dugulako.
Arrasatear askorentzat
erreferentzia handiko gunea
izan da eta da oraindik ere
Irati. Horregatik, Irati libre
nahi dugu. Libre hazten eta
hezten jarraitzeko, libre
babesleku bat izateko eta libre
etxe bat nahi dugulako.

Baina estatu espainiarrek
zein frantziarrek
errepresioaren errezeta zahar
eta antzuan tematuta segitzen
dute eta 2002. urtean
abiatutako 35/02 operazioa itxi
nahi dute egun, aste edo
hilabete gutxi barru. Euskal
herritarren kontrako epaiketa
politikoen zurrumbilo honen
baitan, litekeena da Auzitegi
Gorenak 35/02 epaia ematea
lau pertsona atxilotzeko

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio
Taldea Kooperatiba Elkartea
Otolara Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai
(Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia
Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Ziortza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otolara Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otolara Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otolara Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 00

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Difusioa: 19.951 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñati Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



**Eusko
Jaurlaritzak
diruz lagundutako
aldizkaria**

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

arriskuan jarriz eta Euskal Herriko hainbat herritako txoko, taberna eta elkarteak itxiz; Irati, besteak beste.

Euskal herritarren aurkako azken aste eta hilabeteetako gertakariak ez ditugu erraz ahaztuko. Ez ditugu ahaztuko gazteen aurkako atxiloketak, herri harresietan Ertzaintzak emandako jipoiak edota honen aurrean euskal herritarrek erakutsitako duintasuna eta egindako lana.

Salbuespen politika hauekin guztiekin amaitu beharra dugu eta ardurak eskatu nahi ditugu. Ardurak eskatu salbuespen egoera honekin jarraitu nahi dutenei, espainiar zein frantziar estatuetako arduradunei zein Euskal Herriko arduradun politikoei.

Euskal herritarren aurkako erasoak eta epaiketa politikoak geratuko ditugu, auzolanaren eta desobedientziaren bide honetatik jarraituz gero, geratuko ditugu. Ez dugu onartuko 2015. urtean horrelako lege injustuengatik euskal herritarrek atxilotzea. Horregatik, legea hautatu beharrean justizia aukeratzen dugu eta desobedientziaz elkartasunetik konpromisora salto egingo dugu.

Eskerrik asko!

Kepa Urteaga

(Kultura, Jaiak eta Gazteria zinegotzia)
Arrasate

Ondorengo hitz hauekin, azken lau urteotan bidelagun izan ditudan pertsonei nire omenalditxo eskaintzea dut helburu.

Den-denak aipatzea zaila da; beraz, bateren bat izendatu gabe baldin badago, barkamena eskatzen diot aldez aurretik.

Eskerrak, beraz, lan hau egiteko gai nintzela uste izan zenutenoi, aukera eman zenidatelako, botoa eman zenigutenoi –zeuen babesik gabe, ezinezkoa litzatekeelako Udalean egindakoa egitea– eta, urteak pasa ahala, babestu gaituzuenoi. Udalbatza osoari eta, batez ere, Inazio, Maider, Josu, Iratxe, Omer, Iraia, Josebe, Joxerra, Amaia, Barrio, Joxe, Leire eta Anderri. Zuek bai taldea!

Elkarlanean izan ditudan elkarte guztiei eta eragile guzti-guztiei ere bai; batzuekin besteekin baino elkarlan handiagoa izan dudan arren, zuengandik guztiengandik ikasi baitut zer edo zer interesgarririk. Zuek zarete herri honetako motorra!

Nire burutazio xelebreak jasan dituzuen *Mondraberr*i, *Goiena*, *Noticias* eta *Diario*-ko kazetariei ere bai, nire *bertsolari* lanak zuek pairatu dituzue eta.

Beste bloketxo honetan udal langile guztiei ere nire eskerrak; orain bai izendatu beharrean nagoela zenbait; gertukoenak, behintzat. Eskerrik beroenak Blanka,

Dorleta, Iñaki eta Leireri gazteriako alorrean egindako lanagatik. Baita Mila eta Eneritzi, beti prest. Gobernu batzordeko Iñigo, Moises, Iñaki eta Juan Antonio. Eta Kultura eta jaietako zerbitzu osoari, Andoni, Haritz, Joxe Mari eta Jago: Amaia antzokia zuek gabe ez litzateke berdina izango, ezta kaleko espektakuluak ere.

Kalistroetako zaindari dugun Kike eta Udal Liburutegiko langile guztiei ere mila esker. Eta, nola ez, gertuen izan ditudan Pili, Karmelo eta Joni, sekula ezin izango dotzuet eskertu erakutsitako guztia.

Eskerrak ere Sei Pistols eta Trabuko Bat taldeko kideei, kasualitatez sortu zen proiektu honek izugarri aberastu nauelako, bai musikalki, baita laguntasunean ere, kristoren ekipoa zarie!

Eta, bukatzeko, nire eskerrik bero eta garrantzitsuenak, bizi izan dudan esperientzia erraldoi hau bizitzeko, eurei lapurtutako ordu eta ordu guztiak berriro ez direla bueltatuko jakinda, benetan jasan izan nauzuen Esti, Bittor eta Kenareri. Zuen pazientziak bideratu ditu aurrera eraman diren eta gauzatu ez diren proiektu guzti-guztiak. Maite zaituztet!

Eta zoriontasun negar malkoen artean agurtzen naiz, beste modu batean ezin daitekeelako izan.

Mila-mila esker!

Aretxabaletarrak kirolez bustita!

Adrian Merino

(UDAKo Zuzendaritza Batzordearen izenean)

Aretxabaleta

Ehunka pertsona izan zarete joan den aste bukaeran kirolez busti zaretenak! Aretxabaletako hainbat eragileren eskutik, hamaika kirol egiteko eta ikusteko aukera izan dugu, herriko bazterrek kirol espektakuluaren oholtza bihurtuz. Eskerrik asko UDAKo sailen arduradunei, Loramendiri, Aretxarteri, Basotxori, Aspaceri eta Aratzi, Gazte Ekimenari, Arizmendiri, Kiroldegiari, Lekaixokari, trikitilari kuadrillari, Areskori, Street Boulder taldeari, Murrukixori, Trialsin taldeari, Belar Meta eta Orlyri, Aretxabaleta ez dela gatz bako herria erakutsi diguten paella sukaldari maisu aretxabaletar nahiz getxotarrei eta, nola ez, parte hartu duzuen guztiei, mundialak zarete! Datorren urtean ere zuen zain egongo gara.

Bestalde, ehunka pertsona zarete astero-astero UDArekin bat egiten duzuenak. Datorren denboraldian futboleko lehen taldeak zein mailatan jokatuko duen batek daki, argi dagoena UDA osatzen duzuen guztiok primerakoak zaretela! UDAKo

jokalarioi, teknikariei, laguntzaileei, egunen baten jokalaria izango zareten gaztetxoei, zaleei, gurasoei, babesleei... Mila esker denoi. Aupa, UDA!

Eskerrik asko denoi!

Aitor Rementeria

(Antxintxika Triatloi Taldea)

Debagoiena

Joan den igandean I. triatloi txikia egin zen Bergaran, Antxintxika Triatloi Taldearen antolakuntzarekin. Lehen aldiz Bergaran triatloi bat ikusteko aukera izan genuen eta 80 neska-mutikoren partaidetza izan zen.

Antxintxika Triatloi Taldetik balorazio ezin hobea egiten dugu. 8 eta 14 urte arteko neska-mutikoak triatloira hurbiltzeko aukera izan dugu, eta, nagusien artean, kirol gogorregia den iritzia leundu egin dugula uste dugu.

Antxintxika Triatloi Taldetik eskerrak eman nahi dizkiegu bailarako kirol teknikariei, Servimasari eta Bergarako Udalari, lasterketa antolatzeko eman dizkiguten erraztasunengatik, eta esan behar dugu denon laguntzarik gabe ez litzatekeela posible izango honelako lasterketa batez eta kirolaz disfrutatzeko eguna antolatzea.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta ea datorren urtean ere honelako egun ederra antolatzeko aukera dugun.

AHTa gelditu!

Mila Elortza

Bergara

8 urte igaro dira AHTa egiteko lanak hasi zirenetik. Ordutik hona mito bat erortzen ikusi dugu. Agerian gelditu da AHT ez dela bideragarria eta ez dakarrela inongo onurarik gizartearentzako.

Proiektua inposatu nahian ari direnek ez digute esaten zenbat diru gastatu duten orain arte eta ez dakite zenbat gehiago beharko den aurrerantzean, ezta noiz amaituko dituzten lanak ere. Gero eta zalantza gehiago Euskal Herrian sekula eginiko inbertsio handienaren gainean, bultzatzaile burugogorrei errealitatea ikusten uzten ez diena: Parisekin eta Madrilekin loturarik ez dauka eta Bilbo, Gasteiz eta Donostia artean aurreikusitako denborak gero eta handiagoak dira, autoen edo autobusen ia parean egoteraino.

Estrategikotzat saldu nahi izan diguten proiektuari errealitatea gailendu zaio. Eraikuntza lanek ekarri behar omen zuten bultzada ekonomiko handia ez du inork ere ikusi, hango eta hemengo alderdi

politikoetako lagun minak diren eraikuntza-enpresari handiek izan ezik, poltsikoak ondo bete dituztenak, gero eta maizago azaleratzen diren ustelkeria kasuak lekuko. Prekarietatea eta lan istripuak AHTko lanetan ari diren langileen eguneroko ogia dira, gehienak azpikontraten eskuetan harrapatuta, lan eta segurtasun baldintza negargarrietan, zazpi hildako eragin dituztenak.

Diru-xahuketa honen erantzuleek, EAJ-PNVk, UPN-PPk eta PSE-PSN-PSOEk, ez daukate inongo arazorik urtero aurrekontuen zati handi bat obra honetara bideratzeko. Badakite diru hori maileguan eskatu behar dela eta gero eta zor handiagoa pilatzen dutela eskuetan dituzten gobernuen gainean. Aldi berean, esaten digute ez dagoela dirurik gizarte zerbitzuetarako eta kultura edo ekonomiako bestelako arloetarako.

Egoera hau ikusita, manifestazioara deitzen dugun talde eta erakundeek hau exijitzen dugu:

1-Berehala AHTko lanak geldiaraz ditzatela.

2- Proiektu arranditsu honi bideratzen zaizkion diru-partidak erabili daitezela jendarteak dituen benetako premiei: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak... euro bat gehiago ere ez AHTrako!

3- Ireki dadila eztabaida tekniko, sozial eta politikoa azpiegitura honen inguruan, herritarren parte-hartze, informazio eta erabakitze prozesu batekin batera, guztion artean erabaki dezagun zer egin proiektu honekin.

Dei egiten diegu herritar eta elkarteei bat egin dezaten ekainaren 13an Donostian AHTa gelditzeko egingo dugun manifestazioarekin.

Agintaldi bukaerakoa

Jaione Isazelaia

(Bergarako jarduneko alkatea)

Bergara

Agur esateko ordua iritsi zaigun honetan errepaso labur bat eta eskerrak emateko hitz batzuk esatea egokia iruditu zaigu.

Gogora ekarri nahi dugu 2011n zein testuingurutan sartu ginen egun EH Bildu osatzen dugun kideok Udal Gobernura. Orduko hauteskundeetan Ezker Abertzalearen zati garrantzitsu batek galarazita izan zuen parte hartzea eta, gauzak horrela, herrigintzako hainbat alorretan aritutako jendea aurkitu ginen lekukoa hartu beharrean. 2011ko emaitza arrakastatsuak jarri gintuen Bergarako Udalaren gidaritza hartzeko atakan. Gutariko gehienok politikagintzan inolako eskarmenturik zeukan taldea osatu arren, eta testuinguru ekonomikoa gure kudeaketa

izugarri baldintzatu duen arren, agintaldiaren batez besteko balorazio positiboa egiten dugu.

Zeregin honetan aritzeak gure ibilbide pertsonala asko baldintzatu du, lan exigentea da Udalarena, ardura handikoa, baina, era berean, oso aberatsa. Gure ipar nagusia bergararron ongizatea hobetzea izan da, betiere, herritarron etorkizunari inolako hipotekarik erantsi gabe, eta hori zeregin hori aurrera eramateko herritarrek berak ezarritako balioetan oinarritu gara. Elkarrekin *bergaritzen* jardutea pribilegioa izan da, horretan ez daukagu zalantzarik.

Hala ere, dena ez da izan pagotxa, ibilbide honetan hainbat sail behar den moduan ondu eta ureztatu barik geratu zaizkigu, lagunak, familia eta gure zaletasunak maiz alboratuta laga behar izan ditugu; izan ere, Udaleko lanak nekez uztartzen dira aurreko horiekin.

Gure ibilbide honetan bi ardatz nagusi izan ditugu, gure hauteskunde programa eta herritarrekin osatutako Plan Estrategikoa. Zailtasunak zailtasun, bi dokumentu honekin koherenteak izaten saiatu gara eta agindutakoa betetzen. Betetze mailaren batez bestekoarekin harro sentitzen gara, planifikatutako gehiena zintzo burutu dugulako.

Amaitzeko, eskerrak ematea baino ez zaigu falta, hasteko udal langileriari, bidelagun zintzo izan ditugulako; batzordeetan elkarlanean gure ondoan izan zareten udalkide nahiz herritar guztiei; gobernu bilera luzeetan magalean goxo egon zareten Telmo eta Xaneteri; herritar eta eragile guztioi, gurekin izan duzuen pazientzia eta konfiantzagatik; eskerrak bidelagun izan ditugun instituzio eta haien ordezkariei: Mankomunitatea, Eusko Jaurilaritza eta Foru Aldundiari; kazetari eta komunikabideei, esker bereziak, gure osoko bilkura amaigabeak jan dituzuelako; agintaldia gurekin hasi zuten Jesuxek eta Justinak egindako ahaleginak ere eskertu nahi ditugu.

Eta, nola ez, gure aurreko udal ordezkari guztiei eta ondorengoei ere eskerrak, udalgintza etengabeko eraikuntza-lana baita; aurrekoek egindakoaren gainean jardun dugu eraikitzen, era berean gure ondorengoek guk ezarritako oinarrietan eraikitzen jarrai dezaten.

Eta ahalegin honetan maiz gure familia eta lagunei behar besteko arreta emateari utzi diogunez, eskerrak emateaz gain, esan nahi dizuegu maite zaituztegula.

Eta bukatzeko, esaerak dioena eskatuko dizuegu denoi: ondo eginak gogoratu eta gaizki eginak barkatu.

HERRIAK

ARRASATE



1945ean Valeriano Martinez argazkilariak Arrasateren argazki orokorra atera zuen. Gaur inauguratuko den erakusketari begira argazki-muntaia egin dute antolatzaileek. | VALERIANO MARTINEZ

1940ko hamarkadako Arrasate Kulturaten

- ▶ 'Arrasate 1945' erakusketa irekiko dute gaur (18:00)
- ▶ Merkataritza, industria eta orduko bizimodua ikusgai

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Alberto Loiti arrasatearraren ikerketatik abiatu zen guztia duela bi urte. Aspaldiko piezekin eta produktuekin bilduma egitea du

zaletasun Loitik, eta, behin erre-tiroa hartuta, Emaus zaharrear aurkitu zuen liburu bat izan zen erakusketa antolatzera animatu zuen "inflexio puntua". *Guipuzcoa*

en la mano. Anuario General de toda la provincia 1945 da liburua eta bertatik atera ditu Loitik 1940ko hamarkadan Arrasateko planoak, kaleetako dendak, lantegiak eta negozioak, besteak beste.

Arrasatearren gustukoa izatea

Loitik onartu du bere zaletasunak haserre bat baino gehiago eragin diola etxean: "Planoak egiteko aukera bakarra sukaldeko mahaia zen, eta ordutegi bat zehaztu behar izan zidaten...". Eta orain, erakusketa irekitzear dagoela, helburu bakarra du Loitik: "Benetan poztuko naiz erakusketa irekitzeak zerbitutarako balio badu. Arrasateko herriak erakusketarekin gozatzen badu, orduan poztuko

naiz. Ez dut nahi inoren aurrean ondo geratu edo protagonismorik hartu, arrasatearrek goza dezatela da nire helburu bakarra".

Hamar panel, hamar kale

Klaustroaren bueltan hamar panel -3 x 1,50 metrokoa bakoitza- ikusi ahalko dira, garai hartako kale bana ordezkatzeko duena. Orduko izenekin (Calle Generalísimo Franco, Toribio Aguirre...) irudikatu dituzte kaleak eta panelotan orduko hainbat komertzio ikusi ahalko dira, kale horien planoekin, argazkiekin eta bertan bizi ziren pertsonaia ezagunekin batera. Horrez gain, beste hamar panel ikusi ahalko dira testu hutsekin, orduko Arrasate ezagutzeko lagun-garri izango direnak.

Honako arlo hauek lantzen dira testu hutseko paneletan: gerraostea; eguneroko bizimodua; etxebizitza eta osasungintza; erlijioa; kirola; hezkuntza eta frankismoaren aurkako borroka; emakumea eta aisialdia. Eta hori guztia gutxi balitz, bitrinak jarri dituzte antolatzaileek Kulturateko klaustroaren erdian; 1940ko hamarkadan Arrasateko 32 enpresak fabrikatutako 200 produktu baino gehiago bertatik bertara ikusteko aukera egongo da: "Produktu horietako batzuk 36ko

ALBERTO LOITI | ANTOLATZAILEA

"Gure herriko ondarea galtzen ari da"

Erakusketaren ideia sortu zitzaion Loitiri; Arrasateko ondareak arrasatearra izan behar duela deritzo.



J.D.

Nondik dator ideia?

Aspaldiko objektuen eta historiaren zalea naiz. Ikusi izan dut gure herriko ondarea kanpoko museoetan, penagarria iruditzen zait. Herrian askotan ez diogu baliorik ematen eta hainbat gauza galtzen ari dira.

Nolako izan da elkarlana AZEko kideekin?

Nire kabuz hasi nintzen lanean, baina larregi zenez, Udaleko lankide ohi Marga Garmendiak [Loiti 30 urtez aritu zen lanean Udalean] gomendatu zidan AZEkoekin batera egitea. Gустura egin dut lan eurekin; orain garrantzitsuen falta da, arrasatearren gustukoa izatea.



Antolatzaileak, erakutsiko dituzten produktu batzuei begira. | JAGOBA DOMINGO



ITURRIA: ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

ERREPUBLIKAKO BANDERA 1947ko apirilaren 11 zen, zapatua, orduan alderdi komunistako kide zen Fermin Arabaolatzak Errepublikako bandera jarri zuenean Portaloitik gertu: "Franco, Franco, Franco horman idatzita eta hara non agertzen den bandera. Guardia Zibilak ez zuen eguerdira arte kentzerik izan; Bergaratik etorri zen jendea ikustera. Adinekoek gogoan dute oraindik", dio Juan Ramon Garaik.



ITURRIA: ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

ITURRIPEKO FUTBOL-ZELAIA 1945eko sanjuanetan inauguratu zuten Iturripeko futbol-zelaia. 1980ko hamarkadara arte domeka ahaztezinak bizi izan ziren han Mondra futbol taldearen eskutik.



DATUA

200

PRODUKTU ETA ERRETRATU

Orduko 200 argazki inguru eta Arrasateko 32 enpresek orduan sortutako 200 bat produktu ikusi ahaliko dira Kulturatego erakusketan.

dugu eta espero dugu ondorengoek aurrerantzean ere horrela jarraituko dutela", dio AZEko Xabier Bengoak.

Irekiera ekitaldia gaur

Loitiren lana abiapuntu hartuta eta AZEren ekarpenei zein Udalen laguntzari esker, balio handiko erakusketan interesgarria antolatzea lortu dute. Asteon aritu dira lanean buru-belarri, gaurko irekiera ekitaldirako (18:00) dena gertu egongo dadin.

Antolatzaileen arabera, ekitaldian egongo da jarduneko alkate Inazio Azkarragaurizar eta espero dute –sorpresarik ezean– bihar alkate izendatuko duten Maria Ubarretxena ere bertan egotea. Gaurtik uztailaren 11ra arte egongo da zabalik erakusketak; astelehenetik zapatara, 17:00etatik 20:00etara.

gerraren ostean UCEMen berriz onartuak izan ez ziren langileek eginak dira. Hau da, azkarrak eta ekintzaileak izan zirela erakusten du horrek", adierazi dute antolatzaileek.

Historia hurbila erakustea

Erakusketaren helburua da hainbat belaunaldirendako ezezaguna den Arrasateko historia hurbila erakustea. Hau da, 1940ko hamarkada mingarri eta zailaren testuingurua arrasatearrei hurbilduko diete antolatzaileek. Dioteenez, "dena du berezia" erakusketak eta horregatik dei egin diete herritarrei Kulturatego klaustrotik pasa daitezen. Izan ere, ilusio guztiarekin ekin diote



Orduko kaleak ezagutzeko aukera. | J. D.

lanari; orain arte eten ez den kateak aurrerantzean ere etenik izango ez duela espero dute: "Albertoren eta beste hainbat herritarren lana ilusioz eta poztasunez hartzen dugu. Katea ez da eten; herri langilea gara, lana erakusten

Kaleak, pertsonak... lehen eta orain

Erakusketara bertaratzen denak orduko Arrasateko erdiguneko kale ezagunetan sartzeko aukera izango du; izan ere, kale horietako denda eta negozioak zein pertsonaia ezagunak ezagutzeko aukera egongo da.

Nola aldatu den Arrasate

60 urte inguru pasatu dira ondoko argazkiak atera zirenetik, eta horietan zein erakutsiko diren beste hainbatetan igar daiteke nola aldatu den Arrasate.



ITURRIA: ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

MAALA, LEHEN Errabala ez da askorik aldatu azken urte hauetan guztietan, eraikinei begiratuta.



JAGOBA DOMINGO

MAALA, ORAIN Portaloiko arku inguruan ikusten dira aldaketarik handienak, ondoko eraikinetan.



ITURRIA: ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA

ZARUGALDE, LEHEN 1940ko hamarkada amaierako txirrindularitza proba baten helmuga Zarugalden. Zale asko alboetan eta Guardia Zibila egoera kontrolatzen.



JAGOBA DOMINGO

ZARUGALDE, ORAIN Otalora kaleak hartu du garai baten Zarugaldetik pasatzen zen zirkulazioa. Argazkian ikusten denez, gaur egun ez dago arkurik.

Sanjuanak inoizko luzeenak izango dira aurten, eta hainbat nobedaderekin datoz

Ekainaren 20tik 27ra jai giroa izango da nagusi; gaur jarriko dira salgai herri bazkarirako txartelak

A.L./J.B. | ARRASATE

Urtero legez, Arrasateko haurrak izango dira danbor hotsekin sanjuanak badatozela iragartzearen arduradunak, bihar egingo dute eta haurren danborrada (ikus 11. orria). Gainerakoan, ekainaren 20an hasi eta 27an amaituko dira sanjuanetako egitarauan bete-betean sartuko diren ekintzak. Beraz, inoizko jairik luzeenak izango dira aurtengoak. Nobedadeak ere barra-barra: otxoteen topaketa, Erraldoi eta Kilikian Konpartsaren 30. urteurrena –topaketa berezia egingo dute– eta ekainaren 27an Jul Bolinagari omenaldia egingo diote.

Beste aldaketa bat ere bada: Dragoi Jana hilaren 20an egingo dute, 24an barik: "Jaietako egun gorrietatik atera gura izan dugu, afari horrek duen izaera euskaltzalea nabarmentzeko eta indartzeko. Bestalde, AEDkoek AEK-ko lagunekin batera antolatzen dugula afaria azpimarratu gurako nuke, batzuetan ahaztu egiten delako", azaldu duen AEDko Itxaro Artolak egitaraua aurkezteko agerraldian. Txartelak AEKn, AEDn eta Jai Zale tabernan jarriko dituzte salgai hamar eurotan; zortzi eurotan AEDko bazkide, Goiena klubeko kide eta AEK-ko ikasleendako.

Urrezko Dragoia ARTri

Era berean, Txosna Batzordeak atzo iluntzean aurkeztu zuen egitaraua. Hamar eragilek osatzen dute batzordea eta Udalararekin elkarlanean antolatutako ekintzak: "Inoiz baino egun gehiagoz luzatzen da, eta inoiz baino ekintza berri gehiagoz bete dugu. Horien artean daude nortasun agiri arrotzen jaurtiketa, herriko eragile eta artisaunen azoka eta herriko taldeen kontzertuak". Hori bai, ekintza finko arrakastatsuekin jarraitu egingo dute; hilaren 23ko herri bazkaria, kasu. Gaur jarriko dituzte salgai txartelak, Irati, Jai Zale eta Iluntz tabernetan, 15:30etik aurrera. Kamisetak eta jaietako zapi morea, ordea, hilaren 19an banatuko dituzte.

Gainera, azken urteetan galdu den ohitura bat berreskuratu dute batzordekoek, Urrezko Dragoiarena. Hori bai, festetan zentratu baino gehiago, urte osoko ibilbidea sarituko dute aurrerantzean: "Urtean zehar herrian zeresana eman duen talde edo norbanako batek bere lanaren aitortza jaso dezan saiaturako gara. Aurten, bigarren mailako txapeldun postua lortu duen eta hurrengo urtean lehen mailan arituko den Arrasate Rugby Taldeari eskainiko diegu Urrezko Dragoia", diote.



Eguaztenean egin zuten San Juan jaiak iragartzeko agerraldia. | A.L.

Ekainaren 21erako sarrerak salgai ditugu; erosi azken unera arte itxaron barik, garrantzitsua da

Ekainaren 21ean Anoetan egingo den ekitaldi masiborako sarrerak salgai ditugu dagoeneko eta garrantzitsua da arrasatearrek lehenbailehen erostea, azken ordura arte itxaron barik. Astelehenetik egubakoitzera Portaloian edo Herriko Plazan egongo gara 19:00etatik 20:30era. Zapata eta domeketan, berriz, Herriko Plazan egongo gara, 12:00etatik 14:00etara. Bertan jarriko ditugun mahaietan hilaren 21erako informazio guztia emango dizuegu. Animatu!

Agintaldirako udalbatza eratzeko osoko bilkura bihar

J.B. | ARRASATE

Agintaldi berrirako udalbatza osatzeko ezohiko osoko bilkura egingo dute bihar, 12:00etan. Bilkurak bi zati izango ditu: batetik, udalbatza eratzeko adineko mahaia osatuko dute, zinegotzi zaharrena, gazteena eta udal idazkariak osatua. Zaharrena zinegotzi hautatuei zina egin edo hitza ematearen formula irakurriko die –bata edo bestea egin, balio bera du legearen aurrean–, baiezkoa eman dezaten. Ondoren, udalbatza eratu dela eta zinegotziek kargua hartu dutela aldarrikatu du adineko mahaiburua.

Bigarren zatian alkatea aukeratzeko dute, eta, kontrarik adierazi ezean, zerrendaburu guztiak dira hautagai. Bozketan horietan gehiengo osoa lortzen duen hautagaia –aldeko hamaika boto– izango da alkate. Aldiz, gehiengo hori lehen bozketan inork ez badu lortzen, boto gehien lortu zuen zerrendaburu izango da alkate; hau da, EAJko Maria Ubarratzena. Ohitura da alkate izendatu berriak agintaldi hasierako diskurtsoa egitea.

Sistema berria helburua betetzen ari da orain arte

Bilketa selektibo mailaren lehen emaitza %77,7koa da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen Mahaia azken bi urteotan egindako lanaren lehen emaitzak baloratzeko orduan pozik agertu dira bertako eragile guztiak. Bilketa sistema berria martxan jarri aurretik zehaztutako helburuak bete dituzte arrasatearrek orain arte: "Arrasaten ere hondakinen bilketa selektibo maila %70etik gorakoa izatea lortu dugu, zehazki esanda, %77,7koa da. Herritar guztiak zoriondu gura ditut, euren erantzun egokiari esker lortu direlako emaitzak", adierazi zuen martitzeneko agerraldian jarduneko alkate Inazio Azkarragaurizarrek.

Hori bai, oraindik egiteko "asko" dagoela diote, bereziki organikoaren kalitateari dagokionez. Diotenez, organikoa ondo berezitzea da emaitza onak lortzeko giltza, organikoa delako egunero etxeetan sortzen den hondakin osoaren erdia pisutan. Arrasateko etxebizitza guztietatik %4 inguruk, organikoak ez diren hondakinak botatzen ditu organikoaren edukiontzira: "Etxe askotan organikoa ez da behar den moduan



Hondakinen Mahaiko kideek martitzeneko egindako agerraldian. | JOKIN BEREZIARTUA

berezitzen eta horrek lortutako emaitza guztiak zapuztu ditzake. Kamioi bat baino gehiago zaborregira badoa birziklatzera joan beharrean, emaitza bat-batean jaitsiko da", dio jarduneko ingurumen zinegotzi Josu Peredak.

Edukiontzien irekiera errazten

Hau da, organikoa birziklagarria da %5 baino inpropio gutxiago dituenen: "Organikoz betetako kamioi oso bat errefus bihurtu daiteke bere barnean, organikoaz

batera, %5 baino inpropio gehiago baditu. Eta, datuen arabera, %5 horretatik gertu dago organikoaren berezketak maila".

Bestalde, edukiontzi marroien eta grisaren irekiera sistema hobetuko du Mankomunitateak. Hau da, txartelarekin zabaltzerakoan ez ixteko kisketak (pestilloak) jarriko dira, eta gero herritarrek itxi beharko du estalkia. Erguinen hasi dira jartzeko eta datorren astean hasiko dira gainerako edukiontzietara zabaltzen.

EH Bildu: "Kudeaketak eta hautagaiak aukeratzeko prozesuak ordaina pasa digu"

J.B. | ARRASATE

Arrasateko EH Bilduren arabera, "txarrak" izan dira maiatzaren 24ko hauteskundeetako emaitzak Arrasaten zein Debagoienan: "Kudeaketak pasa digu ordaina eta erabaki ezberdinekin izan dute pisu negatiboa. Gipuzkoako erabaki batzuek ere, fiskalitatean esaterako, eragina izan dute. Amaitzeko, hautagai zerrenda aukeratzeko orduan izan ditugunek ere

ez dute lagundu", adierazi dute prentsa ohar bidez. Emaitza horiek eskuan dituztela, hausnarketa abiatu du koalizio ezkeriar eta abertzaleak: "Hurrengo lau urteetan egingo dugun lana, EH Bilduren antolaketa eta beste hainbat konturen gainean hitz egiteko abiatu dugu. Gonbidapena luzatzen dugu gure oinarriak ere parte har dezan, horrela soilik aberastuko dugulako gure jarduna".

Arrasate Garbi: "Eskerrik asko alkateari, guztion arteko akordioaren buru izatearren"

J.B. | ARRASATE

Hondakinen Mahaia emaitzen berri eman ostean prentsa oharra kaleratu du Arrasate Garbi plataformak: "Arrasatear guztioi zuen jarrera ezin hobea esker tzen dizuegu, eta hobetzen eta ahaleginean jarraitzera animatzen zaituztegu. Aldi berean, uzten duen Udal Gobernuari esker ona adierazi nahi diogu eta bereziki alkate jaun Inazio Azkarragaurizarri, Hondakinen Mahaiko partaide guztion arteko akordioaren buru izaten asmatu duelako, ikuspuntu ezberdinak izan arren, hitzartutako helburua lortu arte", adierazi dute.



Markel Irizar txirriindularia familiarekin, kanpainarekin bat egiten. | ANE LADERAS

'Zer ikusi, hura egin; eredu izan' kanpaina abiatu dugu, parte hartu!

KOMUNITATEA GOIENA
EUSKALGINTZA | ARRASATE

Udalak, euskalgintzako erakundeekin batera, hizkuntza transmisioaren garrantziaz herritarrek sentsibilizatzeko kanpaina abiarazi du. Helburu nagusia da gurasoengan eragitea, eurak direlako hizkuntza transmisioaren gakoa. Izan ere, hizkuntza baten normalizazioan erabateko garrantzia du familia bidezko transmisioak, horixe da eta hizkuntza ikasteko modurik naturalena, aberatsena, eraginkorrena, errazena eta merkeena. Guraso euskaldunek gehiago erabiltzen dute euskara

seme-alabekin norberaren belaraldikoekin baino. Norberaren harreman-sare hurbileko, familiarikoa eta lagunarteko hizkuntzak berebiziko eragina du hizkuntza baten komunikatzeko gaitasunean, hizkuntza ohituretan eta jarreretan.

Gaur arratsaldean Biterin

Kanpaina ekainaren 5ean abiatu genuen eta uztaillaren 17ra arte –ekainaren 26an izan ezik– egubakoitzero *photocall*-a jarriko dugu kalean, 17:30etik 19:00etara. Gaur, hilak 12, Biterin plazan egongo gara. Animatek eta parte hartu!

NIRE USTEZ



INES ALDAI

Batu zertarako?

Hauteskundeek beti ekartzen zizkidaten gogora Gabonak. Sariarik lortu ez genuenok pozik geunden. Osasuna dela eta, ondo bizi garela, eta abar. Baina, aldi berean, ez nuen inork kezkatzen ikusten saria tokatu zitzaizolako. Denok zoriontsu. Hauteskudeekin berdin. Denok pozik; bazeukaten, beti, zer ospatu. Aurtengoetara arte. Hauetan, porrota onartu duten lehenengoetariko bat izan da.

Ezin izan da ezkutatu jendea ez dela gustura egon. Herritarren haserreak edo desadostasunak islatu egin dira aurtengo emaitzetan.

Onartu bezain pronto... bigarren zatia. Politikak irabazi duela, ona dela kolore ezberdinetako udalak osatzea... Ados, baina galdera batzuk etortzen zaizkit burura: ez da posible izan hori bera egitea orain arte? Irabazlerik ez egotea behar da indarrak batzen hasteko? Hori da elkartzeko gaituen arrazoi bakarra?

Oraindik udalen %80 osatu gabe daude Espainian –Euskal Herria barne–. Leku askotan ez da nahikoa bi alderdik bat egitearekin eta beste batzuetan hiru baino gehiago elkartu beharko dira: "Elkartu gaituzten beste hau kanpoan uzteko", hori da entzuten dena. Beste argudio batzuk ere egongo direla pentsatu nahi dut.

Oso agintaldi luzea izango da horretan bakarrik oinarritzen bada batasuna. Hala bada ez dut uste politikak irabaziko duenik.

"Irabazlerik ez egotea behar da indarrak batzen hasteko?"

Sagardo Garaia amaitua... udako garaia:

- Karta zabala.
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Lanak bukatu ostean, hilaren 20tik aurrera kanpoko igerilekuak zabalik

Ertainean eta txikian azulejuak kendu eta zentimetro bateko zementuzko geruza ipiniko dute

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Musakolako kanpoko igerileku txikian eta ertainean egiten diharduten berrikuntza lanak martxa onean doaz. Hain zuzen ere, domekarako bukaturiko dituzte eta astelehenean bertan beteko dituzte biak urez. Legeak eskatzen dituen azterketen emaitzak balekoak badira, hilaren 20an zabalduko dute udako bainu denboraldia Musakolan. Eta erabiltzaileek nabarituko dituzte berrikuntzak: bereziki, igerileku txikian eta ertainean.

Port Aventura antzera

AEBetatik ekarritako Diamond Brite produktua da igerileku ertaina eta txikia estaltzeko erabiliko dutena, eta lan horiek egiten dihardu Port Aventura igerilekuez arduratzen den Oceanic Brite enpresak. "Produktu ona dela badakigu. Erabiltzaileen segurtasuna babesteko berme osoa duena", esan du Kirol Sai-leko buru Larraitz Sanzberrok.

Diamond Brite kuartzo zatiak dituen zementu berezia da, eta masa baten antzera zabalduko



Oceanic Brite enpresako langileak igerileku ertainean lanean. | MIREIA BIKUÑA

dute igerilekuetan. "Sistema berriarekin, azulejuen arteko loturak eta horiek sorrarazten zituzten ebakiak eta beste zauriak saihestuko ditugu. Era berean, produktu irristagaitza da eta ez da erorketarik egongo", dio Larraitz Sanzberrok.

Izan ere, iazko udako bainu denboraldian igerileku ertaineko eta txikiko hainbat erabiltzailek izan zituzten zauriak eta ebakiak oinetan.

Mantentze-lanak merkeago

Kiroldegian egiten diharduten berrikuntza lanekin erabiltzaileen segurtasuna bermatzeaz gain, hiru igerilekuen mantentze-lan gastuak murriztuko dituzte. "Urtoroko erabileraren eta garbiketaren ondorioz galdutako eta apurtutako azulejuak aldatu egin behar izaten ziren. Iaz, hiru igerilekuen artean, 8.000 azuleju aldatu behar izan genituen. Hala, mantentze-lanetan dirua aurreztuko dugu.

DATUA

8.000

AZULEJU

Azuleju kopuru hori aldatu zuten iaz kanpoko hiru igerilekuetan.

Azulejuak aldatzeko eta solte zeudenak itsasteko lanak ez ditugu gehiago egingo", azaldu du.

Diamond Brite produktua kolore gama handia dauka. Musakolarako turkesa eta harea kolorea aukeratu dituzte.

Igerileku handiarekin zer?

Berrikuntza-lanak igerileku ertainean eta txikian egin dituzte, eta, emaitza esperotakoa bada, ez dute baztertzen igerileku handian zoru berbera erabiltzea. "Emaitzak aztertu ostean ikusiko dugu igerileku handiarekin zer egin daitekeen etorkizunean", dio Sanzberrok.

240 bat neska-mutikok parte hartuko dute haurren danborradan

Sanjuanetako ataria den haurren danborradak erritmoz beteko ditu bihar, zapatua, erdiguneko kaleak (19:00). Guztira, 240 neska-mutikok parte hartuko dute zazpi konpainiatan banatuta. Guztien buru, jeneral paperean, lehen aldiz, neska bat egongo da: Andrea Petite.

Haur danborradaren ibilbidea honako hau izango da: Nafarroa etorbidea-Biteri etorbidea-Garibai etorbidea-Maialako Errabala-Erdiko kalea-Herriko Plaza.

"Elkartasunetik konpromisora" salto egiteko Libre Eguna

Arrasateko Libre taldeak egun osoko egitaraua osatu du bihar, zapatua, Libre Eguna ospatzeko. Irati taberna itxeko dagoen arriskuaren aurrean, "elkartasunetik konpromisora" pasatzeko hainbat ekintza egingo dituzte: serigrafia (12:00), Irati tabernaren bilakaeraren kontakizuna (12:30), bazkaria (14:30), haurrentako jolasak (16:30), eta kontzertua (17:00) Seber Altuben; eta 4P4 taldearen bertsio gaua (20:00) eta, horren ostean, karaokea Irati tabernan.

Gorputz tratamenduetan berrikuntzak

Cooltech: Adipolisia izozte lagundu bidez

cooltech

Hozte sistema kontrolatua erabiltzen du

Leku zehatzetako koipea kentzeko

Gorputza modelatzeko

Ez du minik egiten eta ez da inbaditzailea

%10eko
deskontua

Promozio baliagarria
uztailaren 15a arte

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

VMAT: uhin akustikoak eta mesoterapia birtuala

Zelulitisaren aurkako terapia

Laranja-azala txikitzeko

Azala leuntzeko

Gorputza birmoldatzeko aproposa

RPS: 48/14
Ez da osasun
zentroa

ATLETISMOA

Gipuzkoako errekorra hautsi du Istar Dapena arrasatearrak

4,86 metroko pertika-jauzia egin zuen Durangoko Euskadiko txapelketan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko atletismoak berri on gehiago eman zituen aste bukaeran. Malen Ruiz de Azuak, Maialen Axpek, Iñigo Uribarrenek eta Eneko Carrascalek lortutako emaitzei, Istar Dapenaren errekor berria gehitu behar zaie. Arrasatearrak gazte mailako Gipuzkoako errekorra hautsi zuen pertika-jauzian. Hain zuzen ere, 4,86ko jauzia egin zuen Durangon jokotutako Euskadiko txapelketan. Marka horrekin, 1980an Jon Karla Lizeagak ezarritakoa hautsi zuen. Orduan, 4,80 metroko pertika-jauzia egin zuen. "Emaitza oso ona da. Errekor berria ipini dut eta oso pozik nago, baina ez naiz horrekin konformatzen", esan du atleta arrasatearra.

Aire zabaleko denboraldia hasi berri da eta Dapenaren helburua bost metroko pertika-jauziarekin saiatzea da. Hori du aurtengorako helburu nagusi.



Istar Dapena arrasatearra, egindako pertika-jauziarekin. | FERNANDO ZUFIRIA

Beste emaitza batzuk

Bestalde, aurreko aste bukaeran Durangon jokotutako Euskal Herriko txapelketan Arrasateko beste hainbat atleta egon ziren.

Iban Fernandezek urrezko domina lortu zuen 100 metroko

proban 11.49ko denborarekin eta Ciudad Realen jokotako den Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen.

Daniel Martinezek ere urrezko jantzi zuen 400 metroko lasterketan, 52.05eko denbora egin-

da. Arrasateko errelebo taldeak -Ibai Fernandez, Eneko Carrascal, Dani Martinez eta David Gartzia- urrezko domina irabazi zuen, eta Eneko Carrascalek zilarrezkoak luzera-jauzian eta 100 metroko proban.



Aiba! mendi martxako parte-hartzaileak anoa-postuan. | GOIENA

MENDI MARTXA

336 lagunek parte hartu dute Aiba! mendi martxa arrakastatsuan

M.B. | ARRASATE

Giro onean egin zuten aurreko domekan Aiba! mendi martxa Arrasaten. Guztira, 336 lagunek hartu zuten irteera Monterronen, eta, hamalau izan ezik, gainerakoak heldu ziren helmugara. Gainera, ez zen ezbehar eta zauritu larririk egon: bi lagunek bakarrik hartu zuten min ibilbidean; batek orkatilan eta besteak belaunean. 98 lagu-

nek 41 kilometroko ibilbidea egin zuten eta gainerakoek, 34 kilometrokoa.

Opariak bukaeran

Datu horiek eskutan, antolatzailleek balorazio "positiboa" egin zuten, eta bi urte barrurako gonbidapena egin zieten parte-hartzaileei. Horiek, opari moduan, gerriko poltsa eta mendirako makila jaso zuten.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Kurtso amaierako erakustaldia egingo dute gimnastek

Arrasateko Dragoi gimnasia taldeak ikasturte bukaerako jaialdia egingo du bihar, zapatua, Uarkapen, 11:00etan. Urtean zehar landutako koreografiak eta ariketak erakutsiko dituzte etxekoan eta lagun artean. Guztira, 5 eta 20 urte arteko 120 gimnastak parte hartuko dute pilotalekuko erakustaldian.

ARETO FUTBOLA

Aldatz taldeak irabazi du Zaldibarko final handia

Eskoriatzako Aldatz taldeak irabazi zuen aurreko aste bukaeran Zaldibarko areto futbol txapelketa Driblingen kontra. Finala oso parekatua izan zen, eta lehia bukatzeko bi minuturen falta penalti bikoitza sartuta lortu zuten garaipena eskoriatzarrek. Lasagabaster sailkatu zen hirugarren lekuan.

GIMNASIA ERRITMIKOA



DRAGOI TALDEA

Euskadiko talde txapelduna

Arrasateko Dragoi gimnasia erritmikoko taldeak lehen postua lortu zuen Durangon jokotutako Euskadiko txapelketan. Mazoak erabilita taldeka egindako koreografiarekin gazte mailako urrezko domina jantzi zuten Eider Altube, Maialen Gallardo, Mirentxu Amozarrain eta Ane Fernandez arrasatearrek.

Azaroaren 13tik 27ra ezagut ezazu

Argentina

PUERTO MADRYN

- Valdes penintsulan balea ikustaldia
- Punta Tomboko pinguino tokia

USHUAIA

- Suaren Lurraldeko parke nazionala
- Beagle kanala
- Hegaztien irla
- Otsoen irla

CALAFATE

- Glaziarren Parke Nazionala
- Perito Moreno glaziarra itsas safariarekin
- Izotz erreka Express txangoa

IGUAZU

- Iguazuko ur-jauziak, alde brasildarra eta alde argentinarra

BUENOS AIRES

- Tango erakustaldi-afaria
- Gautxo festa
- Hiri bisitaldia

Prezioa: 4.310 €€

Eskaintza honek honako hau hartzen du barne:

- Gidaria Arrasatetik eta bidaiari osoan
- Arrasatetik Madrilgo aireporturaino autobusa
- Hegaldi nazionalak eta nazioartekoak
- 4 eta 5 izarreko hotelak
- 12 gosari, 9 bazkari eta tango erakustaldi-afari bat
- Baliogabetze eta asistentzia aseguruak
- Desplazamenduak, bertako gidak eta eskupekoak
- Ordaintzeko erraztasunak

*Ibilbide osoaren xehetasunak Arrasate Bidaia-en



Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30
www.arrasatebidaia.com

'Lehen abangoardiak' erakusketa gaur ikusgai

Kulturateko pintura ikastaroko 42 ikaslek elkarlanean eginiko koadro handi bat jarriko dute, esaterako

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Kulturateko pintura ikastaroan ari diren ikasleek eginiko 50 obra baino gehiago jarriko dituzte gaur Seber Altube plazan arratsaldeko bostetatik bederatzietara bitartean.

Ikusgai egongo diren margolan guztien artean, nabarmentzekoa da ia hiru urtean zehar 42 ikasleren artean osatu duten bat, bost metroko luzerakoa.

Amaia Bengoa irakasleak ideia landu ostean, ikasle bakoitzak koadroaren zatitxo bat egin du, eta ondoren guztiak lotu eta koloreak berdinatu dituzte. Zati guztiak paisaiaren gaia hartuta eta olio teknika erabiliz margotu dituzte. "Lan handia izan da", adierazi du Bengoak.

Koadroak inpresionismotik hasi eta abstrakzioraino izan diren mugimendu artistikoak erakusten ditu, lehen abangoardiatik pinturak izan duen bilakaera islatuta. Ikastaroan landutakoa praktikan jartzeko modu bat izan da.



2013ko erakusketaren irudi bat. | GOIENA

Horretaz gain, ikasleek indibidualki eginiko obrak ere aterako dituzte Seber Altube plazara, 55 inguru. Olio margolanak eta akuarela teknikaz eginikoak izango dira.

Artea jendeari hurbiltzen

Erakusketako koadro guztien ondoan azalpen bat idatzita darman karteltxo bat jarriko dute,

zein teknikarekin egin den eta zein mugimendutan kokatzen den argituta. Amaia Bengoaren esanetan, erakusketaren helburua "jendea artearen inguruan kulturizatzea" da.

Ikasleak eta irakaslea "gogoz" daude lanak jendaurrean erakusteko; bereziki, horrenbeste denbora eskaini dioten elkarlanean eginiko koadro handia.



47 neska-mutikok osatzen dute Griseras abesbatza. | GRISERAS ABESBATZA

Tuterako Griseras eta Arizmendi abesbatza bat eginda Arrasaten

M. T. | ARRASATE

Tuterako Griseras ikastetxeko abesbatzaren bisita jasoko dute asteburu honetan Arizmendikoek. Gaur arratsaldean harre- egingo diete Garibaiko geltokian, eta ondoren, 19:45ean hasita, ordu erdi inguruko emanaldia egingo dute elkarrekin Portaloian, Arizmendi Ikastolako ikasturte bukaerako jaiaren baitan.

Bihar, bestalde, San Juan Batailatzailearen parrokiaren izango dira kontzertu handirako. Bi abesbatzak batuta, guztira, 130 haur inguru elkartuko dira bertan.

Arizmendiko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkun-

tzako taldeek eta Griseras koruak nork bere abestiak eskaini ostean, amaieran kanta bi abestuko dituzte guztiek elkarrekin.

Griseras

90eko hamarkadan sortu zen Griseras abesbatza, izen bereko eskolako ekintzen baitan. Geroztik ospea hartzen joan da, eta aurten bigarren postua erdietsi du estatu mailako eskola arteko abesbatzen I. txapelketan.

Elkartruke kontzertua izango da zapatuan egingo dutena; izan ere, apirilean Arizmendikoak joan ziren Tuterara bisitan, eta nafarren txanda iritsi da orain.

Arrasate Musikalen kontzertu handia datorren egubakoitzean

M. T. | ARRASATE

Urtero bezala, emanaldi berezia eginda agurtuko du Arrasateko musika eskolak aurtengo ikasturtea.

18:30ean hasiko da kontzertua, eta ia 300 neska-mutiko igoko dira Amaia Udal Antzokiko taula gainera datorren egubakoitzean, hilak 19, urtean zehar ikasitakoa familiakoen, lagunaren eta herrikideen aurrean erakustera.

Txikienetatik hasi eta nagusienetaraino, eskolako hainbat taldek pieza bana eskainiko dute. Adibidez, musika eskolan txistu irakasle izandako

Jagoba Astiazaranen *Azkoitia suitea* obra interpretatuko dute lehen aldiz.

Musikaz gain, baina, dantza ere izango da datorren asteko ikuskizunean, eskolako ballet taldearen eskutik.

Ikusle ugari

Urtero legez, jende ugari bertaratu dela aurreikusi dute antolatzaileek. Edorta Aiausti irakaslearen esanetan, "aretoa betetzea" espero dute, eta baliteke jendea toki barik geratzea.

Sarrerera doanekoa izango da eta ekitaldiak ordu eta erdi inguru iraungo du.

Lost Acapulco kontzertuan Taupa tabernan

Surf Rock doinuek hartu zuten eguzten iluntzean Taupa taberna. Bertaratu ziren musikazaleek giro bikainaz gozatu ahal izan zuten *Lost Acapulco* talde mexikarraren eskutik. Hogei urte baino gehiagoko ibilbidea duen taldea da, erreferentia haien herrialdeko surf musika instrumentalaren eszenan. *Coral Riffs* eta *Las mejores olas* disko berriak aurkezten ari dira orain. Borrokalari maskara eta guzti, dantzan jarri zituzten arrasatearrak.



TAUPA TABERNA

Ikasturte amaierako jaia egingo dute Trikitixa Eskolakoek hilaren 18an

M. T. | ARRASATE

Trikitixa Eskolako ikasleak Amaia antzokiko agertokira igoko dira datorren egunean, 18:00etan, kurtso bukaerako jaialdian.

Ikasleei taula gainean aritzeko aukera ematea da helburua, eskolatik azaldu dutenez.

122 pertsona ari dira gaur egun Trikitixa Eskolan, eta ia

guztiak hartuko dute parte emanaldian, 4-6 pertsona bitarteko taldeetan banatuta.

Zozketa eta pintxoak

Emanaldiaren aurretik, Trikitixa Eskolakoek amaieran egingo duten zozketa baterako txartelak salduko dituzte antzokiko sarreran, eta erosten dutenek pintxoak izango dute opari.

zenbaki 
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkursoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazio espedienteak.
- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Kultura aretoaren lan nagusiak uda ostean hasiko dituzte

1.158.828,68 eurotan lizitatu dituzte Seminarioko eliza zaharreko obrak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Lanok egiteko lehiaketara aurkezteko epea irekita dago, eta Udalaren asmoa da uztailean egitea esleipena, obrarekin irailan hasteko. Hori Seminarioko eliza zaharra erabilera askotarako kultura areto bilakatzeko egin beharreko lan nagusiei dagokie, ze aurre-lan batzuk esleitu eta hastear daude dagoeneko; izan ere, UNEDen ohiko martxarentzat traba liratekeen lanak, zaratarik handiena eta eragingo dutenak, uda sasoiara aurreratu dituzte, unibertsitatean jardunik ez den garaira.

Lan potoloenak zortzi hilabete egin beharko dituzte, edo urtebetean, lanak egingo dituen enpresak elizako erretaularen garbiketa eta zaharberitze proiektua eta lanak egiteko konpromisoa ere hartzen badu.

Erabilera espektro zabalagoa

Joandako azaroan egin zuten kultura aretoaren aurreproiektuaren aurkezpena Seminarioko elizan bertan, eta azkenean gauzatuko denak orduan aurkeztutakoak baino "erabilera espektro" askoz zabalagoa izango du, proiektua egin duen Vauum estudioko Jon Muniategiandikoetxea arkitekto bergararraren esanetan.



Areto berria izango denaren irudi bat. | VAUUM

Horretarako, ekipamendu teknikoa "asko" aldatu dela adierazi du; "sonoritate" arloan egingako aldaketak eta aretoa antzerki lanetarako egoki izan dadin egingakoak nabarmendu ditu, horien jatorria aurreproiektuaren aurkezpen ostean Udalak herriko kultura eragile eta taldeekin egingako parte-hartze saioetan haiek egingako ekarpenak egon direla azpimarratuz.

Kultura areto berriaren edukiera aldakorra izango da; adibidez,

600-700 lagun hartu ahal izango ditu zutik –harmailak jasota daudela–, edo erdia inguru jarrita –jesarlekuak aterata–; beharretara edo bertan eskainiko den ikuskizun edo dena dela koaren ezaugarrietara moldatzeko aukera emango du aretoak. Aurreproiektuari egingako beste aldaketa bat izan da 83 metro koadroko beste gune bat ere atonduko dutela lehenengo solairuan, entseguetarako edo hitzaldi-erako-eta, adibidez.

Zirkulazioan aldaketak, Bidekurutzetako lanengatik

J.I. | BERGARA

Astelehenean hasiko dira Bidekurutzeta inguruari plaza izaera eman eta hango irisgarritasuna hobetzeko lanak –bidea eta espaloia maila berean jarriko dituzte, adibidez, eta oinezkoentzako azalera handitu, bideari kenduta–, eta horrek aldaketak eragingo ditu erdiguneko ibilgailuen zirkulazioan.

Alde batetik, erdigunera sartzeko Irizarreko sarrera zabalik egongo da uneoro, eta lanorduetan Artekaletik izango da irteera, obrak hasi eta hiru

astez, gutxi gorabehera. Lanorduetatik kanpo eta aipatutako hiru aste horiek igarota, alde zaharreko irteera Bidekurutzetatik izango da. Bestetik, Zabalotegitik eta Espolotik datozen ibilgailuek Mariaren Lagundia ikastetxe paretik palmerako biribilgunera jaitsi beharko dute.

Irisgarritasun lanen iraupena hiru hilabetekoa izatea aurreikusten da eta, horrela, iraila erdialdera arte ibilgailuen zirkulazioa era horretan antolatuta egongo da.

Amaitu dituzte liburutegiko egokitzapenak

J.I. | BERGARA

Udaleko Kultura sailak erai-kinaren beheko solairuan zuen bulegoa udaletxera aldatu, eta gune hartan jarri dituzte liburutegiko zerbitzu erabilienak, eleberririk berrienak, egunkariak irakurtzeko txokoa, ordenagailuena eta filmak, adibidez.

Aldaketarekin, Udalak lortu nahi izan du liburutegia herritar guztientzako izatea irisgarria. Lanak amaituta, ate irekiak egin zituzten atzo, egue-na, nola geratu den erakusteko.

Oraingo Domeka Azokan ere 25 postu inguru egongo dira plazan, berrerabilpena bultzatuz

Domeka honetan izango da elkartrukea, berrerabilpena eta artisautea sustatzea helburu dituen bi hilean behingo azoka, eta herritarrek 25 postu inguru izango dituzte aukeran oraingoan ere, herriko hainbat lagunek zein kanpokoek jarritakoak. Bigarren eskuko gauzak eta artisaute lanak egongo dira bertan. San Martin plazan izango da azoka, 11:00etatik 14:00etara.

Hilaren 20a da Labegaraieta kiroldegiko taberna ustiatzeko eskaera egiteko azken eguna

Labegaraieta kiroldegiko tabernaren ustiaketa eta kirol eremuaren kontrola eta garbiketa kontratatzeko deialdi publikoa egin du Udalak. Egun ardura horiek dituztenek ez dute irailetik aurrera jarraituko, eta interesa dutenek ekainaren 20a arteko epea dute proposamena aurkezteko. Udalaren webgunean aurki daiteke informazio gehiago.

Udaleku irekietarako izena eman duten 413 umeek izango dute horietan parte hartzeko aukera

Udalak ez du udaleku irekietarako zozketarik egin beharko; eta hori urtetik urtera ari dela nabarmen handitzen horietan parte hartzeko eskaria egiten dutenen kopurua: 280 izan ziren 2013an, 341 iaz eta 413 aurtan. Udalekuak aurkezteko bilerak izango dira: hilaren 16an, 18:00etan, Angiozarko saloian; 17an, 18:30ean, Zabalotegin; eta 18an, 18:00etan, Osintxuko ludotekan.

OHARRAK

GOIKOLEAREN ERAKUSKETA

Domeka izango da ikusi ahal izateko azken eguna, Aroztegin.

SAN JOXEPEREN BIDAIA

Lisboara joateko izena emateko azken eguna astelehena da.

BALKOI LEHIAKETA

Hilaren 19an amaituko da leiho eta balkoiak lore eta landare apaintzea helburu duen lehiaketarako izenemate epea. Udalaren webgunean aurki daiteke informazio gehiago.

San Antonioko jaiak izango dira asteburuan

J.I. | BERGARA

Gaur, 19:30ean, hasiko dira jaiak, kanpaiekin eta txupinazoarekin. Bederatziurrena eta salbea izango dira ondoren, eta buruhandiak eta DJa ere bai. Bihar, berriz, txistulariekin meza egingo dute 11:00etan, eta San Joxepe abesbatzaren kontzertua 12:00etan; 20:15ean sardina-jana, eta jarraian Friskis taldearen musika, gauerdia arte. Domekan, 12:30ean zezentxoak egongo dira eta 14:30ean herri bazkaria.

Gure Esku Dago: hilaren 21erako sarrerak salgai

J.I. | BERGARA


Gure Esku Dagoren urteko ekintza nagusirako sarrerak eta Donostiara joateko autobus txartelak Igaro lurrindegian eta Lazkanon daude salgai; Irala kalean egunean jarriko duten mahaian ere eskuratu ahaliko dira, aurtengo kamisetarekin batera. Ekainaren 21eko festarako, autobusa 10:00etan aterako da, eta Anoetako ekitaldiaren ondoren, 20:30 aldera, itzuliko da. Ekitaldirako sarrerak zenbakitua dira.

disdira

ile-apaindegia edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

AITONAK

TABERNA
(Jubilatuaren etxea)

Bazkariak
•
Afarriak
•
Ospakizunak
•
Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 44 34 86
Boni laskurain, 9 behe
BERGARA

UNEDekin EAJk zer egingo duen kezka du orain arteko Gobernuak

JULEN IRIONDO | BERGARA

UNED Arrizuriagan koka dadin martxan dagoen proiektua esleipen fasean dago, baina EAJk proiektuarekiko desadostasuna agertu izan du orain baino lehen, eta ikusteko dago zer gertatzen den hauteskundeetan, bai Bergarako udalbatzan eta bai Gipuzkoako Batzar Nagusietan, gehien-goia lortu ostean –eta horrek gehien-goia ematen dio lanak esleitzea dagokion patronatuan ere–.

UNEDek, hori bai, beren proiektua egonkortzeko Arrizuriagako erabakigarria dela "behin eta berriz" esan duela nabarmendu du jarduneko alkate Jaione Isazelaiak; "diru baliabideak" ere lortu dituztela gogorarazi du:

"Espero dugu obrak esleitzea; ez esleitzea arrisku ikaragarria izango litzateke UNEDen proiektuarentzat". Arrizuriagakoak aurrera egin eta proiektua burutzen bada, berriz, herrirako "oso aberasgarria" izango dela adierazi du jarduneko alkateak.

Museoaren inaugurazioa

Orain arteko Gobernuak agerraldia egin du astean, agintaldi amaieran "bideratuta" utzi dituzten proiektuen egoeraren berri emateko; tartean, iragarri dute uztailaren 17a jarri dutela Laboratorio museoaren inaugurazio eguna. Eta egin duten dena Udalaren zorra bi milioi euro jaitsiz lortu dutela nabarmendu dute.

Bergara Garbiaren esker ona herritarrei

J.I. | BERGARA

Plataformatik, eskerrak eman dizkiete eta zoriondu egin dituzte hauteskundeetan bosgarren edukiontzia alderdiei botoa eman zieten herritarrek.

Bergara Garbiaren oharrak dio gobernu alderdiek edukiontzia bidezko hondakin bilketa "bermatzen" duela: "Gobernu berriak agindutakoa betetzea espero dugu", adierazi dute. "Herritarrek kontzientziazteko kanpainak" espero dituztela ere badiote: "Hainbestetan eskatu dituguna eta egin ez direnak".

Sistema alderdiek "gaikako bilketa tasa handiak" lortzeko aukera emango duela ere badiote, "ahalegin txikiagoarekin eta era eraginkorragoan": "Konbentzita gaude denok hondakinak gutxitu beharraz eta hondakinak egoki bereizteak duen garrantziaz, gero ahal den dena birziklatzeko".

Bergara Garbiak eskerrak eman dizkie, baita ere, herritarrei atez atekoaren "inposizioaren" kontra "plataformari emandako babesagatik".

Juanje Alberdi izango da alkate bihartik aurrera, udalbatza eratuta

J.I. | BERGARA

Udalbatza eratzeko saioa 12:00etan hasiko da, osoko bilkuren arloan. Maiatzaren 24ko hauteskundeetan zinegotzi izateko aukeratuak atera zirenek karguaren zina egingo dute aurrera; bada alderdiek: hautatua atera zen arren, EH Bilduko Arianne Kareagak ez du zinegotzi segituko, eta Itsasne Luazaristik beteko du haren lekua.

Hurrengo pausoa izaten da jakitea ze alderdiek zerrendaburuak aurkeztuko diren alkategai; hori jakinda, bozketak egingo da. EH Bilduk aurreratu du, dagoeneko, ez duela Agurte Berruso aurkeztuko: "Emaitzak aztertuta, ikus daiteke bergararren agindua izan dela gu oposizioan egotea; eta uste dugu Bergararen alde oposizioak ere lan handia egin daitekeela". Berruso berak iragarri du, baita ere, euren botoa zuria izango dela.

Irabazik hauteskundeetan lortutako hautetsiak, Aiert Lizarralde, bestetik, bere

burua aurkeztuko du, eta edizio hau ixterakoan zer egin erabaki gabe zuena PSE-EE da. Mari Carmen Barrenetxearen botoaren arabera, bederatzia alderdiekin –EAJren zortziak eta PSE-EEren gehien-goia osoz edo alderdi bozkatuena izateagatik, Juanje Alberdi bihurtuko da Bergarako alkate. Alkateak karguaren zina egin eta handik aurrerakoak berak gidatuko ditu.



Juanje Alberdi. | MAIALEN TORRES



Udal Gobernuak kide gehienak, astean egindako agerraldian. | JULEN IRIONDO

NIRE USTEZ

JON OLIVARES



Beldurra?

Azken artikulua idaztean jarraipena emateko gogoaz gelditu nintzen, baina ez dakit ideia ona den, hainbeste gai aukeran... Baina Hertzainak entzuten joan zait beldurra: *Neska horrek seguraski nahi dik bildurrik gabe hik hori esatea, neska horrek seguraski ere desio berdinak bete nahian zebilek, ia ba, esaiok...* Neurri txikian bada ere, beldurra

ematen dit idazteak, beldurra, irakurtzean, besteek pentsatuko dutenak. Baina zertarako beldurra izan?

Beldurrez bizi gara, gauzak egiteko beldurra dugu, nahi duguna egiteko, esateko, izateko. Ez gara ausartzen galtzearen beldurragatik, baina ez gara ohartzen ez dugula ezer galtzeko, eta, azkenean, beldurra alde batera uzten dugunean, konturatzen gara

"Beldurrez bizi gara, gauzak egiteko beldurra dugu, nahi duguna egiteko"

merezi izan duela ausardia puntu horrek, beldurra ez izateak gauza zoragarriak ekarri dizkigula, askatu dituzula barruko korapiloak, eta azkenean arnasa hartu eta gozatu egin duzula. Beraz, galdetu hau zure buruari: "Beldurrik izango ez banu? Zer egiteko kapaz izango nintzake? Noraino helduko nintzateke? Konturatu gaitezen bizitzako zenbat momentutan botatzen gaituen atzera beldurrak, edo ez digun aurrera egiten uzten. Garik maitasunari erreferentzia egiten dio, baina ez gara horretara mugatuko, amodioan, lanean, lagun artean, bizitza pertsonalean, egunerokotasunean... beraz, Gariri entzun eta... *ia ba, esaiok, ez pentsa gehio, esaiok.*

Oso litekeena da Emakumeen Mundu Martxa Bergararik pasatzea udazkenean

J.I. | BERGARA

Emakumeen Mundu Martxaren gaineko asanblada informatiboa egin zuten eguazten arratsaldean Irizar jauregian, eta herriko Martxantera zein bailarako talde feministetako hainbat kide elkartu ziren bertan.

Euskal Herrian duen koordinatzaile Josebe Iturriotz izan zen ekimenaren gaineko azalpenak ematen, eta, deialdiak

izandako erantzuna ikusita, baikor mintzatu zen Mundu Martxa Bergararik pasatzeko aukeraren gainean. Irailaren 28tik urriaren 4ra ibiliko da karabana Euskal Herrian.

Martxarekin, hamaika herrialdetako milaka emakume munduari erakusten ari zaizkio ze alternatiba feminista dituzten eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurrean.



Aretoa beteta Emakumeen Mundu Martxaren gaineko batzarrean. | J.I.

CLINICA DENTAL
BERGARA

"Bai gizonezkoek, bai emakumezkoek haginei begiratzen diete gehien, elkarrekin daudenean"

(The Journal of the American Dental Association aldizkariak eginiko ikerketaren arabera).



Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

Gaur zabalduko dute udako bainu denboraldia Agorrosin kiroldegian

Kanpoko igerilekuak 10:00etatik 20:30era egongo dira erabilgarri

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Azken egunotan kanpoko igerilekua eta berdegunea egokitzeko lanetan aritu ostean, gaur zabalduko dute udako bainu denboraldia Agorrosingo kiroldegian.

Kirol teknikari Unai Asurmendik azaldu duenez, kanpoko gunea goizeko hamarretatik arratsaldeko zortzi eta erdiak arte egongo da zabalik eta erabilgarri.

Orain arteko udetan bezala, kiroldegiko tabernako terrazara pasabidea egongo da berdegunetik. Horrenbestez, igerilekuko

erabiltzaileak bertara joan ahal izango dira eraikinetik atera behar izanik gabe.

Hamakak gordetzeko tokia

Iaz bezala, aurten ere jendeak bere hamakak gordetzeko gela bat egokitu dute Agorrosin.

Hala, gaurtik aurrera etxeko hamaka eta aulkiak bertan lagatzeko aukera egongo da, uda sasoiaren bukaeran, irailean, bueltan eramateko.

Beste urte batzuetan Udalak berak jarri izan ditu hamakak, baina "erabilera txarra" eman izan zaienez, sistema horren alde-

ko apustua egitea erabaki zuten. Asurmendiren esanetan, ideiak "funtzionatzen du".

Odola emateko kanpaina

Bestetik, Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak udako kanpaina jarri du martxan, eta, besteak beste, Bergarako igerilekuan eramango dute aurrera.

Ispilu bat jarriko dute berdegunean, bertan bere burua irudikatuta ikusten duen edonor emalea izan daitekeela azalduz. Bereziki, gazteendako da kanpaina, odola ematera joaten diren gehienak helduak baitira.



JUAN KARLOS LAZKANO

Cresporen hautagaitza aurkeztuta

Bergara Kirol Elkarteak zuzentzeko bi hautagaitza egongo dira aurten, egungo zuzendari Pedro Ricorena bata, eta Eloy Cresporena bestea. Azken horrek asteon aurkeztu du lantaldea, oraingo batzordeko kidez osatuta dagoena nagusiki, eta Ricok ere aurki egingo du gauza bera.

Bertso musikatuak, Gaztetxe Eguna eta xake txapelketa asteburuan, gaztetxearen urteurrenean

KOMUNITATEA GOIENA
BERGARAKO GAZTETXEA | BERGARA

Aurrera doaz joan den astean hasi ziren gaztetxearen XV. urteurreneko ospakizunak. Orain arteko ekintzek erantzun ona izan dute, eta Gazte Asanbladako kideok oso pozik gaude.

Noski, hau guztia ezin izango genuke bakarrik egin, eta lagun- du diguten guztiei eskerrak eman nahi genizkieke hemendik: Gure Esku Dago, Fracking ez!, Auzoko, Txapa Irratia, Kopla Barik, Arrano, Pol-Pol, Kortazar...

Hala ere, urteurrena ez da oraindik bukatu, eta asteburu honetan ere izango dugu zertaz

gozatu kartzela zaharrea. Beraz, ez zaitezte etxean geratu!

Hasteko, gaur gauean bertso musikatuak izango ditugu. Azken bi urteetan egin bezala, gaztetxean biltzen den Kopla Barik bertso eskolako kideak igoko dira taula gainera *Bertsondorrek* izenpean.

Gaztetxe Eguna

Bihar, berriz, Gaztetxe Eguna ospatuko dugu, eta, horretarako, egun osoko egitaraua prestatu dugu Asanbladatik.

12:00etan batuko gara gaztetxean pati-poteoa egiteko. Bizikletak, patinak eta patineteak hartu eta herriko kaleetan zehar

ibiliko gara mozorro eta guzti jolasak eginez eta herriko kaleak musikarekin girotuz.

Ondoren, 14:30ean, kartzela zaharrea itzuliko gara, bazkaria izango baitugu bertan. Bazkalostean jai giroarekin jarraituko dugu, *Iruindarrok* elektrotxaragako lagunei esker.

Gauean, 22:30ean hasita, goiko estazioko GoikoRock entsegu-lokalean aritzen diren hainbat musikaririk kanta ezagunen bertsoekin kontzertua emango dute. Parranda ziurtatuta, beraz.

Ospakizunei amaiera emateko, domekan xake txapelketa izango da, 16:30ean, Irala kalean.

Xabaloteren laugarren urteurrena ospatuko dute bihar

M.T. | BERGARA

Bergarako gaztelekuak lau urte betetzen dituela eta, urteurren-jai antolatuko dute zapatu honetarako, ekainak 13.

Egitarau bereziagatik, Zabalotegiko lokalaren ordutegia moldatu egin dute, eta 19:00etatik 23:00etara egongo da zabalik.

Hasteko, 19:30ean Niala magoaren ikuskizuna izango dute gazteek eta ondoren afaria egingo dute: oilasko errea. Jarraian, bingoan arituko dira.

Uztaileko egitaraua

Datorren hilerako ere ekintza ugari iragarri dituzte Xabalo-

tertik. Hilaren 3an, egubakoitza, parrillada egingo dute. Datorren asteburuan, berriz, zapatuan Sobronera joango dira kayakean ibiltzera eta 18an Arcachongo aquaparkera. Azkenik, 24an Debara joango dira surfa egitera, eta gaua han pasako dute.

Ekintzetan izena emateko epea ekainaren 28ra arte egongo da zabalik, eta Jardunen bulegoan zein gaztelekuan egin daiteke. Prezioak honako hauek izango dira: parrillada, 3 euro; kayaka, 16 euro, aquaparka, 20 euro; eta surf irteera, 25 euro. Guztietan parte hartzeko bonua 43 euro izango da.

Ehun Miliak probarako boluntario bila dabilta Hankaluzetik

Uztailaren 10ean Bergaratik igaroko da Ehun Miliak mendi lasterketa, eta Pol-Pol mendizale taldeko Hankaluzetik trail sekzioak lanean laguntzeko boluntario bila ari dira. 943 76 48 51 telefonoan, pol-pol.menditaldea@hotmail.com helbidean edota haien bulegoan eman daiteke izena ekainaren 18a baino lehen.

Udaberri txapelketako finalurrekoak ekainaren 18an eta 19an

Eguenean alebin B mailakoen binakako partiduak jokatuko dira. Alde batetik, Pereira-Al-dazabal Etxebarria-Egurenen aurka, eta bestetik, Etxaniz-Mingez Gil-Bilatuaren aurka. Egubakoitzean, berriz, 2006an, 2007n eta 2008an jaiotako finalurrekoak izango dira, sei partidu guztira.

Arrano tabernako pilota txapelketaren finala gaur frontoian

Xinbela-Azagirre eta Eloy-Josu bikoteek jokatuko dute txapela gaur, 21:30ean hasita, Udal Pilotalekuan egingo den jaialdian. Aurretik erakustaldi partidua eta 3. eta 4. postuetarako partiduak jokatuko dira, baita "barru herrikoia" ere. 40 bikotek hartu dute parte guztira txapelketan.

Euskal dantza taldea osatzen dabilta Musika Eskolan

Herrian presentzia aktiboa izango duen taldea osatu nahi dute. Lehen Hezkuntzako haurretatik helduetaraino, guztiei zuzendutako deialdia da. Eskolak Zabalotegiko frontoiaren alboko lokalean izango dira, irailean hasita. Matrikulazio epea ekainaren 15era arte egongo da zabalik.

Hondarrezko irudien tailerra umeentzat ekainaren 19an

18:00etatik 21:00etara bitartean izango da, Munibe plazan, eta Andoni Bastarrikak emango du. 6 urtetik gorako haurrei zuzenduta dago tailerra, eta parte hartu nahi dutenek ordu-bete lehenago eman beharko dute izena Muniben bertan, doan. Animalien irudiak landuko dituzte neska-mutikoez.

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Beste lau urterako alkate izendatuko dute bihar, zapatua, Mikel Biain

Agintaldi berriko udalbatza eratzeko ekitaldi irekia 12:00etan izango da osoko bilkuren aretoan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Datozen lau urteetako udalbatza eratzeko dute bihar, zapatua, 12:00etan. Protokolo propioa duen ekitaldi irekia izango da. Adin mahaia eratzeko dute, udalbatza ondoren eta alkatea aukeratzea izango da hirugarren puntua.

Zumitzezko makila

Rafael Kortabarria eta Kepa Zelaia dira udalbatza berriko zinegotzi zaharrena eta gazteena. Haien izendapena egin ostean, EH Bilduko zerrendan joan diren lehen hamarrek eta EAJko lehen zapiek hartuko dute zinegotzi kargua, inork ez dio-eta uko egin. Azkena alkatea aukeratzea izango da. "Badut testutxo bat prestatuta inbestidura egunean irakurtzeko, baina ekitaldi apala izango da. Oposizioak ere izango du hitza hartzeko aukera", adierazi du jarduneko alkateak, Mikel Biainek.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da ekitaldia, eta bete egingo da, ziurrenik, aurreko inbestidura egunetan horrela izan da-eta. Zinegotzien etxeok, senideak, lagunak joan izan dira. Baita zinegotzi izandakoak ere. Bihar, ordea, esku beretan geratuko da. "Gogoan dut Reyes Korkostegi alkate zela



Mikel Biain zumitzezko makila eskuetan duela. | MIRARI ALTUBE

diren Anjel Biain -20 urtez EAJko zinegotzi-, Ainhoa Galdos -EAJ, hamabi urte- eta Andoni Gartzia -EAJ, 20 urte- ere. "Udalbatza berriari gure babesa ematen", Galdosen esanetan.

Herri askotan alkate-makila pasatzen dio alkate izan denak alkate berriari. Oñatin, baina, makila ez, *xibittia* da eskuz aldatzen dena. Bihar, ordea, esku beretan geratuko da. "Gogoan dut Reyes Korkostegi alkate zela

neuk eraman nuela behin Aberri Egun batera", esan du Anjel Iturbek. Corpusetan, Arantzazuko Amaren Egunean eta antzerako ekitaldietan eraman izan dute zumitzarekin egindako borobilean lotutako makila fina alkatetik, eta lehendakariari eta ahal-dun nagusiari eman izan diote ekitaldiak iraun duen bitartean. Eli Galdosen garaitik hona alkatetik alkatetik ere pasatzen den ikurra da.



Kale Barrian duen egoitzan ere salgai daude txartelak eta kamisetak. | O.E.

Hilaren 21ean Anoeta betetzera joateko deialdia egin du, beste behin, Oñatiko Gure Esku Dagok

Estadiorako eta autobuserako sarrerak eta kamisetak saltzen egongo dira asteburuan

O.E. | OÑATI

Ekainaren 21ean egingo du Gure Esku Dagok *Gaur hautestontzia bihar erabakia* ekimeneko ekitaldi nagusia. Hiriburuetan egingo dituzte ekitaldiak eta Donostiara joateko deialdia egingo du Oñatiko taldeak. 17:30ean izango da Anoetako ekitaldi hori, baina eguerditik aurrera egingo dira

ekintza bereziak Donostiako hainbat lekutan. Estadiorako, baina, sarrerak erosi behar dira. 0 eta 2 urte artekoek ez dute ordaindu behar, baina bai txartela eskuratu. Autobusa antolatu dute eta kamisetak salgai dituzte. Gaur 18:00etatik 20:00etara egongo dira Foruen plazan eta bihar, berriz, 19:00etatik 21:00etara.

Txamarrak eta bizikletak lapurtu eta sarrailak apurtu dituzte San Martingo hainbat garajetan

Ertzaintzak baieztatu duen moduan, San Martin auzoko hainbat garajetan sartu ziren martitzen gauean. 05:50ean jaso zuten deia auzo horretatik. Sarrailak apurtu zituzten garaje gehienetan eta jasotako salaketa gehienak sortutako kalteengatik izan dira. Hala ere, txamarrak, betaurrekoak edo bizikleta lapurtu dietelako ere jarri dituzte salaketak herritarrek. Gehienek Udaltzaingoaan jarri dituzte eta bakarren batek Ertzaintzan. Maiatzean San Lorenzo auzoko komertzioetan sartu ziren lapurreta egitera.

Geoazkorri proiektua aurkeztuko dute mundu osoko hainbat adituren aurrean

O.E. | OÑATI

Estatu osotik, Portugaldik eta Hego Amerikatik etorritako 150 aditu ari dira parte hartzen martitzena ezkerko Zumaian egiten ari diren ondare geologikoen biltzarrean, eta tartean dira Arrikruzteko Borja Abarrategi eta Leire Garai. "Oso interesgarria da biltzarra.

Hainbat gai aurkeztu dituzte, ideia berriak ikusi ditugu, proiektuak ezagutu...", dio Garaik. Gaur, egubakoitza, goizean Geoazkorri proiektua aurkeztuko dute Abarrategi eta Garaik, hamar minutuko tarte batean. Biltzarra bihar bukatuko da, Urdaibaira irteera eginda.

Eltzia proiektuari buruzko iritzi onak jaso dituzte Kursaaletan egindako topaketan

O.E. | OÑATI

Herri mugimenduek, ordezkarri politikoez eta herritarrek parte-hartze esperientziak trukatu dituzte Kursaaletan Aldundiak antolatutako topaketen barruan, eta hantxe eman dute Eltzia proiektuaren berri Nerea Zubia jarduneko Kultura zinegotziak eta Eltzia koordinatzaile

Johana Olabarriak. "Oñatitik kanpo foro formal batean aurkeztu dugun lehen aldia izan da eta oso pozik etorri gara. Askok zoriondu gaituzte eta proiektuaren inguruan interesa agertu eta galderak egin dizkigute", dio Zubiak. Proiektua adibide hartuta azaldu dute erakundearen rola herrigintzan.

Hondakinen informazio bulegoak ordutegi berria izango du astelehenetik

Hondakinen informazio bulegoak ordutegi berria izango du datorren astelehenetik aurrera. Hala, kale Zaharrean dagoen bulegoa asteen birritan bakarrik irekiko dute eta goizez egongo da zabalik: astelehenetan eta eguaztenetan, 09:00etatik 13:00etara. Telefonoz deitu gura izanez gero, zenbakia da: 943 25 01 45.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Ekainaren 6an Irunberrira egin zuten irteeran. | OÑATIKO EUSKAL MEMORIA TALDEA

Ekitaldiak Irunberriko gertaerak gogoratzeko

Oñatiko Euskal Memoria Taldeak antolatu ditu, gertakarien 25. urteurrenean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Ekainaren 25ean beteko dira 25 urte Susana Arregi oñatiarra eta Jon Lizarralde andoaindarra hilda agertu zirela Irunberrin, eta German Rubenach iruindarra larri zauritua, Guardia Zibilarren ordu askotako setioaren ondoren. Gertaera haiek gogora ekartzeko lanean aritu da Oñatiko Euskal Memoria Taldea beste eragile batzuekin batera, eta gaiarekin lotura duen ekitaldi bat baino gehiago egingo ditu datorren astelehenean aurrera. "Ekitaldi horien helburua ez da terrorismoari gorazarre egitea, inolaz

ere. Baina uste duguna da memoria historikoa ezin dela osatu alde bakarreko biktimizez soilik, memoriak ezin du alde bakarrekoa izan. Horregatik oroitu nahi dugu Irunberrin gertatutakoa, ez dadin ahanzturan geratu", adierazi dute Oñatiko Euskal Memoria Taldeko kideek.

Argitzeko eskaera

Gertaera hartatik bizirik atera zen German Rubenach bera etorriko da Oñatira, Arregi eta Lizarralde familien abokatua izan den Txemi Gorostitzarekin batera. Egia Zor ekimeneko kideek

ere hitzaldia egingo dute eta arte erakusketan, Andoaingo, Iruñeko eta Oñatiko hainbat artistak eginiko lanak erakutsiko dira.

Gertaera argitzeko ere eskatu du Oñatiko Euskal Memoria Taldeak. Martxoaren 26an osoko bilkuran aurkeztu zuen mozioa. Alde biek onartu zuten.

EGITARAUA

Erakusketa. Irunberri Sentituz. Erakusketa. Kultura etxean ekainaren 15etik 28ra, 18:00etatik 20:00etara.

Hitzaldia: Itzoletik argira. Egia Zor-en eskutik, Ane Mugurutz eta Karmelo Arregi. Ekainaren 17an, 19:00etan, kultura etxean.

Hitzaldia: Zer gertatu zen Irunberrin. Txemi Gorostitzaren eta German Rubenachen eskutik. Ekainaren 24an, 19:00etan, kultura etxean.

Bertsoak eta poesia: Ekainaren 26an, 21:00etan, Arranon.

Eskerrik asko oroitzen laguntzeagatik

Ekintza sorta antolatu dugu Irunberriko setioa oroitzeko. Tartean, erakusketa bat prestatu dugu, eta hainbat artista oñatiarrek hartu dute parte. Eskerrak eman nahi dizkiegu. Hitzaldiak ere egongo dira, eta gogoan izan nahi ditugu hizlariak; baita laguntza eskaini digun oro ere.

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
OÑATIKO EUSKAL MEMORIA TALDEA

TXALOAK ETA TXISTUAK

Denbora luzez konpondu barik



Arantzazuko sarreran dagoen erloju digitala aspaldian izorratuta

dagoelako eta konpontzen ez dutelako kexu azaldu da herritar bat. "Gutxienez urtebete da erloju horrek funtzionatzen ez duela eta honezkero dagoenetan utziko dutelakoan nago. Olakua auzoan dagoen erlojua ere maiz izorratzen da", adierazi du.



NIRE USTEZ

AMAIA
MADINA



'Sandwich' belaunaldia

Bizitzak etapa ezberdinak ditu eta ni momentu honetan 40 eta 65 urte bitarteko belaunaldiaren sasoian nago. Iruditzen zait adin tarte honetaz gutxi hitz egiten dela, eta horregatik nire gaurko artikulua.

Erantzukizunez beteriko aroan gaude. Gogor egiten dugu lan gure familiak aurrera ateratzeko. Umeak hazi eta hezi behar ditugu, eta batzuetan, ziurrenik, beraiegandik jasotzen duguna guk ematen dugunarekin ez dauka parekotasunik. Eta fase edo aro honetan bizi garen askok, gainera, gurasoen azken kapituluak hobetzen dihardugu.

Uste dut oraingo giza aldarrikapenetan nabarmena dela gaztediaren eta hirugarren adinekoen beharren presentzia, eta, aldiz, erdibideko adina dugunok ahaztuak garela. Hala ere, beharrezkoak gara, beste aroak bezala. Oreka, zentzua, ardura eta sena islatzeko ohera dagokio gure belaunaldia-ri. Bizitzako zubi bat eraikitzen dihardugu, gazteen ezegonkortasuna edo aldakortasunaren etapa eta zahartzaroaren beharren fasearen artean.

Guk ere krisiak bizi ditugun arren, jasan behar ditugun aldaketa fisiko eta psikologikoak gaindituz, ezinbesteko zubia osatzen dugu. Guztiagatik, eskerrik asko belaunaldi honi, gizarteari eskaintzen dionaz!

"Erantzukizunez beteriko aroan gaude"

Hezurrei buruz berba egingo du Galartza medikuak martitzenean

Pake Leku erretiratuen elkarteak ekainerako antolatu dituen ekitaldietako bat da

O.E. | OÑATI

Astelehenean hasiko dira Pake Leku hilabete honetarako prestatu dituen ekitaldiak, Oñatiko Aloña abesbatzaren eta Bergarako San Joxepeko abesbatzaren

kontzertuarekin. Domekan, berriz, herri bi nagusi omenduko dituzte Zubikoan egingo duten bazkarian. Hitzaldiak, irteera eta bingo berezia ere izango dira astean zehar.

EGITARAUA

EKAINAK 15

18:30 Kontzertua, Bergarako eta Oñatiko erretiratuen abesbatzarena. Santa Anan

EKAINAK 16

17:30 Gure hezuraren etorkizuna hitzaldia Jose Ramon Galartzarekin. Santa Anan

EKAINAK 17

09:30 San Martinera ibilaldia.

EKAINAK 18

17:00 Bingo berezia Pake Lekun

EKAINAK 19

17:30 Txokolata, opila eta dantzaldia Pake Lekun

EKAINAK 21

14:00 Bazkaria Zubikoan

Rheinberger-Faure kontzertua egingo dute etzi San Migel parrokan, eta sarrerak salgai daude

Rheinberger-Faure kontzertua egingo dute domekan San Migel parrokan, 19:00etan. Oñati abesbatzak, Bergarako Orfeoia eta Ganbara orkestrak parte hartuko dute. Rheinbergerren eta Faureren lanak 130 ahotsetan eta orkestrarekin entzungo dira, Aitor Biainen zuzendaritzapean. "Musikalki oso kontzertu erakargarria izango da", adierazi du Biainek. Sarrerak salgai daude, zortzi eurotan, Txokolatexian, musika eskolan eta Izarraitz eta Portu tabernetan. Hilaren 28an Bergaran egingo dute kontzertu bera.

Fan Hemendik: "Debekurik ezean, deialdia mantentzen da"

Biharko Fan Hemendik Eguna debeka dezan eskatu dio Urkixok Jaurlaritzari

MIREN ARREGI | OÑATI

Espainiako Gobernuko ordezkari Carlos Urkixok, bihar, zapatua, Oñatin egingo den Fan Hemendik Eguna debekatzeko Estefania Beltran Heredia Segurtasun sailburuari egindako eskaeraren ondotik, Oñatiko Fan Hemendik ekimenak dio deialdiak "aurrera" jarraitzen duela: "Debekua helduko balitz, orduan erabakiko genuke zer egin. Bien bitartean deialdiak aurrera jarraitzen du", adierazi dute.

Bihar ospatuko da, "indar okupatzaileak alde egiteko aldarrikatuz", Fan Hemendik Eguna. Egun horren bueltan aurrean bada berrikuntzarik. Hain zuzen ere, 19:00etako manifestazioaren ostean, lehenengoz, giza katea egingo dute: "Giza katea osatuko da kuartela inguratuz", diote antolatuntzatik. Une hori giroten Elektro Txaranga ibiliko da eta Atzeko Kaleko erraldoiak ere aterako dituzte.



lazko manifestazioko une bat. | GOIENA

Goizean ekingo diote jaiari, 12:30eko poteoarekin, eta horren ostean etorriko da aurrean ere jendetsua izango den bazkaria. Unibertsitate aurrean egingo da hori. Dagoeneko 300 txartel salduta daude eta guztira 350endako tokia dago. Txartelak salgai daude Arrano, Boga eta Ona tabernetan; Arrasateko Iratin eta Aretxabaletako Herrikoan ere eros daitezke.

Gauean kontzertuak

Manifestazioaren ostean kontzertuen txanda izango da. Unibertsitate aurrealdean, Antihumano taldea, Des-kontrolen bertsoak egiten dituen talde oñatiar bat, Selektah Stepi & Kenitra (Bad Sound System) eta Egurra Ta Kitto taldeak entzuteko aukera egongo da. Azken horrek, gainera, abesti berriak ekarriko ditu Oñatira.

'Ni be banoia!' eguna ospatuko dugu bihar

KOMUNITATEA GOIENA | ELKAR HEZI | OÑATI

Bihar, zapatua, Elkar Hezi eguna ospatuko dugu, *Ni be banoia!* izenburupean. Goizean zehar tailer, joko eta emanaldi ezberdinak egongo dira. Esaterako, bizikleten oinarritzko mantentzearen gaineko ikastaroa egingo da eta ondoren, ibilbidetxo bat. Ez hori bakarrik, QR kodeen bitartez ginkana kulturala egingo baita herrian zehar. Gainera, txikiendako rock-and-roll eta funk dantza emanaldiak, txotxongiloak, lego tailerrak eta eskulan tailerra antolatu ditugu. Eguerdian, bazkaritarako elkartuko gara Zubikoa kiroldegian eta, ondoren, bazkalosteko emanaldian, 2015eko ikasle promozioari agurra egingo zaio. Amaizteko, erromeria egingo da. Aldez aurretik, eskerrik asko antolakuntza lanetan ibili zareten ikasle, guraso, irakasle... guztiei.

Udako kirol eskaintzan izena emateko aukera

M.A | OÑATI

Martitzenera arte dago zabalik Zubikoako udako kirol eskaintzan izena emateko epea. Zubikoatik gogora ekarri gura izan dute oraindik tokia dagoela hainbat kiroldegian izena emateko. Eskaintza 5 eta 16 urte bitarteko ume eta gazteentzako da. Esaterako, ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitarteko txandan honako kirol hauetan dago tokia: xunba gazte eta txikian, spinningean, waterpoloan, xakean eta golfean –goizetan 11:00etan eta 12:00etan eta arratsaldean 16:00etan–. Nagusiendako patinaje ikastaroan ere badago tokia.

Bestetik, lehenengo txandan, ekainaren 29tik uztailaren 10era, badmintonean, multikirolean, umeendako patinaje ikastaroan eta eskaladan izena emateko aukera dago. Bigarren txandan tokia dago ia ekintza guztietan.

Eskubaloiko infantil mailako selekzioak etorriko dira Oñatira

M.A | OÑATI

Eskubaloiko bederatzigarren Corpus Txapelketa egingo dute bihar, zapatua, Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Goizean goiz, 09:30ean hasiko dira partidua eta 19:30ak arte iraungo dute –ordu horretan banatuko dituzte trofeoak–. Hala, infantil gazte kategoriako Euskal Herriko neska-mutikoak eskubaloian jokatzeko aukera egongo da. Hain justu ere, selekzioen arteko lehia izango da bihar: Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Nafarroako nesken eta mutilen selekzioak egongo dira Oñatin.

Guztira, 12 urte inguruko 150 bat neska-mutiko etorriko dira Oñatira bihar eskubaloian jokatzera. Zortzi talde arituko dira guztira. 09:30ean izango da lehenengo partidua: Gipuzkoako nesken selekzioak Arabakoaren kon-

tra egingo du ordu horretan. 10:20an, aldiz, Gipuzkoako eta Arabako mutilen txanda izango da. 11:10ean Bizkaiko eta Nafarroako nesken selekzioek jokatu dute elkarren kontra eta 12:00etan izango da Bizkaiko eta Nafarroako mutilen txanda.

Bazkaltzeko tartea hartuko dute ondoren eta guztiak Pago Uso Elkartera joango dira bazkaltzera.

Arratsaldeko partidua 15:30ean hasiko dira. Ordu horretan, nesken selekzioen hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira eta 16:20an mutilen hirugarren eta laugarrena. 17:10 nesken finala jokatu da eta 18:10ean, berriz, mutilena.

Oñatiar bat selekzioan

Gipuzkoako nesken selekzioarekin oñatiar batek jokatu du bihar: Amaia Ugarte Guridik, hain zuzen ere.



Usako, iaz irail hasieran. | GOIENA

Bihar zabalduko dute bainu denboraldia Usakon

M.A | OÑATI

Joan den astean Buceo Euskadi enpresako urpekariek putzua garbitu ondoren, gertu dago dena Usakoko bainu denboraldiari irekiera emateko.

Zuhaitz adar luzeak, burdinazko eta metalezko alanbreak eta beste atera zituzten urpekariek putzutik; azken finean, arriskuak izan daitezkeen elementuak.

Kalitate oneko ura

Kalitate oneko ura da Usakokoa, baina oraindik hotz dago, hamahiru gradutan, hain justu, eta egunotako euri zaparradek ez dute lagundu ura berotzen.

Hala ere, bihar hasi eta irailaren 13ra arte iraungo du bainu denboraldiak Usakon. Putzua eta inguruak garbituta, dena dago gertu aurtengoari ekiteko.

Bilbo inguruko bizikleta ibilaldirako irteera antolatu dute

Txirrinka elkarteak antolatuta, Bilbo inguruan egingo den bizikleta ibilaldira irteera egingo dute etzi. Domekan izango da irteera, Bilbo, Portugalete eta Getxo inguruan. 45 kilometroko bizikleta ibilaldia izango da. Oñatitiko joateko, 08:30ean elkartuko dira Ibarra aparkalekuan. Nork bere bazkaria eraman beharko du.

Castro Valnera mendira egingo du irteera Aloña Mendik

Kantabriako mendikateko Castro Valnera mendira (1.718 metro) egingo du irteera ekainaren 21ean Aloña Mendik. Izena emateko azken eguna ekainaren 18a, eguena, izango da. Langabeek 5 euro ordaindu beharko dituzte, bazkideek 10 eta bazkide ez direnek, berriz, 13. Federatuta egotea ezinbestekoa da.

'Tabako kerik gabeko gelak' egitasmoan sarituak

Tabako kerik gabeko gelak egitasmoan parte hartu duten DBHko bigarren mailako 31 ikasle diplomak eta saritxoak jaso dute udal ordezkarien eta bailarako osasun publikoko ordezkarien eskutik, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egindako ekitaldian.



AINHOA MOYUA

Arkupen hartuko dituzte karguak udalbatza berria osatuko duten kideek

Udaletxean ez dagoelako igogailurik doaz lehenengoz beste eraikin batera; ekitaldia bihar da, 12:00etan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Bihar, ekainak 13, hartuko dituzte karguak datozen lau urteotan udalbatza osatuko duten kideek. 12:00etan da ekitaldia, eta, udaletxe oso bilkuren aretoan egin izan badute ere, aurten lehenengoz beste eraikin baten egingo dute: Arkupe kultura etxeke bigarren solairuko gelan.

Ekitaldi irekia

Ez da ohikoa udaletxetik kanpo egin behar izatea inbestidura ekitaldia, baina halaxe izango da aurten. "Zinegotzi kargua hartu-

ko duen kide bat gurpildun aukian dabil eta udaletxean igogailurik ez dago osoko bilkuren aretora igo ahal izateko", argitu du Xabier Mendizabalek, Udal idazkariak. Ekitaldi irekia da eta herritarrek hara joan beharko dute kargu hartzeak bertatik bertara jarraitzeko.

Zerrendaburu bozkatuena

Ekitaldi motza izango delakoan dago Mendizabal. Alkatea izendatzeko bozketa egingo dute udalbatza osatuko duten hamahiru kideek, eta gehiengo absolutua

lortzen duena izendatuko dute: "Hori ez badu lortzen, zerrendaburu bozkatuena izendatuko dute alkate". Hala, eta ezustekorik ezean, EAJko Unai Elkoro izango da eta harekin batera osatuko dute udalbatza honako hauek: EAJkoek, Nerea, Etxabe, Aitor Gabilondo, Mikel Uribebarria, Pili Leanizbarrutia eta Joxe Migel Uribarrenek; EH Bildukoek, Xabier Igartua, Jon Albizu, Oihane Etxebarria, Irati Pagoaga eta Hector Prietok; Irabazikoak, Luis Mariano Gomezek; eta PSE-EEkoak, Miren Lorea Lanak.

GEDk hilaren 21ean Anoetan egingo duen ekitaldirako sarrerak Arkupen dituzte

Autobusa ere jarriko dute, hiru eurotan; izena lehenbailehen eman behar da

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaletarrak dagoeneko gertu daude Gure Esku Dago ekimenak datorren ekainaren 21ean, domeka, Anoetan egingo duen ekitaldirako. Oihalak joan den zapatuan josi zituzten eta gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute aretxabaletarrek egindako abestia; 19:30ean da, Arkupen. "Erabakitzeko eskubidearen alde gauden aretxabaletarrok abestia grabatu dugu herriko musika-artista batzuen laguntzarekin eta Arteman komunikazioak egin du", jakinarazi dute herriko lantaldeko kideek.

Sarrerak guztiendako

Anoetako ekitaldirako sarrerak Arkupeko harreraren dauzkate salgai. Hona prezioak: 0 eta 2 urte bitartekoak, debalde; 3 eta 14 urte bitartekoak, bost euro;



Aretxabaletako emakumeak, egindako oihala erakusten. | IMANOL SORIANO

eta 15 urtetik gorakoak, hamar euro. Nahiz eta debalde izan umeen sarrera, derrigorrez hartu behar da. "Zenbakituak izango dira; beraz, komeni da taldean joanez gero sarrerak ere taldean erostea, bata bestearen ondoan

jarri ahal izateko", jakinarazi dute.

Autobusak ere antolatu gura dituzte Aretxabaletatik, eta, plazak mugatuak izango direnez, izena lehenbailehen ematea eskatu dute; prezioa hiru euro da.

500 euroko balioa duten erosketak

Irati Urkiak jaso du Aretxartek zozketatutako 500 euroko txartela eta zapatu goizean egin zituen erosketak, pozik egin ere. 20 euroko bost bonu ere zozketatu dituzte tabernariak. Irabazleak hemen: Ibon Eraña; Janire/Andere/Marina; Gorka Aizpuru; Pedro Hernandez; eta Toño.



NEREA LETE

NIRE USTEZ

OIER ARANTZABAL



Denon artean birziklatuz

Azken hauteskunde hauek aldaketa ekarri dute Gipuzkoan, eta analisi askoren arabera EH Bilduk atez atekoa ezarri nahi izana gogotik ordaindu du. Nire ikuspegitik, lehen egunetik beste alderdi guztiek bronka muntatu zuten kontra, komunikabide tradizionalak eman izan duten tabarra ikustekoa izan da, eta jende asko konbentzitu dute atez atekoa inposatu nahi izan digutela eta inposaketa... noiz galdetu didate niri AHTaren inguruan?

Azken lau urteetan herri batzuek atez atekora aldatu dute. Tolosan txip bidezko organiko eta errefusa jasotzearen sistema probatu dugu. Orain benetan

esan, hain zaila al da birziklatzea? Horren sistema konplikatu da zaborrak etxean sailkatzea, eta ostean banaka jasotzea?

Gu, behintzat, oso pozik gaudela, segituan ohitu gara eta historiara pasa dira edukiontz berde usaintsuak. Askoz txukunago daude kaleak. Eta askoz gehiago birziklatzen dugu.

Atez atekoaren dohainak zuek ezagutuko dituzue nik baino hobeto. *El escarabajo verde* TVEko programak ere aspaldi laudatu zuen, eta Greenpeacek duela gutxi goraiatu du, Zabalgarbi bizkaitar erraustegiak kutsatzen duena salatuz bat.

Ez bata, ez bestea ez dira perfektuak, baina aurrekoa baino hobek direla ados egongo zarete. Kasu honetan helburua garbi dago, ahal eta gehien birziklatzea modu erraz eta jasangarrian.

Mesedez, politikariok, aprobetxa ezazue orain arte eginikoa, dena eraitsi eta berriz zerotik hasi ordez! Eta mesedez, behinogoa elkarrekin lan egin, etengabe elkar mokoka ibili beharrean!

Severiano Aiastuiren gaineko 'El cura caminador' liburua salgai Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Aozaratza auzoko Ojala Zelai baserrian jaiotako Severiano Aiastuiren gaineko liburua, *El cura caminador*, gertu dago. Fabio Javier Etxarri argentinarra idatzi du eta batez ere Argentinako El Chaco probintziako El Impenetrable lurraldean bizitakoak jaso ditu. Hori

osatu dute beste hainbat konturekin: mutikotako Aretxabaleta, apaiz marianistaren gorabeherak, misio biziak Togon...

Liburua astelehenetik aurrera egongo da salgai Arkupeko harreraren, 10 eurotan. Eta San Juan egunean, ekainaren 24an, Aozaratzen ere salduko dute, meza ostean.

Oinarrizko kirolean lan egiten dutenen gainean jardungo du Koldo Irurtzun irakasleak astelehenean

Oinarrizko kirolean entrenatzaile lanetan dihardutenen lan egoerak kezka sortu du, batez ere Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak abian jarritako ikuskapenak direla-eta. Kezka argitzeko, Koldo Irurtzun EHuko irakasleak zuzenbidean doktorea eta kirol legedian aditua hitzaldia egingo du astelehenean, Arkupen (18:00): *Kontratatuak ala boluntarioak kirolean?* Elkarte, ikastetxe eta kirol arloko kudeatzaileei dago bereziki bideratua.

Bihotzekoa izandakoan zer egin jakiteko ikastaroa emango die Gurutze Gorriko erizainak Basotxokoei

Bihotzekoa izandakoan zelan lagundu jakiteko hitzaldi-ikastaroa antolatu du Basotxo erretiratuen elkarteak. Martitzenean, ekainak 16, 17:30ean izango da, Basotxon bertan.

Bihotzari zelan eman masajeak eta zelan erreanimatu erakutsiko die erretiratuei Gurutze Gorriko erizain Marina Madariagak, beste kontu batzuekin batera.

Imanol Ituiño magoak 'Munduari bira' ikuskizuna eskainiko du astelehenean Kuku Mikuren egoitzan

Imanol Ituiño Bilboko magoaren ekitaldiarekin agurtuko dute ikasturtea Kuku Mikuko kideek. *Munduari bira* izenarekin gertuko ikuskizun intimoa eskainiko du astelehenean, ekainaren 15ean, 18:00etan, Durana kalearen atzeko partean duten egoitzan. 4 urtetik gorako umeendako eta haien gurasoendako da 45 minutu inguru iraungo duen saioa, eta sarrera ez dute kobratuko.

26. Loramendi literatura lehiaketak 26 sari banatu ditu

431 lan jaso dituzte, horietatik ipuinak izan dira 186 eta bertsoak 93

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak 26. antolatatu du literatura lehiaketa, eta, beste behin, herriko gaztetxoek "bikain" erantzun dute, elkarteko kideen esanetan: "Lan benetan politak jaso ditugu. Epaimahaiko kideek ederto pasatu dute irakurterakoan", jakinarazi du Irati Urkiak, Loramendiko dinamizatzaileak. Sariak eguaztenean banatu zizkieten lanik onenei.

DBHkoen lanak gutxiago

Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik DBHko laugarren mailara arteko ikasleek aurkeztu dituzte lanak, guztira 431: "Gaztetxoek lanak askoz gehiago izan dira; horregatik, ipuinak eta bertsoak izan dira nagusi", dio Urkiak. Hala, LHko hirugarren eta laugarren mailako artean 123 ipuin jaso dituzte eta sarituak izan dira: Maddi de Cesero, Elaia Larrañaga eta Beñat Beitia. Bertsoak 35 izan dira eta irabazleak: Olatz Maidagan, Danel Etxaniz eta Eider Urkia. Deskribapenak 42, eta irabazleak: Irati Oskotz, Ariane Perez eta Beñat Baladron.

LHko bosgarren eta seigarren mailako artean 63 ipuinetatik sariak jaso dituzte honako hauek:



Sarituak udaletxe zaharrean, eguaztenean. | MIRARI ALTUBE

Monika Beltran de Herediak, Nahia Mateosek eta Eider Aranegik. 58 bertsoetatik sarituak izan dira: Malen Basabe, Julen Pagaldai eta Anne Gomez. Eta 33 iritzi artikulutatik: Oihane Leibar, Maren Seiler eta Eki Balantzategi. "Nik idatzi dut Aretxabaletan geroz eta gutxiago egiten dela berba euskaraz, eta gazteok gehiago egin beharko genukeela etorkinak anima daitezzen ikastera", dio Maren Seilerrek.

12 eta 16 urte artekoen lanak askoz gutxiago izan dira, eta ez dituzte sari guztiak eman. Hala,

DBHko lehenengo eta bigarren mailako artean hogeit hamar gutunak jaso dituzte eta sari bakarra eman diote Sara Zurutzari. Bertsoetan, Oihana eta Haizea Arana ahizpek jaso dituzte sariak; eta argazkizkiak atalean -argazkia testu batekin- Oihan Urotzek eta Ainara Gomezek. DBHko hirugarren eta laugarren mailako artean ere sentimenduzko gutunak izan dira nagusi eta Garazi Muruamendiaraz saritu dute; argazkizkietan, Jokin Uribeheberria eta Gaizak Perez. Komikietan ez dute saririk banatu.

200 kirolaririk gora herrian, UDARI esker

Kirolez eta kirolariz bete zuen UDAk aste bukaeran herria, eta elkarteko zuzendaritzako kideak oso pozik daude herritarrek emandako erantzunarekin: "Bigarren urtez antolatuta dugu, eta, oraindik sendotzea falta bada ere, argi geratu da izugarritzko jai delako. Neska-mutikoak, gurasoak, jokalariek, jokalaria ohiak... 200 lagunetik gora elkartu gara". Era berean, eskerrak eman gura dizkiete lagundu dietenei: "Kultura eta kirol taldeen laguntza eskertu gura dugu, guztiak bat egin dute-eta UDAREkin".



IMANOL SORIANO

'Oinez ibiltzen ikasi edo irakatsi?' galderaren gainean jardungo du Nerea Mendizabal adituak eguenean

Pausoka haur eskola 25. urteurrena ospatzen hasita dago, eta, egun handia uztailearen 4an egingo badute ere, aurretik beste ekitaldi batzuk egingo dituzte. Gaur, egubakoitza, esaterako, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera kantuan egingo dute Herriko Plazan, 18:00etan. Bideoa egin dute Pausokan ibilitako neska-mutikoek, gurasoek eta irakasleek eta bideo horretako kantua abestuko dute oholtza gainean pailazoekin batera ikuskizuna hasi aurretik.

Bestetik, datorren eguenean, ekainak 18, Nerea Mendizabalek hitzaldia egingo du Arkupen, 18:00etan. *Lau hankatan eta oinez ibiltzen ikasi edo irakatsi* gaiaren gainean jardungo du psikopedagogian lizentziadun, Gizarte Hezkuntzan diplomadun eta haur masajeen hezitzaile Mendizabalek.

'Ostegun bidaiariak'-en hirugarren emanaldia eguenean Dagdan

Hiru urte, *hiru kontinente* proiektzioa eskainiko du Haritz Lazkanoiturburu arrasatearrak datorren eguenean, hilak 18, Dagda tabernan, 21:30ean. Bi urte egin zituen Hego Amerikan eta Ertamerikan, eta gero, Australiara eta Zeelanda Berriara eta Asia aldera jo zuen. Hango argazkiak eta kontuak ekarriko dizkie herritarrei.

Pirritx eta Porrotx pailazoak Txo mikmak indiarrarekin datoz gaur

M.A. | ARETXABALETA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek *Txo, Mikmak txikia* ikuskizuna eskainiko dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, Herriko Plazan. *7x7 kultura kalean* ekimenaren barruan antolatatu du Udaleko Kultura Sailak, eta orainoan, Txo mikmak indiarra ekarriko dute lagun pailazo euskaldunek. Hala, Albaola ontzian San Juan baleontzi berria eraiki eta enbata guztien gaintik, munduari txiri-buelta emateko gogoz etorriko dira.

Eguaztenean txotxongiloak

Datorren eguaztenean, hilaren 17an, oster, *Txerriketan berri-*



Pirritx eta Porrotx, plazan. | GOIENA

ketan txotxongilo emanaldia eskainiko du Eibarko Kixka taldeak *7x7* ekimenaren bueltan. Santa Kurtz plazan izango da ekitaldia, 18:00etan.

'Kurtzetril' jolasa, dantzak eta bazkaria Kurtzebarriko jaialdian

M.A. | ARETXABALETA

Ikasturtea agurtzeko, jaialdia antolatu dute, urtero legez, Kurtzebarri eskolako kideek. Bihar izango da, eta herriko kale eta bazter asko girotuko dituzte.

Txorborro magoa

Etxafuego jaurtiketarekin hasiko dute jai, 10:30ean, eta orduan txerriketarekin hasiko dute *Kurtzetril* jolasa -Herriko Plazan, Durana eta Mitarte kaleetan, Gernika plazan eta Iralabarri plazan-. 12:00etan globoak banatuko dituzte eta dantzan egingo dute Iralabarri plazan: *Bihotzez ikasi, Zazpi jauzi, Txulalai...* Eta

bukatutakoan, plazara joko dute trikitilariak, hankapaluek, buruhandiek eta erraldoiek lagun eginda. 13:00etan *Eguzkiari agurra* ikuskizuna izango da plazan -DBHkoek taberna jarriko dute dirua jasotzeko- eta 14:00etan Iturrigorri pilotalekura joko dute bazkaltzeko. Orduan jakinaraziko dute zeinek irabazi duen tarta lehiaketa.

Bazkalostean, 15:00etan, Txorborro magoren emanaldia izango da pilotalekuan, eta 16:00etatik 18:00etara dantzan egingo dute Patxi Monteroren esaneri jarraituta -patioan puzgarriak egongo dira umeendako.

Arrasateko hainbat musikaririk kontzertu akustikoa eskainiko dute gaur Duranan

M.A. | ARETXABALETA

Gazte Ekimenak antolatutako *Gazte Egukotzak* ekimenaren barruan, *Hans, Jondi* eta beste hainbat musikari arrasatear etorriko dira gaur, egubakoitza. Kontzertu akustikoa egingo dute, 19:30ean, Durana kalean jarritako oholtza. Bien bitartean, edatekoa eta jatekoa

eskainiko dute Gazte Ekimeneko kideek, dirua batzeko asmoarekin.

Hilaren 19an, Itaca Band

Datorren egubakoitzean, ekainak 19, oster, Bartzelonako Itaca Band taldearen kontzertua izango da, 22:30ean, udaletxe zaharrean.

Aretxabaleta

1.100 metro koadroko lursaila salgai Txarapea ibilbidearen atzealdean. Bista paregabeak.

618 76 34 40

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Bihar izendatuko dute Joxe Ramon Zubizarreta Eskoriatzako alkate

Ohitura zaharrari eutsiz, zumitza pasako dio jarduneko alkateak berriari

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, 12:00etan, udalbatza osaketa berriari emango diote hasiera Eskoriatzako udalletean egingo den ezohiko osoko bilkuran. Hamaika zinegotzik jasoko dute kargua, eta, horretarako, zinegotzi zaharrenak eta gazteenak adin mahaia osatuko dute, osoko bilkuraren buru izango dira. Zaharrena Aitor Zubizarreta da eta gazteena, berriz, Aintzane Agiriano.

Alderdi jeltzaleak bost ordezkari izango ditu Udalean: Joxe

Ramon Zubizarreta, Puri Regidor, Maite Zubia, Josu Ezkurdia eta Maite Uribe. EH Bilduk, berriz, lau ordezkari izango ditu: Aitor Zubizarreta, Maider Landa, Josu Larreategi eta Aintzane Agiriano. Elizateen Elkarteak bakarria izango du, Iñaki Kerexeta, eta Irabazik beste bat, Rafa Bernal.

Ezhokiko osoko bilkura bi zatitan banatuko da: alde batetik, Eskoriatzako alkate berria izango denaren hautagaitza aurkeztuko du adin mahaia lehenbizi, eta ondoren bozketa izango da.

Ezusteko handirik ez badago, EAJko Joxe Ramon Zubizarreta izango da Eskoriatzako alkate berria; izan ere, Irabazi alderdiak Goienari jakinarazi dio bere alderdiko hautagaiaren alde bozkatu-ko duela.

Irabazi alderdian aldaketa

Aurten, Irabazi alderdiak zinegotzi bakarria lortu du udal hauteskundeetan: alderdiko zerrendaburu Xabier Villarreal, baina haren lekua zerrendan bigarren doan Rafa Bernalek hartuko du.

Izan ere, Xabier Villarreak ez du kargua hartuko arrazoi pertsonalengatik.

Zumitza eskuz aldatu

Aurreko agintaldian berreskuratutako ohitura zahar bat da zumitza –uztai formako egurra– alkate batetik bestera pasatzea.

Hala, Beñat Herce jarduneko alkateak Joxe Ramon Zubizarreta alkate berriari pasako dio zumitza, beste herri batzuetan aginte-makila pasatzen den moduan.

Autobusak Ehuntze Egunerako

I.B | ESKORIATZA

Ekainaren 21ean oihalez lotutako giza kate erraldoia egingo dute hiriburuetan. Hala, Donostiara joateko autobusa jarri dute Eskoriatzatik, euro baten truke. Ekitaldi nagusia Anoetako estadioan izango da eta bertara sartzeko sarre-rak Hotela tabernan eta liburutegian daude salgai.

0 eta 2 urtekoek ez dute ordaindu behar, 2 eta 14 urte bitartekoek bost euro eta 14tik gorakoek hamar euro. Autobusa 10:30ean irtengo da erdiko geltokitik; buelta, berriz, 21:30ean izango da. Sarrerak hartzea beharrezkoa izango da denak ekitaldian leku berean egon daitezen.



Iaz Luis Ezeiza eskolakoek herriko plazan egindako flashmob-a. | I.S.

Eskolako jaia ospatuko dute Luis Ezeizakoek

Dantzak, ziba lehiaketa, herri bazkaria eta 'cup song' grabazioa izango dira, besteak beste

I.B | ESKORIATZA

Aste Kulturala izan dute Luis Ezeiza ikastetxean aste osoan. Ipuin kontaketa, ikasleek prestatutako antzerkiak, filmak, bertsoak... Ekintza guztiek curriculumarekin zerikusi zuzena dute, hain zuzen. Horren harira, Aste Kulturalari amaiera emateko, eskolako jaia ospatuko dute bihar.

11:00etan, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoek bertotan aurkeztuko dute jaialdia, eta abestiak eta dantzak eskainiko dituzte herriko plazan; 12:00etan, cup song bat egin eta grabatuko dute; eta 12:30ean, umeentzako tailerrak egongo

dira; aurpegi margotzea, ziba lehiaketa, burbuilak... 14:00etan, Luis Ezeiza eskolako arkupeetan herri bazkaria egingo dute, eta ondoren, bertan jarraituko du festak. Izan ere, 15:30etik aurrera, puzgarriak, apar festa, disko-festa... izango dira eskolako patioan, eguraldiak laguntzen badu; bestela, frontoian elkartuko dira hainbat ekintza egiteko.

'Cup song' grabazioa

Cup song deritzona edalontziak eta eskuak erabiliz erritmoa eta musika markatuz egiten den abestia da, eta halako bat egin eta grabatuko dute.

Kontzejupe pilota txapelketa antolatu du Atxorrotz kultura elkarteak ekainaren 26rako eta 27rako

Kontzejupe pilota txapelketa bi modalitatetan banatuko da: haurrak, alde batetik, eta nagusiak, bestetik. Haurrek ekainaren 26an jokatuko dituzte partiduak, 18:00etan. Nagusiek, berriz, ekainaren 27an jokatuko dituzte, 09:30ean. Txapelketan parte hartu nahi duenak aurrez eman beharko du izena Inkernu tabernan. Bi kategorien sari banaketa ekainaren 27an egingo dute, nagusien txapelketa amaitzen denean.

Eskoriatzako Aste Zapatistak hamabost urte beteko ditu aurten

Hitzaldiak, antzerkiak, musika, erakustaldiak, eta abar izango dira aste osoan

I.B | ESKORIATZA

Txiapasen Aldeko Taldeak, Esko Zap %100 amets haziak lelopean, egitarau zabala prestatu du Aste Zapatistarako. Gerturatzen direnei beste mundu bat posible dela kontzientziatzeko helburuaz, ekainaren 15etik 20ra Eskoriatza kolorez jantziko dute.

Hainbat hitzaldi, erakustaldi, musika kontzertu, ipuin kontaketa, eta abar izango dira. Hain zuzen ere, Chiapasko (Mexiko) hainbat proiektu eta komunitate nola lagundu erakusteko helburuarekin.

Iurre Romaratezabala antolatzaileetako baten esanetan: "Gure ametsa denok elkartzea da. Denok ezberdinak garen arren, denok dugu zerbait komunean. Hala, batzen bagara mundu justuagoa eraikiko dugu. Hori lortzeko pauso txiki bat da Aste Zapatista".

Zapatuan, hilak 20, egun handia

Aste osoa ekintzaz beteta badago ere, egun handia zapatukoa izango da. Herriko plazan txalapartariak izango dira txupinazoaz batera, eta goiz osoan artisauek beraien produktuak kalera aterako dituzte ikusi edo erosi nahi dituenarentzat.

14:30ean herri bazkari mexikarra egingo dute kontzejupean. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 15 eurotan: Eskoriatzan, Naira, Aldatz, Inkernu eta Hotela tabernetan; eta Aretxabaletan, Azkena tabernan. Takoak, tinga, guacamolea... probatzeko aukera egongo da bertan.

Bazkalostean, Rosa Sanchez kantautorea eta Imanol Ituño magoa egongo dira plazan, eta gero, The Smoker Trumpet Grow, Katekisis eta Hobbo taldeen kontzertuak izango dira.



Iaz egindako Aste Zapatistako herri bazkari mexikarra kontzejupean. | I.S.

ESKO ZAP EGITARAUA

ASTELEHENA 15

17:30 Udaberri paseoa erretiratuekin eta kenpo eta capoeira erakustaldia Santa Marinaran.

MARTITZENA 16

18:00 Euskal Herriak Mexikora ipuinez ipuin kontaketa Udal Liburutegian.

18:30 Power to the people hitzaldia Goienarren eskutik.

EGUAZTENA 17

18:00 Mikologika antzezlan.

20:00 Txiapasetik Euskal Herriko elkartasun plataformak eta Lumaltikek *20 años tras el levantamiento* hitzaldia emango dute.

EGUENA 18

17:00 Slackline erakustaldia.

19:00 Nai malabarista.

20:00 Gazta porra.

EGUAZTENA 19

17:00 Piñata mexikarra.

18:30 Musika eskolakoek kontzertua eta Alaitzen taldearen kanta mexikarrak.

ZAPATUA 20

10:00 Txupinazoa eta txalapartariak.

14:30 Herri bazkari mexikarra. Bazkalostean, Rosa Sanchez kantautorea eta Imanol Ituño magoa.

19:30 Tonbola.

20:00 Kontzertuak. The Smoker Trumpet Grow, Katekisis eta Hobbo taldeak herriko plazan.

Kargu-hartze ekitaldia bihar 12:00etan egingo dute

M.A. | ANTZUOLA

Bihar, zapatua, osatuko dute datozen lau urteetarako Antzuolako udalbatza. Kargu-hartze ekitaldia 12:00etan hasiko da udaletxeko osoko bilkura aretoan.

Lehenengo, adineko mahaia osatuko dute. Hau da, zinegotzi zaharrena eta gazteena eseriko dira mahaiaren bueltan. "Lehendakaria zinegotzi zaharrena izaten da eta gazteenarekin batera eseriko da adineko mahaia osatuz; hortik aurrera, idazkariarekin batera emango zaio hasiera udalbatza eratzeko prozesuari", azaldu du Ana Hidalgok, Antzuolako idazkariak.

Eta udalbatza berria eratzeko, zinegotzi bakoitzak banan-banan kargua hartu behar du. Kasu horretan, lau aukera dituzte kargua hartzeko: "Hainbat formula daude: zina egitea, hitza ematea, zina egitea legearen indarrez eta, azkenik, hitza ematea legearen indarrez", azaldu du idazkariak.

Alkatea aukeratu

Zinegotzi kargua hartu ostean, udalbatza eratuta gertzen da. Ondoren, alkatea aukeratu behar da; eta zerrendaburu bakoitzak bere burua aurkeztuko du. Boto gehien lortzen duena izango da herriko alkatea: Beñardo Kortabarria, Basilio Ormazabal edo Miren Gallastegi.

OHARRAK

AUZOLANA UZARRAGAN

Biharko, zapatua, elizako bidea auzolanean garbitzeko dei egin du Arrola taldeak; San Martzialdik Uzarragara doan lehengo bide zaharra garbituko dute.

KONTZERTUA

Hilaren 15ean Bergarako musika eskolako ikasleen kontzertua Torresoroan, 18:30ean.

GURE ESKU DAGO

Ekainaren 21ean Donostian egingo den ekitaldira joateko txartelak erosteko aukera izango da gaur goizean azokan eta arratsaldean Zurrategin jarriko duten postuan. Zapatuan plazan izango dira eta domeka eguerdian Kalebarren jarriko dute postua.

ZENBAKI SARITUA

Ondarreko festetan hamabi txuleta eta sei botila-ardo zozketatu zituzten. Zenbaki saritua: 219. Hilabeteko epean agertuko ez balitz, ordezkotzenbakiak hauxe da: 836.

IRITZIA

IMA BERISTAIN

Auzolanari eskerrak

Askotan hitz egiten dugu auzolanaz, daukan garrantziaz... Bada, zer da auzolanagoa zinegotzien lana baino? Konpromiso handia eskatzen du lau urterako Udaleko lanera lotzeak.

Nik, alkate izan naizenez, soldata bat jaso dut, baina zinegotziek beraien lanari, familiari, haurrei edo denbora libreari eskaini ziezaieteken denbora herriari eskaini diote. Ez al da hori zerbait miresgarria eta herritar guztion babesa jaso beharko lukeena?

Asmatutako lau urte, hutsak egindako lau urte, herritar guztien gustua egin ezindako lau urte... Esan bezala, asmatu dugu eta hutsak ere egin ditugu, baina saiatu gara herritarrengandik hurbil egoten eta egoki zer ez egiten ari ginea antzematen. Saiatu gara etengabe azaltzen, zer eta zergatik egiten genuen, eta zer eta zergatik ez genuen egiten.

Amaitu aurretik, azpimarratu nahi dut guztiok ere auzolantzat -eta handia- har dezagun zinegotzien lana, hori baita gure herri txiki honetako errealitatea.

Datozen lau urteotan lanean ariko zaretenoi zer esan. Eskerrik asko auzolanerako azaldu duzuen konpromisoagatik. Guk bezala, ez duzue beti asmatuko -edo agian bai!-, baina ziur nago borondate onarekin egingo dituzuela gauzak, eta hori miresgarria da. Ez al da?

"Zer da auzolanagoa zinegotzien lana baino?"

Gazteendako kirol udalekuak antolatu ditu Udal Gimnasioak

Ekainaren 29tik uztailaren 16ra bitartean -biak barne- kirol udalekuak egingo dituzte. 12 eta 16 urte artekoendako da. Gimnasioko ohiko ekintzak egingo dituzte: spinninga, tonifikazioa, zumba, zirkuituak, zirku ekintzak... Baita bestelako kirolak ere: tenisa, patina-jea, hockeya... Izena emateko, deitu 943 76 66 61 telefonora.

Skate parkeko lanen lehen fasea amaituta dago

Hirigintzatik azpimarratu dute irail aldera zabaldu gura dutela gazteendako aisialdigune berria

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martxa onean doaz Eztala futbol-zelaira bidean egiten diharduten skate parkea. Lehen fasea egin dute eta 300 metro koadroko hormigoizko zorua prest dago.

Orain, skatean jarduteko, egiturak (tresnak) ezarri arte itxaron beharko dute zaleek. Hirigintza teknikari Valen Moñuxek aurreratu duenez, irailean zabaltzea da asmoa: "Neurrira egin behar dira aparailuak, eta denbora beharko da horiek egiteko".

Parte-hartze bidez

Skatean aritzeko aparailuak gazteek parte-hartze prozesu bidez aukeratu dituzte. Hala, erabakitako proiektua askotariko jokoak eskaintzen dituena izan dela dio Moñuxek: "Tresna askoko parkea izango da; hiru aukera zeuden eta kirolariak, skatean dihardutenek, erabaki zuten jokoaren aldeko apustua egitea. Hala, arrapala askoko alternatiba aukeratu dute. Modu horretan, adin



Futbol-zelaira bidean dago skate parkea. | MAIDER ARREGI

tarte zabal batendako eta askotariko maila dutenendako parkea izango da".

Emaitza polita

Hasiera batean kokalekua finkatzea kosta egin zen arren, parkea toki zoragarrian kokatuta geratu da. Emaitzarekin harritu ere egin direla gaineratu du Antzuolako

Hirigintza teknikariak: "Egia esan, oso paraje erakargarrian geratu da skate parkea. Bista politekin, oso ondo geratu da; uste baino hobeto".

Guztira, 36.000 euroko aurrekontua dute lanek. Dena ondo bidean, irail aldera skate parkeaz gozatzeko aukera izango dute Antzuolako gazteek.

Zupideko biribilgunea uztailean zabalduko dute

Lanak egiteko aurrekontua 193.508 euro da



Biribilgunea ibilgailuak igotzeko eta zapaltzeko prestatuta dago. | MAIDER ARREGI

M.A. | ANTZUOLA

Martxa onean doaz Zupideko biribilguneako lanak. Hala ere, biribilgunea uztailean zabalduko dutela diote teknikariek eta bertako langileek. Biribilgunearen bideak nahiko estuak dira; izan ere, helburua da ibilgailuak abiadura txikian igarotzea bertatik. "Biribilgunea propio eginda dago kamioiak eta autoak gainera igo daitezke; baina asmoa da 30 km/h abiaduran sartzea eta abiadura dezente txikitzea puntu horretan. Hala, karrila estua izanda ere, kamioiak lasai asko sar daitezke bertan".

Ezaugarri hauek ditu: kanpoko erradioa 13,5 metro eta eraztunaren zabalera 4,5 metro. Hiru adar nagusi ditu: bi adar GI-632 errepidera eta hirugarrena Aihera kalera. Adar txiki bat izango du, Zupide baserrira joateko.

GAILUR

taberna eta gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

Ordezko mediku euskalduna eskatu du aurten ere Montesek

Egoera salatzeke agerraldia egingo dute ekainaren 17an ospitale aurrealdean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Aurten ere ordezko mediku euskalduna eskatu behar izan du Aramaioko mediku Aitor Montesek. Iaz egin zuen bezala, bere oporraldia betetzera etorriko den medikua euskalduna izatea eskatu du, eta modu horretan oporraldian osasun zerbitzua euskaraz bermatzea.

Iaz eskaerak erantzuna izan zuen eta ordezko mediku euskalduna jarri zuten. Aurten, ordea, "egoera bestelako" dela azaldu du Montesek. Ordezko mediku euskaldunak ezean, Arrasateko mediku euskaldunak proposatu die zuzendaritzak Aramaiora joatea, aldi berean mediku euskaldunak zigortuz -lanpostu finako duen mediku euskalduna mugiaraziz edo lekualdatuz, inoiz egin ez denean- eta baita euren paziente euskaldunak ere. "Euren betiko mediku euskalduna lekuz



Iaz ekainean Aramaion egindako agerraldia. | GOIENA

aldatuko dute eta ordezko mediku erdaldun bat jarriko dute", azaldu du Montesek. Gainera, mediku horren pazienteek bi hilabetez egongo dira betiko medikurik gabe -medikuaren oporraldian, eta medikua Aramaioko postua betetzera doan hilabetean.

dian, eta medikua Aramaioko postua betetzera doan hilabetean.

Egoera ez da onargarria

"Aurrerantzean, ez omen dugu ordezko mediku euskaldunik

eskatuko, gure lankideak ez izoztazearren", dio. "Erabaki horren aurka, Arrasateko medikuok idatzi bat sinatu dute eta gure unitateko zuzendaritzari bidali diogu (Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratua)", azaldu du. Gainera, agerraldia deitu dute ekainaren 17rako -13:00etan ospitale aurrean-. Debagoieneko alkateak gonbidatu dituzte agerraldian parte hartzera, eta baita euskalgintzan diharduten erakundeak ere; besteak beste, Behatokia.

"Ordezko mediku euskalduna bidali edo ez, egoera ez da onargarria. Urtero eskatzera behartzen gaituzte, jakinaren gainean egonda. Gaur egungo egoerak erantzun globala edo orokorra behar luke, bestela horrela egongo gara urtez urte", azaldu du Montesek, eta gaineratu du: "Onartuko al genuke euskaraz ez dakien irakasle bat? Bada, egoera bera da".

Aramaio herri euskalduna dela kontuan hartzea eskatu du; eta, horrez gain, Montesek dio egoerak beste erpin bat ere baduela: "Pazienteen gaineko informazio guztia euskaraz idatzita dago; horregatik, beharrezkoa da Aramaioko ordezko medikuak euskaraz jakitea".

Gasteiz ehuntzeko dei egin dute, eta baita laguntza eskatu ere

A.E. | ARAMAIO

Herriz herri sakabanatutako oiha-lak hiriburuetan batzeko eguna izango da ekainaren 21a. Arabako ekitaldi nagusia Gasteizko Buesa Arenan egitekoak ziren, baina ekitaldia bertan behera geratu da: "Gure asmoa Buesa Arenan egitea zen, baina Dipu-

tazioak zailtasunak jarri dizkigu eta ez dugu han egingo", azaldu du Gure Esku Dago taldeko Etor Arregik. Hori horrela, Arabako ekitaldiarekin aurrera egitea erabaki dute eta ekintzak kalean egingo dituzte, Gasteizko kaleetan. GEDk Gasteizko kaleak ehuntzeko dei egin du.

Kostuak handitu egin dira

"Ekitaldia kalean izango da eta ez da sarrerarik ordaindu beharrik egongo. Hala ere, horrek eragingo ditu kostu handiagoak; hala, agertokia muntatu beharra egongo da, eta baita beste zenbait kontu ere", azaldu du Arregik. Bada, kostu horiei aurre egiteko laguntza-bonuak jarriko dituzte salgai. Aramaion gaur, egubakoitza, 19:00etan herriko plazan egongo dira bonuak saltzen; eta domeka eguerdian okindegi

aurrean. Laguntza-bonuak saltzeaz gain, atxikimendua ere eskatuko dute, eta baita kamisetak saldu ere. Gainera, Gasteizera autobusean joateko txartelak salgai jarriko dituzte: 5 eurotan egongo dira salgai.

Ekainaren 21ean hiriburuetan egingo dituzte ekitaldi nagusiak: Donostian Anoetan egingo dute; Bilbon San Mames futbol-zelaian; Iruñean zezen-plazan; eta Baionan Christian Belascain errugbi-zelaian egingo dute ekitaldia.

Juan Carlos Irizarrek kontzertu solidarioa eskainiko du Bixente Goikoetxea abesbatzarekin batera

A.E. | ARAMAIO

Juan Carlos Irizar musikari oñatiarrak kontzertu solidarioa eskainiko du kultura etxean ekainaren 20an, 19:00etan. Doan izango da, eta *We are like you* proiektuaren alde Liberian osasun mentaleko programa bat abian jartzeko eta ebolaren birusak erasandakoei laguntza emateko baliatuko dute.

Merkatu solidarioa jarriko dute: Aita Menniko gaixoez egindako eskulanekin, Juan Carlos Irizarren diskoekin eta Liberianko zapi, sandalia, pitxi eta beselakoekin. Bixente Goikoetxea abesbatzak ere kontzertuan parte hartuko du. Piano-jotzailea Juan Carlos Irizar izango da eta zuzendaria Anton Errarte.



Juan Carlos Irizar Eskoriatzan egindako emanaldian. | IMANOL SORIANO

Ezustekorik ezean bihar hartuko du Lierni Altunak alkate-makila

A.E. | ARAMAIO

Udalbatza berria eratzeko ekitaldia bihar egingo dute, zapatua, 12:00etan. Ezustekorik ezean Lierni Altuna izango da Aramaioko alkate berria.

Lehenengo egingo dutena adinekoen mahaia eratzeko izango da: zinegotzi nagusienak

-Cristina Etxenautia- eta gazteenak -Lierni Altuna- osatuko dute mahaia. Ondoren, udalbatza eratzeko dute, eta, azkenik, bozketa egingo dute alkate berria izendatzeko.

Maiatzaren 24ko hauteskundeetan EH Bilduk sei zinegotzi lortu zituen eta EAJk hiru.

OHARRAK

TRASTE HANDIAK

Traste handiak hileko azken egunean atera behar dira -jasotzen dituen kamioa bariku goizean pasatzen da-. Trasteak gauz atera behar dira: ekainaren 25ean, uztailearen 30ean, abuztuaren 27an, irailaren 24ean, urriaren 29an eta azaroaren 26an. Auzoetan, trasteak atera aurretik deitu 945 29 03 90 telefono zenbakira. Hainbat kasutan eguna ez da errespetatu;

horrek kostuak eragiten dizkio Udalari.

LAN ESKAINTZA

Lanbidek Aramaiorako lan eskaintza atera du. Tabernako zerbitzaria behar da, lan kontratu mugagabea lan egiteko. Interesatuak 945 16 06 00 edo 630 30 54 52 zenbakira deitu beharko dute. Eskatzen dute: 6 hilabeteko esperientzia eta euskaraz maila handia.

NIRE USTEZ

SONIA ETXENAUSIA



Leihotik begira

Biodibertsitatea. Giza-kiongandik urrun dagoen hitz potolo bat dirudi. Baina leihotik begiratzea besterik ez dago berorrekin etengabe topo egiteko, eta ikusi ahal izateko, gero eta pobregoa dela. Eta bioaniztasuna pobrea bada, daukagun airea, lurra, ura, sendagaiak, elikadura, aisialdirako eremuak, etab. pobretuko dira eta horrekin batera gu ere bai, halabeharrez.

Biodibertsitateak ez du dirurik ematen... Baina nola kontatu dezakegu eurotan bertako baso zaharrek ematen digutena? Adibidez, paisaia edertzeko daukaten gaitasuna? Perretxikoak gordezko duten ahalmena? Gure historia eta kultura sortzeko eszenatokia eman izana? Animalia basatiei gordelekua eskaintzea? Lurzoruari eta urari eusten egiten duten lana?

Eta nekazaritzari dagokionez ez dago esan beharrik agroekologian oinarritutako nekazaritzak edo konbentzionalak (agrotokiko guztiekin) ingurugiroan daukaten inpaktua oso ezberdina dela. Eta ez ahaztu ingurugiroaren parte garena!

Badira esperientzia batzuk non, lurjabeak diren pertsonen, beraien lurretan naturarekin errespetuan egindako praktika edukitzeagatik zerga onurak jasotzen dituztela administrazioaren aldetik. Bada garaia, bada, gure gizarte aurreratu honetan jasangarritasunaren aldeko zerga erreforma egiteko.

"Nola kontatu dezakegu eurotan baso zaharrek ematen dutena?"

Arregiren, Ballinaren eta Gardokiren musika gaur Sastiñan

Kontzertuak Sastiñan musika jaialdiak bigarren emanaldia izango du gaur. Etxeko talde batek eskainiko du kontzertua: Amaia Arregi, Maialen Ballina eta Maider Gardoki hirukotea izango da Sastiñan familia eta lagunuen aurrean kontzertua eskaintzen. Emanaldia, betiko moduan, 20:00etan izango da.

ELGETA

Zortzi zinegotzik hartuko dute kargua biharko inbestidura saioan

Bozketaz aukeratuko dute alkatea; Iraitz Lazkanok hartuko du aginte-makila

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako EH Bilduk bost zinegotzi izango ditu agintaldi honetan, eta biharko inbestidura saioan —12:00etan, udaletxean— kargua hartuko dute Iraitz Lazkanok, Agurtzane Alkaldek, Mikel Elkorkok, Janire Lazkanok eta Sebastian Arantzabalek. Gu Geu Elgeta plataformari lau zinegotzi dagozkio, baina zerrendaburu Nerea Villak kargu hartzea atzeratzea erabaki du, lan kontuak direla eta. Hala, Iratxe Bravok, Eduardo Zubiaurrek eta Mikel Larreak hartuko dute kargua.

Aldaketa nabarmenak

Aurreko agintaldiko zinegotzi bakarrak errepikatuko du udalbatzan: EH Bilduko Janire Lazkanok. Bestalde, azken 39 urteotan Elgetako hautetsi izandako Patxi Basaurik ez du kargurik hartuko. Basaurik 30 urte zituen alkate izendatu zutenean, Oxel

Erostarbek 28 eta Iraitz Lazkanok 27 urterekin hartuko du kargua. Agintaldi honetan Debagoieneko alkate gazteena izango da.

Gobernu berria

Udalbatzak 30 eguneko epea izango du osoko bilkura deitu eta udal batzordeetako arduradunak izendatzeko. Horren harira, Gu Geu Elgetak asteon jakinarazi du EH Bilduri dagokiola gobernu ardura. Esan dute batzorde guz-

tietan hartuko dutela parte, proposamenak eramango dituztela eta EH Bilduren gobernu jardunari jarraipen zorrotza egingo diotela. EH Bilduk azaldu du egindako bigarren bileran jakinarazi duela Gu Geu Elgetak elkarlanerako egindako proposamenari uko egiten ziola. "Helburua elkarlanean eta guztion artean gobernatzea da, eta batez ere herritarrekin. Horretarako prest geunden eta prest gaude".

Kargua hartzeko zina egingo dute

Inbestidura ekitaldiko lehenengo urratsa Adineko Mahaia osatzea izango da. Janire Lazkanok (25 urte) eta Sebastian Arantzabalek (54 urte) osatuko dute. Jarraian, hautetsiek kargua hartuko dute zina eginda. Udala eratzat emango da zinegotzietatik kargua hartutakoan. Ondoren etorriko da alkate berria izendatzeko bozketa. Boto gehien eskuratzen dituen alkategaiak jasoko du Elgetako aginte-makila Oxel Erostarberen eskutik.

Gure Esku Dago-ren ekitaldirako bost boluntario behar dira

L.Z. | ELGETA

Elgetako Gure Esku Dago lantaldeak bost boluntario eskatu ditu ekainaren 21ean Donostiako Anoetan egingo den ekitaldian lan egiteko. Kontakturako telefonoa da: 678 21 39 08.

Lantaldeak, bestetik, salgai ditu sarrerak eta kamisetak. Zeramika gelan egongo dira salgai gaur, barikua, 19:00etatik 20:00etara; zapatuan eta domekan, 12:30etik 14:00etara; eta hilaren 18an eta 19an, 19:00etatik 20:00etara. Autobuserako izen-ematea ere zabalik dago. Antzuolarekin batera antolatuko dute autobusa.



Iñaki Gorostiza, Patxi tabernan

Zabalik da, atzera ere, Salbador kaleko Patxi taberna. Ekainaren 1ean ekin zion ibilbide berriari Iñaki Gorostizak. Taberna egunero dago zabalik eta, barrako eskaintzaz gainera, ogitartekoak, plater konbinatuak, pintxoak... dituzte. Tabernan aritutakoa da Gorostiza; hamar urte egin zituen herriko plazan dagoen Iñaki tabernan.

LEINTZ GATZAGA

Erabat herrikoia izango da zapatukoa

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Egun osoko ospakizun herrikoia bilakatu dute kargu-hartze/Auzolan Eguna gatzagarrek. Egun osokoa, 09:00etan hasiko dutelako eta iluntzera arte iraungo duelako; eta herrikoia erabat, besteak beste, bazkarirako 140 bat lagunek eman dutelako izena.

Xehetasunetan sartuta, auzolanarekin hasiko dute zapatua. 09:00etan elkartu eta Bengoerrekarako bidea hartuko du herritar talde batek. "Itxitura bat egingo da han eta gero iturri inguruko elementuak konpondu—barbakoa, jokoak...—", esan du Eugenio Osoa jarduneko alkateak.

Bigarren hitzordua, berriz, 09:30-10:00 aldera izango da, herri



Zankada eta Osoa. | J. DOMINGO

barruan. "Garbitu, txukundu, loreak jarri... halakoak egingo ditugu, umeeekin batera", dio Osoak.

Behin auzo lanak bukatuta, asmoa da 13:30ean udaletxerako

bidea hartzea, herritarrek ere kargu-hartzearen partaide izan daitezten.

Bazkaria pilotalekuan

Eta horren ondoren etorriko da herri bazkaria (14:30ean). 120 nagusik eman dute izena eta 15-20 bat ume bertaratuko direla uste dute antolatzaileek. Egunotako eguraldia ikusita, seguru aski pilotalekuan egin beharko dute oturuntza. Menua, gozo askoa: patatak saltsa berdean almejekin, saiheskia eta postrea. Eta horren osagarri, sorpresak iragarri dituzte. Besteak beste, lehen ikasturtea izan duen Trikiti Eskolakoek saioa egingo dute bazkalostean, gonbidatu bereziak izango dira...

Herri Eskolak hilaren 19an egingo ditu ikasturte amaierako bazkaria eta jaialdia

L.Z. | ELGETA

Ekainaren 22a izango da ikasturteko azken eskola eguna Elgetako neska-mutikoendako. Goizeko jarduna izango du azken eskola egunak. Hala, ikasturte amaierako bazkaria eta jaialdia hilaren 19an egingo dituzte.

Egun berezia izango da; izan ere, eskolako neska-mutiko guztiek elkarrekin bazkalduko dute ikastetxean. Ondoren, 15:00etan,

ikasturte amaierako jaialdia egingo dute Espaloian.

Hurrengo ikasturtea

Eskola kontseiluak onartuta dauka hurrengo ikasturteko egutegia; lehen eskola eguna irailaren 8a izango da. Taldeen banaketa eta Hezkuntza Sailetik Elgetako Herri Eskolari aitortuko zaion irakasle kopurua dira orain aztergai.

Xalbadorpe elkarteak 80 urtetik gorako 40 bat erretiratu elkartuko ditu gaur, bazkaltzeko

Bazkaria Ozkarbi elkartearen egingo dute, 14:00etan. Aurretik, meza entzungo dute, parrokan, 13:00etan. Domekan, berriz, Ozkarbin izango dira Xalbadorpeko arduradunak 11:00etatik 12:00etara. Urteko kuota —10 euro— ordaindu eta hilaren 24rako Karrantzara antolatuta dagoen irteeran izena emateko aukera izango dute bazkideek. Irteeraren prezioa 30 euro da.

Musika elektronikoa ardatz izango duen hamar orditik gorako jaialdia gaur kafe antzokian

Gune Musik taldeak antolatuta, 19:00etan emango diote hasiera jaialdiari. Artisten artean nabarmentzen dira David MK eta Carlos Revuelta. Sarreraren prezioa —edari bat barne— 12 euro da. Aurrez erosita 10 euro.

OHARRAK

IPUINAK UMEENDAKO

Gaur, 17:25ean, liburutegian, 3 urtetik gorako umeendako.

SORMEN UDALEKUAK

Gaur, 18:30ean, informazio bilera Maite Barrainkuak Berraondokoan duen tailerlean.

EH BILDUK HERRI AFARIA

Hauteskundearen emaitzak herritarrekin ospatzeko afaria antolatu du gaurko, barikua, Elgetako EH Bilduk. Triki-poteoa egingo dute 19:30ean eta afaria 21:30ean Bolatoki jatetxean.

DANTZA IKUSKIZUNA

Domekan, 11:30ean, Candem dantza akademiaren eskutik, Espaloian. Sarrera: hiru euro.

TORREALDEAKO JAIK

Ekainaren 19ko afarirako txartelak salgai martitzenera arte Goikoetxe harategian. Prezioa: hamabi euro.

ONTZIRATU ZAITEZ SARIK

Maiatzeko zenbaki sarituak: Goikoetxe harategia (6.969), Amagoia arrandegia (5.021), Ugari (086) eta Erdiko denda (1.959).

Jai eta kultura batzordea osatzeko lehen bilera jendetsua

Adin guztietako herritar ugari azaldu zen joan den egubakoitzeko deialdira. Helburua da aurrera begira jardungo duen jai eta kultura batzordea osatzea; urte osorako, eta kultura ekitaldiekin eta gazteekin lotutako ekimenak antolatzeko, modu erabat autonomoan, nahiz eta Udalaren laguntza izan. Herritarren erantzuna ikusita, esperantzatsu daude deitzaileak. Eta hasi, jai gertukoenei begira hasi dira: sanjuanak, sanmartinak eta Andramaixak. Nahiko luke eta horietarako programazioa ere sortuko den talde horrek lantzea.

Ekainaren 21erako sarrerak herrian erostea komeni da

Datorren domekan Donostian egingo den Gure Esku Dago ekimenaren hitzordura joateko sarrerak Debagoieneko herri guztietan daude salgai. Baita Leintz Gatzagan ere (Labidean). Eta komeni da herrian bertan erostea. Izan ere, estadioko jarlekuak zenbaki-dunak izango dira; beraz, herrikideak elkarrekin egon nahi izanez gero, komeni da sarrerak herrian bertan erostea. Berdin 0-2 urteko umee ere, nahiz eta haiek debalde duten sarrera; izan ere, haien egoera ere nagusien berbera da jarlekuei dagokienez.

KIROLA

TXIRRINDULARITZA

Megan Guarnier azkarrena, Garibaiko esprint estuan

Ihes egindakoek txarto hartu zuten bidegurutze bat, nahasmena sortuz

XABIER URZELAI | ARRASATE

Megan Guarnier (Boels Dolmans) eta Emma Johansson (Orica) argazkilariengana gerturatu behar izan ziren atzoko etapa amaieran, esprinteko esfortzutik errekupe-ratu barik zeudela, bietako nork irabazi zuen galdezka. Eta, argazki kamerek ere ez zituzten zalan-tzak argitu, euren zoritxarrerako. Hala, *fotofinish*-ari esker jakin zuen Guarnierrek Emakumeen Birako Arrasateko etapako irabazlea zela.

Hasierako kilometroetan lasai joan zen etapa, lainoek bakea eman zuten eta tropela batera iritsi zen Kruzeta azpira. Han ere ez zen erasorik egon, eta Arlaban jaitsi eta berehala hanka-sartze galanta, ihes eginda zihon

laukoteak bide okerra hartu zuelako, Eskoriatza inguruan. Hala, tropela geratu egin zuten epaileek eta ihes egindakoei lehengo abantaila eman. Horrela iritsi ziren Megan Guarnier (Boels Dolmans), Emma Johansson (Orica), Ashleigh Moolman (Bigla) eta Katarzina Niewiadoma (Rabo Liv) Garibaiko zuzenera, eta hor estabatuarra gailendu zen.

Hurrengoak, Bizkaian

Atariko proba Iurretan eta lehenengo etapa Arrasaten egin ostean Emakumeen Bira Bizkaia itzuliko da osterara ere, eta han jokatuko dituzte domekara arteko etapak. Gaurko etapan, Marurin, Kasia Niewiadoma-k jantziko du liderraren mailota.



Megan Guarnier, Emma Johansson, Asheigh Moolman eta Katarzina Niewiadoma, Garibaiko zuzenean esprintean.



Gaszte koadrila, ziklisten sinadura mordo batuta.



Annemiek Van Vleuten, mailot horiaz.



Argazkilariak –tarteetan atzerritarrek- irteeran argazkiak egiteko probetxatzen.



Neska koadrila, adi, txirrindulariei begira, Garibain.



Lotto taldeko ziklistak, lanpetuta, sinadurak egiten hasi aurretik.



Leire Olaberria, euskaldun onena.



Lehenengo metroak egiten, Udal ordezkariak zinta moztu eta gero. | XABIER URZELAI

MENDI LASTERKETA

Gabez Takarraran-ek argiztatuko ditu Eskoriatzako inguruak zapatuan

- ▶ Bosgarren edizio honetan ibilbidea argiztatzeko sistema aldatu dute antolatzaileek
- ▶ Parte hartzeko zalantzan daudenendako oharra: lasai joateko taldea sortuko dute

XABIER URZELAI | ARRASATE

Gabez Takarraran mendi lasterketak bost urte beteko ditu zapatuan (Eskoriatzako plazan, 23:00etan) eta edizio honetan antolatzaileek emakumezkoen artean dagoen "mugimendua" nabarmendu dute: "Beterano mailan oso jende ona etorriko da, Alizia Olazabal edo Nerea Amilibia moduko atletek dagoeneko eman dute izena", adierazi du Iñaki Uribe-Etxebarriak. Azkar ibiliko den jendeaz batera, baina, antolatzaileek herri mailako kirolariak ere animatu gura dituzte: "Batek baino gehiagok komentatu digute parte hartzeko tentazioa daukatela, baina erritmo altuegia egongo delakoan beldurtuta daudela. Bada, kendu beldur horiek eta animatu; izan ere, atzealdean talde bat sortuko dugu lasterketa erritmo lasaiagoan egin ahal izateko".



Nerea Amilibia, iaz, Eskoriatzako plazan helmuga gurutzatzen. | IMANOL SORIANO

23 kilometro, gaez

Lasterketak 23 kilometro izango ditu eta 2.400 metroko desnibela. Zenbateko horiekin bistan dago korrika egitera ohituta dagoen jendeari zuzendutako lasterketa dela, eta, ibilbideari dagokionez, azken urteotakoari eutsiko diote:

"Lehenengo joan-etorria Asentzio aldera egingo dugu, eta Eskoriatzako erdigunetik pasa ostean etorriko dira malda gogorrenak: Aitzorrotzera igo, handik Makatz gaineko tontorretik Leixargara-

tera. Han, ostera, beherantz, eta Lete auzotik helmugara". Eta noski, gabez: "Gaez egiteak beste izaera bat ematen dio lasterketari, eta oso berezia da korrikalariak inguruaz sortzen duen

harmoniak. Zentzu guztiak jarri behar dira egiten ari garen horretan, oso sentsazio bereziak izaten dira. Hala, izen-ematea martxa onean badoa ere, egunean bertan ere eman ahal izango da izena.

I. URIBE-ETXEBARRIA
ANTOLATZAILEA

"Lanpara txikiak erabiliko ditugu mendian"

Bosgarren edizio honetako nobedadeetako bat izango da mendia argiztatzeko antolatzaileek erabiliko duten sistema.



GOIENA

Zer dela-eta aldaketa?

Orain arte tira fluoreszente batzuk erabili ditugu, baina garestiak ziren, eta ezin ziren berrerabili. Hala, zabor mordoa sortzen genuen horiekin. Eta aldatzea erabaki dugu.

Eta zelan argiztatuko duzue mendia?

Eguzki-izpiekin kargatzen diren lanparatxo batzuk erabiliko ditugu, led moduko batzuk. Ez da inbertsio handia izan, eta berrerabilgarriak dira. Baina leku kritikoetan iazko tira batzuk ere jarriko ditugu.

AUTOMOBILISMOA

Hamar edizio egin dituztela ospatzeko pilotu mordoa Udanan

- ▶ Bihar, zapatua, 15:00etan hasiko dute lasterketa 72 pilotuk
- ▶ Hamabi oñatiar izango dira, eta Debagoieneko beste asko

X.U. | ARRASATE

Udanako 10. edizioak erakutsiko du lasterketa osasuntsu dagoela, pilotu mordoa animatu da-eta lasterketan parte hartzera: "Iaz baino sei edo zazpi auto gehiago izango dira, harrera ona izan du aurtengo edizioak", dio antolatzaille taldeko ordezkari Sergio Gilek.

Monoplazetan Aitor Zabaleta izango da faboritua, "baina zorua bustita baldin badago gainean izango ditu Iraola, Gardoki edota Nogueiras moduko pilotuak, CM autoekin". Eta turismoetan, berriz, Euskal Herriko pilotuekin batera lehiatuko dira Galiziako txapelkun Manuel Senra (Peugeot 306 Maxi Kitcar) edota Kantabriako Manuel Cobo (Nissan GTR).

ESANAK

"Udana Motor Taldekook duela zazpi urte hasi ginen proba antolatzen"

"Denetariko momentuak izan ditugu, oso onak eta ez horren onak"

SERGIO GIL | ANTOLATZAILEA

7 urtez lasterketa antolatzen

Udanako Igoerak hamar edizio beteko ditu, eta azken zazpi edizioak Udako Motor Taldekoren eskutik iritsi dira: "Lehenengo edizioak Bergarako Gorla Racing taldekoei eta Azpeitiko Lagun Arteakoei antolatu zituzten. Buruz nabil, baina 1998-2000 urte artean antolatu zituzten lehenengo bi edizio haiek". Ondoren beste edizio bat egin zen solte [2004], eta 2009a ezkerreko Udako Motor Taldeak antolatzen du proba: "Urte hauean denetariko momentuak egon dira, oso onak eta ez horren onak. Txarrena 2011. urtean izandako istripuan bizi izan genuen, baina aurrera egin dugu, bizirik iraun, zelanbait esatearren, eta ez da gutxi", dio, umorez, Gilek.



BMW autoa Udako paelletako batean, zorua bustita dagoela. | IMANOL SORIANO

Albert Llovera pilotu elbarria, gaur

Lasterketaren urteurrenaren harira, antolatzaileek hainbat hitzordu antolatu dituzte aste barrurako. Hala, gaur, egubakoitza, Santa Anan (19:30), Munduko Rally Txapelketan eta Dakarrean ibili den Albert Llovera pilotuaren berbaldia izango da. Llovera eski istripu batean geratu zen elbarri, eta bere esperientzia kontatuko du. Zelan egin zion aurre egoerari, zelan iritsi zen autoen mundura, eta abar.

ZIKLISMOA

Ziklismoko Gipuzkoako kadete txapeldunak ibarrean erabakiko dira

- Bergaran erlojuaren kontrako txapelketa jokatu dute bihar, eta Oñatin errepidekoa etzi
- Kadete mailako 80 bat txirrindulariren artean erabakiko da; debagoiendarrak ere egongo dira

MIREIA BIKUÑA | DEBAGOIENA

Gipuzkoako kadete mailako ziklista onenak Debagoiengan batuko dira aste bukaeran. Izan ere, bihar, zapatua, eta etzi, domeka, erabakiko dira zeintzuk diren erlojuaren kontrako eta errepideko txapeldunak, Bergaran eta Oñatin, hurrenez hurren.

San Antonio saria

79. San Antonio saria erlojuaren kontrako Gipuzkoako txapelketa izango da. "Kadeteendako erlojuaren kontra proba gutxi zeudela eta, Lokatzan aukera aztertu eta gure probaren izaera aldatzea erabaki genuen", esan du Lokatzako presidente Jon Unamunok.

Hori horrela, 5,6 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik txirrindulariek: Urteaga kalea-Bonbulu-Bergarako saihebidia-Labegarietako biribilgunea-Labegarietako zubia-Bergarako saihebidia-autobus geltokiko zubia-Ibargarai kalea-San Antonio biribilgunea-Espoloia.

Lasterketa 17:00etan hasiko



Txirrindulari tropela iazko Olakua sarian. | JOSETXO ARANTZABAL

dute, eta 30 segundoko tartearkin irtengo dira 80 txirrindulariak. "Harrobiko ziklisten maila ikusteko aukera ederra izango dugu Bergaran eta Oñatin", esan du Unamunok.

Olakua saria Oñatin

Izan ere, zapatuan Bergaran lehiatuko diren 80 ziklistak eta beste hainbat Oñatiko 29. Olakua sarian egongo dira domekan. Hori ere Gipuzkoako txapelketa izango da, baina errepideko txirrindu-

lari azkarrena sarituko du. Aloña Mendiren lasterketa 16:00etan hasiko da Olakua auzoan eta handik aurrera 60 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek: Olakua-Zubillagako saihebidia-Elorregi-Arrasate-Elorregi-Zubillagako saihebidia-Oñati-Udana-Motxorro-Legazpi-Motxorro-Udana-Oñati-Zubillaga auzoa barrutik-Oñati-Olakua.

Mendiko saria Udanako mendatean egongo da.

Debagoieneko ordezkariak

Bergarako eta Oñatiko txapelketetan txirrindulari debagoiendarrak egongo dira: Ulmako eta Dorleta taldeetako ordezkariak, hain zuzen ere.

Iñigo Aranburu, Asier Azkarate, Andoni Azkarate, Liher Untzuetta, Joseba Rodriguez eta Iñigo Rodriguez dira Dorleta Txirrindulari Taldeko ziklistak; eta, Adrian Perez, Andoni Gartzia, Julen Otero, Aritz Leza, Nestor Uroz eta Josu Gartzia Ulma-Aloña Mendiko ziklistak.

TRIATLOIA

Mendiko triatloia Arantzazuko inguruetan egingo dute

M.B. | OÑATI

Xterra Basque Country kros triatloia edo mendiko triatloia ekainaren 21ean egingo dute Oñatin, Arantzazu inguruetan. Behobia-Donostia antolatzen duen Fortuna Elkartearen eskutik, mundu mailako Xterra zirkuituko probetako bat Debagoienara helduko da. "Gurean turismoa kostaldean sustatzen dugu, gehienbat, eta proba hori barnealdean egin gura genuen. Arantzazu aukeratu genuen daukan balioagatik eta Aizkorri-Aratz parkearen edertasunagatik", esan du Fortunako kide Iñigo Etxeberriak.

Landatik Arantzazura

Proba konbinatu horretako lehenengo diziplina, igeriketa, Landan egingo dute. Ondoren, parte-hartzaileak mendiko bizikleta hartu eta Arantzazuko Santutegira abiatuko dira. Bidean, Elgeako mendilerroa eta santutegi inguruko basoak zeharkatuko dituzte. Zirkuitu gogorra da eta zati tekniko dezente ditu. Arantzazura heldu ostean, mendiko zapatilak jantzi eta Aloñako eta Aizkorriko mendilerroek osatzen duten zelaietara igoko dira. Urbiako baselizatik igarotakoan santutegira itzuliko dira.

SASKIBALOA

Astebete geratzen da Bergarako hiruko saskibalo txapelketan izena emateko

M.B. | BERGARA

Ekainaren 20an eta 21ean jokatuko dute zortzigarren hiruko saskibalo txapelketa Bergaran, eta oraindik zabalik dago izena emateko epea: hilaren 17ra arte egin daiteke inskripzioa Agorrosinen, Labegarietan, Bergara Kirol Elkartearen bulegoetan eta herriko ikastetxeetan, doan.

Urteko txapelketa

Partiduak zapatuan eta domekan jokatuko dituzte: zapatu goizean infantilek eta kadeteek eta arratsaldean juniorrek eta seniorrek; eta domekan, gainerako kategoriek.

Bestalde, gaur, egubakoitza, urteko lau saskibalo txapelketa jokatu dute benjaminek, alebinek eta infantilek.

FUTBOLA



UDAREN eta Getxoren arteko partidua lbarran. | IMANOL SORIANO

Getxoren eta Elgorriagaren arteko partiduen emaitzaren zain

M.B. | ARETXABALETA

Aretxabaletak ez du partidurik jokatu, baina Getxok eta Elgorriagak elkarren kontra jokatu beharrekoan izango ditu zentzumen guztiak. Bizkaitarrek eta arabarrek Faduran jokatu dute, bihar, zapatua, 18:00etan.

Aurreko aste bukaeran Gasteizen 0-1 irabazi ostean, lau puntu ditu Gorka Valleren taldeak. Hori horrela, beste bi taldeetatik Getxok dauka igotzeko aukera bakarra. Hori bai, bi goleko abantailarekin menderatu beharko ditu gasteizarrak. "Gol bateko abantailarekin irabazten badute, edo berdindu edo galtzen badute, guk izango genuke igotzeko auke-

ra. Bestela, Getxorendako izango da", esan du Gorka Vallelek.

Karanbolen zain

Igoera fasea bukatu ostean, beste karanbola baten zain geratu beharko dute UDAk eta Getxok: Hirugarren Mailako kanporaketak ematen duena.

Portugaletan, Arenas eta Gernika dira Bigarren B Mailarako goera jokatzen dihardutenak. Hiru talde horietatik batek lortu beharko du goera derrigor, UDA edo Getxo Hirugarren Mailara igotzeko. Igoera bi taldek lortuko balute, orduan aretxabaletarrek eta bizkaitarrek igoko lirarteke mailaz.

TRIATLOIA

Gasteizko Nazioarteko Triatloia uztailaren 12an

M.B. | ARRASATE

Gasteizko Nazioarteko Triatloia azken txanpan sartu da: uztailaren 12an jokatu dute zortzigarren triatloia. Antolatzaileek hemeretzi herrialdeetako 2.100 parte-hartzaile espero dituzte; besteak beste, Alejandro Santamaria, Pedro Gomes, Aimar Agirresarobe, Brooke Brown, Arrate Mintegi, Kathrin Walter eta Yvette Grice.

Parte-hartzaile kopuruaren erdiak -1.050- distantzia luzea egingo du -3,5 kilometro igerian, 180 bizikletan eta 42 korrika- eta gainerakoek, distantzia motza.

Hainbat berrikuntza

Gasteizko triatloiak berrikuntzak izango ditu oinezko eta txirrindularitzako ibilbideetan. Lehen berrikuntza Olagibel kaleko boxetan egongo da: bizikleta han utzi beharko dute boluntarioen eskuetan, eta handik korrika jaitsiko dira Foruen Plazako boxetara, zapatilak jantzi eta oinezko saioari ekiteko.

Bigarren berrikuntza txirrindularien tartean izango da: distantzia luzea egiten dutenak eta motza egiten dutenak ez dira ibilbidearen zati handi baten elkartuko.

Triatloien gainera informazioa eta boluntario izan gure dutenendako izen-ematea www.triathlonvitoria.com atarian dago.

MOTORRA

Moto-kros lasterketa egingo dute Bergaran

M.B. | BERGARA

Bergarako Motorzale Taldeak moto-kros txapelketa egingo du hilaren 20an, Angiozarreko bidean dagoen zirkuituan. Antolatzaileek 90 bat gidari espero dituzte. "Egun berean beste proba batzuk daude, baina ez dugu uste parte-hartzean eragina izango duenik. Gurera EAeko, Nafarroako eta Errioxako pilotuak etortzen dira", esan du Asier Blazquez antolatzaileak.

Gidariak hainbat mailatan banatuko dituzte adinaren arabera: alebinak, gazteak, klasikoak, beteranoak eta elitekoak.

14:30etik 15:30era entrenamendu saioak egingo dituzte zirkuitua ezagutzeko, eta ostean, 16:00etan hasiko dute txapelketa, mailaka banatuta.

UDA HONETAN ZATOZ ZEN EGITEERA

eta nuke, baleki, zenekien...

*ritzaion
dezakezu
litzaidake*

*genekien
zetorren
naitzke*

AURKI EZAZU
ZURE BARNEKO OREKA,
EUSKARAREN BIDEZ

*eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan*

Glaukoma eta Kalakan, Errekan Gora zikloan

- ▶ Uztailako aste bukaeretan izango dira kontzertuak
- ▶ Guztira, bost eskaintza desberdin egongo dira

MIREN ARREGI | ESKORIATZA

Eskoriatza musikaz jantziko duen Errekan Gora jaialdia prest du dagoeneko Atxorrotx Kultur Elkarteak. Azkenengo urteetan bezala, uztailako aste bukaeretan izango da, Eskoriatzako hainbat plaza eta aretotan. Lehenengo kontzertua uztailaren 4an izango da, Huheziko klaustroan: 4kotegehi7 taldeak izango du jaialdiari hasiera emateko ardura.

Astean egin du jaialdiaren aurkezpena Atxorrotx Kultur Elkarteak. Beñat Herce Esko-

riatzako jarduneko alkateak adierazi du "herrian errotuta" dagoen ekintza dela eta "interesa" pizten duela eskoriatzarraren artean eta baita bailarako gainerako herritarren artean ere.

Eskerrak babesleei

Atxorrotx Kultur Elkarteak eskerrak eman gura izan dizkie bai Udalari eta baita gainontzeko babesleei, eta aurrerantzean ere jaialdia antolatzen jarraitzeko gogoaz azaldu dute elkarte kideek.



ATXORROTX

Uztailaren 24an
22:30ean
Santa Marina plazan

KALAKAN

Ipar Euskal Herriko hiru perkusionista kantarik osatzen dute taldea: Thierry Bizkarik, Xan Errotabeherek eta Jamixel Bereauk. Ahotsak eta perkusioa dira oinarria.



ATXORROTX

Uztailaren 4an
22:30ean

Huhezin

4KOTEGEHI7

Biolontxelo eta ahots zuriak batzen ditu talde durangarrak. Musika klasikoaz gozatzeko aukera.



ATXORROTX

Uztailaren 11n
22:30ean

Zaldibar antzokian

AROZENATARRAK
Aitor, Urko eta Xanet Arotzena txistulari familia ezaguneko laugarren belaunaldia dira.



ATXORROTX

Uztailaren 18an,
22:30ean,

Gernika plazan

GLAUKOMA

Gipuzkoako bost gaztek osatutako eta rap-reggaea egiten duen taldea da Glaukoma.



ATXORROTX

Uztailaren 25ean
22:30ean

Hotela tabernan

FERMIN BALENTZIA
Nafarroako bakarlarik emango dio bukaera Errekan Gora jaialdiari.

FINANTZAKETA:



kutxabank

AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

Baldintza berriak
943 31 68 68
www.sukia.com

2x
3x



Logelak



Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak



Maiatzean Iruñean izan ziren Arrasatekoak, Abots Baxuak otxoteak gonbidatuta. | TXORBELA

Otxoteen topaleku izango da Arrasate, garai baten moduan

Herrikoaz gainera, Baionako, Bilboko, Gasteizko, Añorgako eta Iruñeko otxoteek abestuko dute bihar

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
1930etik 1975era otxoteek bereziko garrantzia izan zuten Euskal Herrian. 60ko hamarkadan izan zuten goren aldia, lehiaketa asko egiten ziren orduan; horien artean, izen handia zuten Arrasaten egiten zirenek.

Tradizio edo giro hori berreskuratzea du helburu herriko Txorbela otxoteak –Udalaren laguntzarekin– bihar, zapatua, egingo duen lehenengo Otxoteen Topaketak. Euskal Herri osotik etorriko dira: Bilbotik Lur Maita; Adurtza Gasteiztik; Añorgatik Ertizka, Baionatik Aizkoa eta Iruñetik Abots Baxuak. Erdiguneko bederatzi tabernatan banatuta, hiruna kontzertu labur

egingo ditu talde bakoitzak, 12:30ean hasita. "Hiru ibilbide antolatu ditugu, eta bakoitzean dauden hiru tabernatan bi otxote ibiliko dira, baina ez biak batera; bat joango da taberna batera eta bestea beste batera. Hau da, sei otxote ibiliko dira sei tabernatan une berean abesten. Ekimenera atxiki zaizkigun tabernak honako hauek dira: Rumba, Itzala, Hamalau, Txoko, Aterpe, Monte, Okoretegi, Ezkiña eta Kajoi", azaldu du Tomas Axpek, Txorbelako kideak.

Tabernetako kontzertu ibiltariak bukatuta, Herriko Plazan elkartuko dira eta 14:00etan egingo dute seiek elkarrekin emanaldia. Horiek guztiak eginda, Alkar-

tu elkartean bazkalduko dute, SUDC elkartekoek prestatuta.

Erreterian elkar ezagututa
Guztiak dira gizonezkoek osatutakoak, eta guztiak gaintzen dute, era berean, zortzi kideen kopurua. Ezberdinak dira, baina, bakoitzaren historiari eta aukeratzaren kantu-zerrendari edo kantatzeko moduari begirata. "Erretereriako Topaketan parte hartzeko ohitura dugu eta han ezagutu genuen elkar. Beteranoena Ertizka da, 1964an sortutakoa eta, hain justu, Arrasaten egiten ziren lehiaketetan parte hartutakoa. Ohorea da guretzako berriz ere gure herrian izatea. Baionakoak nahiko fama-

JOSE ANTONIO VILLAR
IRRINTZI OTXOTEA

"Asko gozatu eta gozarazi genuen Irrintzi otxotearekin"

Arrasateko Otxoteen Lehiaketarabazi zuen 1966an Oñatiko Irrintzi taldeak. Han izan zen Villar.



Ibilbide laburra besteko eman-korra izan zen zuena.

Bai, horixe! Bost urteiraungenuen eta zazpi garaipen lortu genituen; tartean, Arrasatekoa. Horrez gainera, hiru disko grabatu genituen: lehenengo biak Irrintzik bakarrik, eta Oñatiko abesbatzarekin, berriz, hirugarrena.

Zelakoa zen zuen taldea?

Ohiko ereduarekin konparatuz, ezberdina; ganbara abesbatza baten antz handia zuen Irrintzik. Lanaren bidez lortu genuen onenen artean izatea.

Kontzertu asko emateko gonbidapena jaso zenuten. Iparraldera hainbat ibilaldi egin genituen, bai. Euskal Herriaz gainera, Madril eta Sorien ere kantatu genuen.

tu egin dira azkenaldian, besteak beste, Anne Etxegoien abeslariarekin hainbat abesti grabatu izan dituztelako. Bitxienak, akaso, Gasteizkoak dira; abeslariak, gainera, musikariak ere badira, eta, ohitura duten moduan, musika tresnekin kalejiran ibiliko dira. Topikoetara jota, otxoteak Bilborekin lotzen ditugu gehienok, eta, nola ez, Bilboko ahots indartsuak ere gurean izango dira. Iruñekoak, berriz, orain dela hilabete izan ziren Arrasaten, elkarrekin kontzertua egin genuen-eta, Udaberri Musikaldiaren barruan. Eskarmentu handia dute, 1977a ezker ari dira kantuan", dio Axpek.

Maidar Arregi, Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketara

JOSU BILBAO | OÑATI

Oñatiko bertsolari gazteak Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketan parte hartuko du datorren irailean hasita. Txapelketan izango den Debagoieneko bertsolari bakarra izango da Maidar Arregi. Iaz, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuen oñatiarrak, eta aurtengoa Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko du aurrenekoz: "Debagoieneko bakarra izateak pena apur bat ematen dit, bertso eskolan lan handia egin dugu-eta. Nik ez dut ikusi inor ni baino okerrago aritu denik".

Maidar Arregiren berbatan, txapelketan parte hartzea eta ikasten jarraitzea da garrantzitsua: "Helburua gozatzea eta ikasten jarraitzea izango da. Gipuzkoako Txapelketan oso jende ona egongo da. Nik bertara joan eta ea saio polita egiten dudan. Parte hartzea eta ikastea da garrantzitsua niretako, lehia alde batera utzita".

Txapelketa irailaren 20an jarriko da martxan eta sailkatzea lortu duten 30 bertsolarien duela lau urteko txapelketan sailkatze zuzena lortu zuten hamahiru bertsolarien egingo dute topo.



Maidar Arregi. | HITZETIK HORTZERA



Manu Muniategiandikoetxea. | GOIENA

Manu Muniategiandikoetxearen lanak Donostiako Altxerri galerian

Gaurtik irailera arte egongo dira Bergarako artistaren obrak ikusgai

JOSU BILBAO | BERGARA

Bergarako margolari eta eskultorearen hogeitau bat lan ikusgai egongo dira Donostiako Altxerri galerian. Erakusketa hiru hilabete inguru egongo da ikusgai, irailaren azkenera arte gutxi, gorabehera. Bertan, bisitariak Manu Muniategiandikoetxearen lan esanguratsuenak ikusi eta ezagutu ahal izango ditu. Erakusketa ildo nagusia bergararrak landu dituen esferak eta zirkulu zentrokideak izango dira. Hain zuzen ere, 3x3 metroko bi

esfera erraldoi egongo dira ardatz nagusi moduan.

Donostian zortzi urte baino gehiago daramatza Bergarako artistak bere obra erakutsi barik. Normalean, Madrilgo Espacio Minimo izeneko galerian erakusten ditu lanak. Horregatik, bere obrak Gipuzkoan erakustea berezia dela onartu du Manu Muniategiandikoetxea: "Ez da erraza izaten etxean erakusketa egitea. Kanpoan egitea errazagoa izaten da. Madril, Galizian edo Valentzian, adibidez".

Erakusketa izena *Nator, noa, doa, da* da, eta artistak azken urteetan egin dituen lanak izango ditu ikusgai bisitariak. "Lan txikiak eta handiak daude; hogeitau gutxi gorabehera. Aretoa nolakoa den jakinda, moldatu egin gara bertara", azpimarratu du artistak.

Iaz, Jesus Mari Lazkanoren erakusketa izan zuten Donostiako Altxerri galerian, eta aurtengoa, berriz, Bergarako beste artista baten lanak ikusteko aukera egongo da.

Mundumira ordezkatu duen jaialdi bat antolatu nahi du Mankomunitateak

Aurtengo urriko azken asteburuan Bergaran egin nahi du kultura oinarri izango duen aisialdi festa berria

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Jaialdia diseinatu eta izena aukeratzeko lehiaketa publikoa deitu du. Atzo amaitu zen eskaerak aurkezteko epea. Esleipena 60.500 eurotan egin nahi da (50.000 gehi BEZa). aurtengo jairako, 2016korako kontratua luzatzeko aukerarekin.

Hamar urteren ostean, agur

2005ean egin zen lehen Mundumira Arrasaten. Harrezkero urtero egin da, 2013an izan ezik, eta eskualdeko herri guztietatik igaro da. Debagoiena ezagutarazi eta formatu handiko kalitatezko jaialdia antolatzea izan zen sorrerako helburua. Eskualdeko GKEak ere jaialdiaren parte izan dira eta elkartasun kamiseta atera da urtero, haiendako dirua batzeko.

Arrasaten hasi eta amaitu

2014ko maiatzean egin zen, ordea, azkeneko Mundumira, Arrasa-

ten, hain justu ere. Oraindik izenik ez duen haren ordezkoa urriaren 23an, 24an eta 25ean egin nahi dute aurtengoa, Bergaran. Hurrengoetan berriro ere maiatzean egitea da asmoa.

Aldaketaren arrazoiak

Bi arrazoi daude Mundumirari agur esateko, Igor Ezpeleta Mankomunitateko Garapen Agentziako lehendakariaren esanetan: "Mundumira, enpresa pribatu baten marka da, ez da Debagoieneko Mankomunitatearena, eta horrek arazoak sor ditzake lege aldetik". Gin Tonic kultura kontratazio enpresarena eta *Euskal Herria* aldizkariarena da marka.

Bestalde, "musika edota antzerki taldeak eta gastronomia postuak jartzen dituztenak kanpotik ekarri beharrean, eskualdeko ostalari, dendari edo merkatariei eman gura diegu auke-

ra, eta Euskal Herriko eragileak hobetsi programazioa osatzean", dio Ezpeletak. Osterantzean, hasierako helburuei eutsiko die jai berriak.

18an esleipena eta izena

Mankomunitateak apirilaren 24an argitaratu zuen lehen aldiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jaialdia antolatzeko iragarkia. Lizitazio prezioa 37.100 euro gehi BEZa izan zen, eta inor ez zen aurkeztu. Horregatik argitaratu da berriro ere maiatzaren 27an, kopurua 50.000 eurora igota.

Udalbatza berriak bihar eratu diren arren, lanean jarraituko dute Mankomunitateko jarduneko gobernu batzarreko ordezkariak, eta hilaren 18an egingo dute batzarra. Dena ondo bidean, bertan erabakiko dute jaialdia zeinek antolatuko duen eta baita jaialdiaren izena ere.



10 eta 16 urte bitarteko dantzari gaztetxoak etorriko dira. | GOIENA

Debagoieneko 300 dantzari Arrasateko Haur Dantzarien Egunean

MAITE TXINTXURRETA | ARRASATE

Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeek antolatuta, ia 300 dantzari gazte bilduko dira etzi, ekainak 14, Arrasateko kaleetan.

Debagoienetik, Antzuolako, Aramaio, Aretxabaletako eta Oñatiko taldeak etorriko dira, Arrasateko bi taldeez gain, eta orain arte egin izan den moduan, Soralezkoak ere etorriko dira. Oiartzungo eta Markinako dantzari taldeak ere gonbidatu dituzte aurtengoa.

10:30ean batuko dira guztiak Herriko Plazan, eta hamarretakoa egingo dute bertan. Segidan, taldeak lau gunetan banatuko dira, eta nork bere ibilbi-

dea egingo du, han-hemenka dantza eginda.

Ordu bietan, berriz, kanpoko herrietatik etorritako gazteak Arrasateko familien etxeetara joango dira bazkaltzera.

Alardea eta dantzak

Arratsaldeko ekintzei hasiera emateko, alardea izango da lehenbizi. Bertan, alde batetik, mutilek dantzak egingo dituzte, beste aldetik, neskek, eta, azkenik, mistoa egingo dute. Segidan, Oiartzundik eta Markinatik etorritako taldeen dantzak ikusteko ordua iritsiko da.

Bukatzeke, 19:00etan, DJ Amaia Txintxurretak musika jarriko du plazan.



Biraka taldekoak dantzan. | GOIENA

Biraka taldearen dantza ikuskizuna gaur Bergarako Muniben

19:00etan hasita, 90 dantzari gazte arituko dira modako musikarekin dantza garaikidea egiten

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Jukebox: zure aukera izena dauka gaur, egubakoitza, arratsaldean Bergarako Munibe plazan Biraka dantza taldeak egingo duen ikuskizunak. Zazpitan hasiko da emanaldia, eta ordubete inguruko iraupena izango du. Eguraldi txarra eginez gero, baina,

Seminarioko karpara aldatuko dute hitzordua.

Josu Muxika eibartarra Biraka taldeko irakasle eta zuzendaria da, eta laurogeita hamar dantzari ekarriko ditu guztira berarekin. Gazteak dira denak, 13 eta 30 urte bitartekoak; tartean, lau bergarar ere badaude.

Abestien aukeraketa

Hamabost abestiren koreografiak dantzatuko dituzte Birakakoek gaur. Kanta guztiak eskolako neska-mutilek eta haien gurasoek hautatu dituzte, Muxikak hala eskatuta: "Mila abesti proposamen inguru jaso genituen, guztira, eta horien artetik hamabost hautatu ditugu Bergarako ikuskizun honetarako". "Modan dauden abestiak" izango dira, beraz.

Ikuskizunaren azkartasuna eta dinamismoa azpimarratu ditu Muxikak; izan ere, "koreografia batetik bestera bost segunduko tartea egongo da".

Dantzariak, gustura

Askotariko dantza motak lantzen dituzte Biraka taldekoek entseguetan. Irakasleak azaldu duenez, dantza klasikoari eskaintzen diete denbora luzean, "teknika ikasteko modurik onena" delako. Hala ere, beste diziplina batzuk baino "zailagoa" dela dio, eta orokorrean neska-mutilek gustukoago izaten dute dantza garaikidea. Haien neurrira eginiko saioa izango da, beraz, *Jukebox*.

Muxikaren esanetan, dantza lantzen duten neska-mutikoek disziplina eta gorputzarekiko oreka lantzea lortzen dute, baita mugitzeko askatasuna eta koordinazioa ere. Baina horretaz gain, "plazera" da haientzat eta gehienak "oso gustura" dabilzala azpimarratu du: "11 urtetik aurrera ia inork ez ditu dantza eskolak uzten", dio.

Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxeko bi talde Galtzagorriren lehiaketan sarituak

M.T. | BERGARA

Liburuei buruzko trailerrak egin behar izan dituzte, eta irabazle suertatu dira DBH 1 eta 2 kategorian zein DBH 2 eta 3an: lehenengoan, Andrea Zaballaren, Maite Egañaren eta Julen Ibarretxeren taldeak jaso du saria, John Boyneren *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa*

liburuari buruzko trailer batekin. Bigarrenetan, berriz, Izar Larrañaga, Samuel Martin, Mainer Amutxastegi, Mikel Alberdi eta Asma Assabannek irabazi dute Aitor Aranaren *Maitasun sua*-ri buruzko lanagatik.

Astlehenean jasoko dute saria Donostiako Koldo Mitxelena kulturagunean.



NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA

John Andueza idazleak 'Juil' saria jaso du Iruñean

DBHko 3.000 ikaslek baino gehiagok hautatu dute haren *San Fermintan, Lesakan* urteko libururik onena bezala. Nafarroako Ikastolen Elkartearen eskutik jaso du saria idazle arrasatearrak Iruñeko planetarioan, gazteengan irakurzaletasuna bultzatzeko helburua duen *Juil*.

Aurten lortu du Urkiolak lehendabiziko txapela, Azpeitian.



Alaitz Urkiola | Rallyetako kopilotua

"Aspalditik izan dut Aingeru Castroren ondoan kopilotu lanetan aritzeko ilusioa rallyetan"

MAITE TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Alaitz Urkiola (Antzuola, 1994) rallyetako kopilotua da Euskadi Racing taldean. Aingeru Castro pilotuaren alboan aritzen da, eta emaitza bikainak lortu dituzte biek batera azkenaldian. Industria Antolakuntzako Ingeniari-tzako hirugarren maila egiten dihardu Arrasaten, eta orain arte buru-belarri aritu da ebaluazio bukaeran entregatu beharreko proiektua egiten.

Noiz hasi zinen kopilotu?

16 urterekin hasi nintzen, gurasoen baimenarekin. Betidanik izan dut gurasoen babesa, eta eskertzekoa da. Nire lehen proba San Migel izan zen, Etxebarritik Elgoibarrera doana. Nahiko ondo joan zen, eta jarraitzeko motibazioa eman zidan.

Nondik dator kizua zaletasuna?

Aitak lasterketetara eraman izan nau txikitatik. Osabak lehiatu egiten zuen, eta mekanikaria zen. Betidanik gustatu izan zait.

Aitor Arrieta pilotuarekin hasi zinen. Nola ezagutu zenuen?

Horrenbeste rally ikustera joanda, kontaktuak eta lagunak egin ditut, horietako bat Aitor Arrieta. Nik ikasteko gogoia neukan, eta hark lagundu egin zidan. Azkenean, elkarrekin lehiatzen hasi ginen. Mundu horretan dabilen jendeak ezagutzen ez bazaitu, oso zaila da zure tokia egitea; are zailagoa neska izanda.

Aingeru Castrorekin zabitza orain. Halaxe da, bai. Gabiriako rallysprinta izan zen harekin egin nuen lehenengo lasterketa. Zazpigarren-edo bukatu genuen, baina

handik aurrerako karreretan podiuma erdietsi dugu, eta azken bietan, gainera, garaileak izan gara, Azpeitian eta Larrunarrin. Saillkapeneko lehenengo postuan gaude orain.

Pozik, beraz.

Oso pozik. Izan ere, beti gustatu izan zait Aingeruk nola gidatzen duen. Aspalditik, 13 urte nituenetik-edo izan dut haren ondoan kopilotu lanetan aritzeko ilusioa.

Nola prestatzen dituzu karrerak? Karrera bakoitzak bere erreklamendua izaten du, eta, lehenik eta behin, hura irakurtzen dut, informazioa jaso eta zerbait desberdina ote dagoen ikusteko. Ondoren, proba baino astebete lehenago bertara joan eta apunteak hartzen ditut, astean zehar errepasatzeko.

Inoiz ikusi izan duzu zure burua arriskuan?

Beti dago arrisku puntu bat, baina istripuak sustotxoak izaten dira, normalean, askoz gehiago ez, ondo babestuta joaten baiera. Iaz, adibidez, kolpe bat izan nuen, baina ez zen larria izan. Ezin da beldurrez joan. Zorte txarra izan daiteke, baina, horretan pentsatzen jarriz gero, gauzak gaizki ateratzen dira.

Hasieran urduritasun handiagoa izango zenuen.

Hasieran bai, eta aurten ere bai; izan ere, iaz Aingeru Castrok txapelketa irabazi zuen. Ondorioz, aurtengo lasterketa guztietan lehendabizikoak izaten gara ateratzen, eta nik erantzukizun handia daukat. Bigarren postuan aterata, aurrekoaren erreferentzia dago, baina kasu honetan ez. Beraz, nik ez badut nire lana ondo egiten, proba osoa pikutara joan daiteke. Baina, beste alde

batetik, oso ondo dator kit ikasteko, eta halakoetan jakin daiteke ea benetan balio duen batek. **Zaila da neska batendako mundu horretan toki bat aurkitzea?**

Nahiko neska gutxi daude mundu hori gustuko dutenak. Sei neska bakarrik ibili gara aurten nire kategorian, kopilotu, eta pilotu bat ere ez. Baina jendea ari da animatzen poliki-poliki.

Nahiko zenuke pilotu moduan aritu?

Bai. Hemendik pare bat urtera nahiko nuke, behintzat, lasterketa bat egin, sentsazioa nolakoa den ikusteko.

Auto propiorik badaukazu?

Bai, BMW bat. Rallyetan ere BMWarekin aritzen gara, eta kalerako ere halako bat daukat.

Goiz aterako zenuen gidabaimena.

18 urte bete nituen egun berean, hain justu ere. Kalkuluak egiten aritu nintzen, eta autoeskolan gutxieneko orduak egin ostean azterketarako izena eman nuen.

PERTSONALA

Zure amestetako autoa: Porsche bat.

Auto probarik gustukoena: Hondarribiko rallysprinta.

Miresten duzun pertsona bat: Sebastian Loeb pilotua.

Mendia ala hondartza? Biak.

Bizi izateko toki bat: Antzuola.

Antzuolako txoririk gustukoena: Mendia, oro har.

Musika talde bat: Gatibu.

Amets bat: Rallyetatik bizi ahal izatea.

Janari bat: Pasta.

MAITE TXINTXURRETA

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Bidekurutzetan. 65 metro koadro. Laugarren solairua. Bi logela, sukaldia, egongela-jangela, komuna eta trasteleku. Argitsua, guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko prest. Prezioa: 79.000 euro. Aukerara osoa. Telefonoak: 618443844 edo 666427857

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. Etxebizitza ematen da errentan Araba ibilbidea 5ean. 651707996

Arrasate. Erguinen, Udalpe kalean, etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Egoera onean. Bi logelakoa. 17:00etatik aurrera deitu zenbaki hauetara: 620151508 edo 943787007

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu, Munarren. Igoailua eta berokuntza zentrala. Guztiz jantzita eta dena kanpoaldera begira. 659448679

Bergara. 84 metro koadro dituen bi logelako etxebizitza konpoundua errentan erdigunean. Gelak handiak dira. Baita sukaldia eta jangela ere. Altzariek. 685725158

Donostia. Alde Zaharrean bi pertsonendako aproposa den etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. 2015eko irailetik 2016ko ekainera bitarteko ikasturterako. 520 euro gehi gastuak. Telefonoa: 616014017

Elgeta. Hiru logela, sukaldia, bi komun, egongela eta despentsa txiki bat. Guztiz jantzita. 636515964 (19:00etatik aurrera) edo 638359497

Eskoriatza. Eduardo Gorosari enparantzan etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. 605775165

Jaka (Huesca). Erdialdean etxebizitza ematen da errentan abuzturako. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Garajearekin. Kirol gunea du: bi igerileku, bi squash eta jacuzzia. Dena kanpoaldera begira. 609478691

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Pertsona arduratsua naiz eta lanean ari naiz. Bi logelako

etxebizitza txikia hartuko nuke errentan. 722453359

Baserribila. Bikote arrasatearra baserri bila. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 680342960 edo 699289906

Bergara. Etxebizitza errentan hartu nahi dut. Presazkoa da eta gehienez 400 euro ordain ditzaket. 689697986

Bergara. Bergarako bikote gazte bat gara eta etxebizitza bat errentan hartuko genuke. 678474354

Oñati. Errentan hartzeko etxebizitza bilagabiltza. Oso arduratsua eta langileak. 688641925

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. 619886030

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Harremanetarako deitu zenbaki honetara: 653728750

Oñati. Logela ematen da errentan etxebizitza berri batean, erdigunetik gertu. Wifi konexioarekin. 656742949

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje txikia salgai Bolun. 24.000 euro. 943769385

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARAMAIO

Zerbitzaria behar da. 3 hilabeteko esperientzia eta euskara beharrezkoak. 636254727

BERGARA

Sukaldari laguntzailea behar da. 629268851



Bergarako Udala

Bergarako Udala kale-garbitza zerbitzuko peoi espezialistaren 5 lanpostu betetzera doa lehiaketa-oposizio bidez:

Lehiakideen baldintzak:

Oinarrietan jasotakoak eta, besteak beste, ondorengoak

- 16 urte beteta izatea.
- Eskolaratze ziurtagiria edo parekoa den titulazio-maila izatea.
- B motako gida baimena.
- 1.H.E derrigorrezkoa.
- Fitosanitarioren aplikatzaileen oinarriko formazioa.

Instantziak aurkezteko epearen amaiera: GAOan argitaratzen denetik 20 laneguneko epean.

Oinarriak:

Idazkaritzako bulegoetan, eta webgunean (www.bergara.eus).

Bergara, 2015eko ekainaren 9a. ALKATEAK

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluk.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

Arrasate. Emakume eskalduna behar da umeak eskolara eraman, eguerdian bazkaltzen eman eta etxeko lanetarako. 08:00etatik 13:30era. 699267620 edo 605738090

Bergara. Emakume eskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 615720123

402. ESKAERA

Arrasate eta Aretxabaleta. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Baita egoitzatan daudenak paseoa ateratzeko ere. Sukalde laguntzaile ere bai. Esperientzia dut. 634844194

Arrasate, Bergara edo Oñati. Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. San Juan de Diosen eta Aita Mennin lan egindakoa naiz. 943786219 edo 639665788

Arrasate. Lana behar dut. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, egunez edota orduka. Umeak zaindu edo garbitzeko egiteko ere gertu nago. 603335064 edo 682319737

Arrasate. Orduka lan egingo nuke zaintza lanetan eta abar. Geriatria eta Alzheimer gaixok zaintzeko ikasketak daukat. 619886030

Bergara. Neska eskalduna gertu umeak zaintzeko. Irakasle ikasketak egiten eta esperientziarekin. 637363559 edo 943760897

Bergara. Udan umeak zaintzeko gertu nago. Bertakoa naiz eta eskalduna. 634428511

Debagoiena. 26 urteko neska eskalduna, erizain lagun-

tzaila tituluduna, nagusiak zaintzeko gertu. Arduratsua naiz eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. Autoa daukat. 617205943

Debagoiena. Soraluzeko emakumea orduka etxeko lanak edo garbitzeko lanak egiteko prest. Nagusiak zaindu, botikez arduratu eta paseoa laguntzeko ere bai. 628540241

Debagoiena. Astelehenetik egubakoitzera lan egingo nuke bai orduka, bai egunez, bai gauak egiten. Garbitzeko egiten edo nagusien zaintzan. 610997046

Debagoiena. Emakume eskalduna haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Euskaraz, gaztelaz edo alemanez hitz egingo diet. Esperientziaduna. 605726443

Debagoiena. Emakumea garbitzeko lanak egiteko gertu: etxe, atari eta abarrak. Ordu egiteko. 632773538

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. 632461794

Debagoiena. Emakumea lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 632461794

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu nagusi edota ezindua zaintzeko. Baserrietara joateko arazo barik, autoa daukat eta. 678373243

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Gazez, orduka edo egun osoz. 645587161

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen neska

lanerako gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 631142702

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, zaintza lanetan edota garbitzeko egiten. 687362183

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, zaintza lanetan edota garbitzeko egiten. Telefonoa: 617126144

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen. 622593987

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, pertsona nagusien zaintzan. Erreferentzia onak ditut. 600212516

Debagoiena. Etxeko lan eta garbitzeko egiteko nituzke. Egun osoz, erdiz zein orduka. 688651022

Debagoiena. Etxeko lan eta garbitzeko egiteko gertu nago. Egun osoz, erdiz zein orduka. 688650456 edo 943253417

Debagoiena. Gertu nago garbitzeko lanak egiteko: etxe, atari eta abarrak. Ordu egiteko. 645729287

Debagoiena. Gizon langile eta arduratsua gertu nagusiak zain-

tzeko, lorezain lanetarako eta etxe edo baserriak zaintzeko. 634143665

Debagoiena. Gizona gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat etxeko lanetan. 63260184

Debagoiena. Margotzen, lan-tegijan zein tabernan lan egingo nuke. 697883562

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen, garbitzeko edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperekin. 606641609

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke. 654790758

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo garbitzeko lanak egiten lan egingo nuke. Orduka ere bai. 602573275

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbitzeko egiten eta abar lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka eta baita asteburuetan ere. 631499496

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbitzeko edo sukaldari laguntzaile jardungo nuke. 943540941 edo 691032502

Debagoiena. Neska arduratsua bitartean nagusi edo umeak zaintzeko gertu. Lege paperak ditut. 677397048

Debagoiena. Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Nagusiak zaindu eta paseoa ateratzeko ere gertu nago, baita orduka garbitzeko lanak egiteko ere. 695738795

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu eta paseoa laguntzeko zein etxeko garbitasun lanak egiteko. Egun osoz edo orduka. 629807773

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu, garbitzeko lanak egin edo tabernan jarduteko. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak ditut. 632368395

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu. Nagusi eta umeak zaindu zein garbitasun lanetarako. Orduka, egun osoz edota etxean bertan bizi izaten. 685648478

Debagoiena. Neska arduratsua lanerako gertu: tabernan, sukaldian, garbitzeko, ume eta nagusiak zaintzen eta abar. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. 697200086

Debagoiena. Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbitzeko egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gaez. 633846530

Debagoiena. Neska lan bila: ume eta nagusiak zaintzen edo garbitasunean. Orduka, asteburuetan edo etxean bertan bizi izanda. 631282203

Debagoiena. Orduka umeak zaindu, garbitzeko egin edo nagusiak laguntzeko gertu nago. 10:00ak eta 16:00ak bitartean. Ana. 632339105

Debagoiena. Pertsona nagusi eta umeak zaintzen edo garbitzeko lanetan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperak eguneratuta daukat. 696301910

Debagoiena. Pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke, hoteletan lan egin, sukaldari laguntzaile gisa lan egin, garbitzeko lanak eta abar. Autoa daukat. 636112340

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo garbitzeko lanetan arituko nintzateke. 686447038

Debagoiena. Zaintza lanetan arituko nintzateke. Arratsadetan, orduka edo asteburuetan ere bai. 622053057

Haurrak zaindu Bergaran. Haur Hezkuntzako ikasketak dituen 25 urteko neska bergararra irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest, goiz zein arratsalde. Esperientziaduna. 680173361

Haurrak zaintzeko prest. Neska eskalduna eta arduratsua, umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Haur Hezkuntzako ikasketekin eta arlo honetan esperientzia handiarekin. 669107748

Ile-apaintzailea. Ile apaintzaile eta estetizista lanerako gertu. Asteburutan, orduka edo egun osoz; behar duzuna. 605726443

Lan bila. Garbitzeko lanak egingo nituzke: etxeak, tabernak, atariak eta abar. Arduratsua naiz. 635746324

Lorezaina. Lorezaintzan eta eraikinen mantenu lanetan jardungo nuke. Gidabaimena daukat eta erabateko prestutasuna. 943798243

Umeen zainketa. 17 urteko neska eskalduna eta arduratsua naiz. Umeak zaintzeko prest nago, bai goizez bai arratsalde. 688802440

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana salgai. 22 urteko autokarabana (kaputxina). Bost pertsonarendako lekua. 161.000km. 5,5 metroko luzera. Egoera onean. Merke. 696626740 edo 638544887

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Apirilean jaiotako katakumeak ematen dira opari. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 629096346 edo 660927071

8. DENETARIK

801. SALDU

Literak. 80x190 neurrikoak. Bi urte dituzte baina egun gutxitan erabili izan dira. Kolore argia. 943795764 edo 605757296 (Ines)

802. EROSI

Bizikleta tolesgarria. Egoera onean dagoen bizikleta tolesgarria erosiko nuke. 647316441

Klarineta. Bigarren eskuako klarineta erosiko nuke. 650392087 Ines

806. GALDU

Graduatutako betaurrekoak. Aretxabaletako plazatik Txaraparako bidean galdu nituen, ekainaren 4an, egunez. Beltzak dira eta zorro baten barruan zeuden. Aurkitu badituzu, eskertuko nuke zenbaki honetara deitzea: 615755275

Zetazko zapia. Juan Gattien zetazko zapi gorri bat galdu nuen Bergaran, ekainaren 8an, plazatik geltokirako bidean. Zapi handia da eta gaezur baten irudia dauka. 626129507



HARRERARAKO LAN-POLTSA

Aretxabaletako Udala harrerarako lan-poltsa osatu nahi du.

Eskatzen den titulazioa:

eskola-graduatu edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 3.a.

Izena emateko epea: ekainak 26.

Oinarriak: www.aretxabaleta.eus

Aretxabaleta, 2015eko ekainaren 8a.

ZORION AGURRAK



ANTZUOLA
Leire Galeano
Ekainaren 18an, 8 urte.
Zorionak, Leire! Milioika zorion muxu jaso ditazula, *guapa!* Maitasun handiz Narogeren, aitaren eta batez ere, amatxo Aloñaren partetik.



BERGARA
Pello Gallastegi Lete
Ekainaren 16an, 10 urte.
Zorionak! Segi horrela, txapeldun. Patxo potolo bat. Katixa eta Eider.



ARRASATE
Pello Alzola Loiti
Ekainaren 16an, urtebete. Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze eguna hondartzan. Familiako eta etxeko guztien partetik, muxu handi bat.



ARRASATE
Kai Luengo Elgoro
Ekainaren 14an, 2 urte.
Zorionak eta muxu handi-handi bat etxeko guztien partetik, bereziki Ederrena, Aisharena eta Lukenena.



OÑATI
Julen Sagastume
Ekainaren 14an, 3 urte.
Zorionak, txikitxo! Hiru urtetxo! Zu zara gure pottoko eta gaizto txiki ere bai. Ondo-ondo pasatu eguna eta milaka musutxu etxeko partetik. Mua!



BERGARA
Ander Sarasua Zeberio
Ekainaren 14an, 8 urte.
Zorionak, maittia! Ondo pasatu zure urtebetze egunian! Egunerokuan zure alaitasuna eta goxotasuna jasotzen dogunon partetik, muxu handi bat!



ELGETA
Ander Sarasua Zeberio
Ekainaren 13an, 9 urte.
Zorionak Ander, etxeko guztien partetik! Ondo-ondo pasatu eguna! Aitaxo, amatxo eta Urtzi.



ARRASATE
June Barandiaran
Ekainaren 13an, 5 urte.
Zorionak, laztana! Espero dugu zure eguna ezin hobeto ospatuko duzula. Muxu eta besarkada erraldoi bat zure familia guztien partetik. Izugarri maite zaitugu!



ARETXABALETA
Uxue Galdos Arrate
Ekainaren 12an, 5 urte.
Zorionak, Uxue, etxeko, lehengusina Eider eta Oihaneren eta batez ere amama Tinaren partetik!



ARETXABALETA
Aner Maskariano
Ekainaren 12an, urtebete.
Zorionak, Anerxo! Gure etxeko mutikotxuak urtetxo bat bete dau. Ondo pasatu eguna. Muxu handi bat eta besarkada bat. Zure lehengusinak: Naroa eta Uxue.



ARRASATE
Alaitz Altube Sedano
Ekainaren 12an, 6 urte.
Zorionak, neskato! Egun zoragarria pasa dezazula. Muxu handi bat aitaren, amaren eta Malenen partetik.



ANTZUOLA
Unax Urzelai Otaegi
Ekainaren 11n, 2 urte.
Zorionak, Unax! Ostegunian bi urtetxo. Ondo-ondo pasatu zure urtebetze egunian. Patxo handi bat danon partetik!



ESKORITATZA
Martin Alonso Belategi
Ekainaren 11n, 8 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetze eguna. Patxo potolo bat, etxeko danon partetik.



BERRIZ
Gorka Balsara Segovia
Ekainaren 11n, urtebete.
Zorionak eta muxu handi bat izeko Usoa eta Ketyren partetik!



ESKORITATZA
Juan Luis eta Xuban Markaide
Ekainaren 10ean, urtebetze. Zorionak, *makinak!* Xubanek 5 urte eta aitaxok... bat gehiago! Ondo-ondo pasatu eta muxu bat etxekuen partetik.



Muak!
OÑATI
Markel Elorza Martin
Ekainaren 10ean, 7 urte.
Zorionak, Markel! Zazpi urte dagoeneko! Patxo handi bat!



ARETXABALETA
Iker Iturbe Ruiz
Ekainaren 9an, 11 urte.
Zorionak, Iker! Ondo pasatu eguna, familiaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak.
Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



OÑATI
Aner Guridi Arriaran
Ekainaren 8an, 6 urte.
Zorionak, pitxin! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze egunian. Patxo handi bat aitaxoren, amatxoren eta Eleneren partetik.



ANTZUOLA
Irati Soto Axpe
Ekainaren 8an, 2 urte. Zorionak, potxoli, eta muxu handi bat, bereziki Juneren partetik.



BERGARA
Beñat Barbero
Ekainaren 7an, 4 urte.
Amama Begoren eta Asier anaiaren partetik, zorionak eta muxu handi bat.



ESKORITATZA
Lur Arana
Ekainaren 7an, 36 urte.
Zorionak, aitaxo! Ondo ospatuko dugu zure eguna! Besarkada handi bat Unairen, Beñaten eta amatxoren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Maren Agirre Zoilo
Ekainaren 6an, 9 urte.
Zorionak, *guapisimo!* Bederatzi urte dagoeneko. Ondo pasatu eta muxu handi bat familiako eta, bereziki, Izaroren partetik.



OÑATI
Oxel Rodriguez Gomez
Ekainaren 4an, urtebete.
Zorionak, pirata! Ospatuko dugu zure lehen urtebetetzea. Eta domekan, zure arreba Alaitzekin bere jaunartzea eta zure batailo.



BERGARA
Alazne Murgiondo Kortabarria
Ekainaren 5ean, 3 urte.
Zorionak, Alazne! Hiru belarri-tiraka jada! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, bereziki, Naiaren partetik.



OSINTXU
Auritz Laskurain eta Uxue Zubizarreta
Auritzek ekainaren 5ean, 4 urte eta Uxuek ekainaren 12an, 12 urte.
Zorionak eta patxo handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Maddi Etxebarria Maortua
Ekainaren 3an, urtebete.
Zorionak, poxpolin. Etxeko txikiñenak urte bat ein dau. Zorionak etxeko danon partetik.



BERGARA
Haizea eta Unax Mujika Beistegi
Ekainaren 2an, 5 urte eta ekainaren 25ean, 3 urte.
Zorionak! Patxo mordo bat amatxoren eta aitaxoren partetik.

ASTEAGOIENAN



Udalbatza berriak eratzeko bilkurak

Bihar, zapatua, eratuko dira udalbatza berriak eta jarraipen berezia egingo diete Goienan. Egunean bertan Debagoieneko herri bakoitzetik emango dute kazetariak informazioa, eta albistegi berezia eskainiko dute 20:30ean, 21:30ean eta 23:00etan.

'Berriak'

Zapatua, 20:30



Gazteendako bideoklipak

Ikus-entzuleek euren bideoklip gustukoena eskatzeko aukera daukate Amaia DJ saioan. Kantuak eskatzeko hainbat bide daude: bidali mezua Whatsapp bitartez 688 69 00 17 telefono zenbakira edo idatzi Twitter edo Tuenti sare sozialetan.

'Amaia DJ'

Eguena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 12	ZAPATUA, 13	DOMEKA, 14	ASTELEHENA, 15	MARTITZENA, 16	EGUAZTENA, 17	EGUENA, 18
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Amaia DJ	10:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Galdegazte	10:30 Pauso bi	11:00 Astea iruditán	13:00 Onein	12:30 HARMAILATIK	12:30 Erremeixuak	12:30 Pauso bi
13:00 Ikuskizuna: Iribanda	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Ikuskizuna: Iribanda	13:30 Zorion Agurrak	12:55 Zorion Agurrak	13:00 Ikusi irratia	13:00 Ikuskizuna: Iribanda
13:45 Zorion Agurrak	12:00 Ikuskizuna: Gero Axular dantza taldea	12:00 Amaia DJ	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Pauso bi	13:55 Zorion Agurrak	14:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Debagoiena zuzenean	13:45 Ikusmira	12:30 Ertzak	14:30 Berriak	13:30 Erremeixuak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak
14:30 Berriak	14:00 Amaia DJ	13:30 Pauso bi	15:00 Ahotsenea	14:00 Debagoiena zuzenean	14:30 Berriak	15:00 Idemtitateak
15:00 Amaia DJ	14:30 Erremeixuak	14:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	14:30 Berriak	15:00 Erremeixuak	15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein	15:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Astea iruditán	16:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Harmailatik	15:30 Onein	15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Astea iruditán	15:00 Berriak	16:30 Berriak	15:25 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	16:05 Pauso bi	15:30 Zorion Agurrak	17:00 Ikusmira	15:30 Onein	16:30 Berriak	16:30 Berriak
17:00 Ikusi irratia	16:30 Ikuskizuna: Gero Axular dantza taldea	15:30 Ikuskizuna: Gero Axular dantza taldea	17:15 Ikusi irratia	16:00 Debagoiena zuzenean	17:00 Ikuskizuna: Iribanda	17:00 Ikusi irratia
18:00 Ur eta lur	18:30 Zorion Agurrak	17:15 Debagoiena zuzenean	18:15 Zorion Agurrak	16:30 Berriak	18:00 Ur eta lur	18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak	18:15 Zorion Agurrak	18:00 Astea iruditán	18:30 Berriak	17:00 Ikuskizuna: Iribanda	18:30 Berriak	18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak	18:20 Ikuskizuna: Iribanda	18:00 Idemtitateak	19:00 Idemtitateak	18:00 Harmailatik	18:55 Zorion Agurrak	18:30 Berriak
19:00 Pauso bi	19:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Onein	19:30 Pauso bi	18:25 Zorion Agurrak	19:00 Amaia DJ	19:00 Amaia DJ
19:30 Amaia DJ	20:00 Astea iruditán	19:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	19:30 Erremeixuak	19:30 Pauso bi
20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:00 Pauso bi	20:30 Berriak	19:00 Pauso bi	19:55 Zorion Agurrak	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	21:00 Pauso bi	20:00 Astea iruditán	21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Erreportajea: Nafiarri 2015	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	20:30 Ertzak	21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	22:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Ikuskizuna: Gero Axular dantza taldea	22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak
22:00 Ahotsenea	23:00 Astea iruditán	22:45 Amaia DJ	22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean	23:00 Amaia DJ	23:15 Idemtitateak	23:00 Berriak	21:30 Berriak	22:00 Pauso bi	22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak	23:30 Berriak	23:45 Debagoiena zuzenean	23:30 Ahotsenea	22:00 Pauso bi	22:30 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ	00:00 Pauso bi	00:45 Astea iruditán	00:00 Debagoiena zuzenean	22:45 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean			00:30 Berriak	23:15 Berriak	00:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Pauso bi
00:30 Berriak				23:45 Harmailatik	00:30 Berriak	00:00 Debagoiena zuzenean
				00:15 Debagoiena zuzenean		00:30 Berriak
				00:45 Berriak		

ARRASATE IRRATIA

Maria Ubarretxena izango da irratian astelehenean

Bihar, zapatua, eratuko dira udalbatza berriak, eta, ezustekorik ezean, Maria Ubarretxena jeltzalea izango da Arrasateko alkate berria. Ubarretxena aurrea begirako zein asmo dituzten kontatuko du Arrasate Irratiko uhinetan, *Igo autobusera!* irratia, astelehenean, 11:00etan.

Asteko gainbegiratu entzungai zapatuan eta domekan


Irratian astean zehar izan diren hainbat elkarrizketa berreskuratuko dituzte asteburuan, 10:00etan. Besteak beste, otxoteen topaketari buruzko elkarrizketa entzun ahal izango da, eta baita 1965ean San Viatorren Batxilergoko 4. maila baka-tu zutenen topaketari buruzko elkarrizketa ere.

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK



Karmelo eta Agurtzane

Karmelo San Torcuatok eta Agurtzane Labaienek zilarrezko ezteiak beteko dituzte ekainaren 16an. "Familia osoaren eta kuadrillakoen partetik, zorionak eta patxo handi bana! Primeran ospatu zapatuko bazkarian!".



Naiara eta Jose

Naiara Palacin eta Jose Martin ekainaren 13an ezkondu dira. "Zorionak, bikote! Azkenean, iritsi da eguna eta zapatuan behar den moduan ospatuko dugu. Muxu handi bat familiaren eta, bereziki, Beñaten eta Kaieten partetik! Ondo-ondo ibili eztei-bidaian!".




Ekaitz eta Esther


Ekaitz eta Esther zapatuan, ekainaren 6an, ezkondu ziren. "Zorionak, bikote! Zorionsu izan. Muxu handi bat bioi, familiarako guztien partetik".

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 25°
Min. 13°



Max. 23°
Min. 12°

ZAPATUA, 13

Giro nahasia izango da zapatuan. Haize aldakorra ibiliko da eta tenperatura pixka bat igokoda. Zaparradak bota ditzake.

DOMEKA, 14

Zapatuan baino tenperatura baxuagoa egingo du, baina giro nahasia izango da baita ere. Euria egiteko arriskua egongo da.

HILDAKOAK

- Jose Mari Aiestui Arana. Arrasaten, ekainaren 4an. 78 urte.
- Sebastian Segovia Saiz. Arrasaten, ekainaren 6an. 85 urte.
- Miguel Joaquin Egues Saizar. Arrasaten, ekainaren 7an. 84 urte.
- Mariano Lizarrondo Irurtzun. Oñatin, ekainaren 8an. 88 urte.
- Maria Ermitas Ramudo Pernuy. Bergaran, ekainaren 8an. 78 urte.
- Antonio Porcel Jimenez. Arrasaten, ekainaren 9an. 76 urte.
- Nicolasa Murillo Cruz. Arrasaten, ekainaren 9an. 93 urte.
- Josefa Arantzabal Gantxegi. Bergaran, ekainaren 9an. 90 urte.
- Miguel Angel Etxeberria Ugarte. Oñatin, ekainaren 10ean. 61 urte.
- Juan Jose Astondoa Errasti. Aretxabaletan, ekainaren 11n. 82 urte.

URTEURRENA

Juanita Okina Zeziaga

Txomin Ibaeren alarguna



Arrasaten hil zen 2014ko ekainaren 13an, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Eusebio Alberdi Lizarralde



Bergaran hil zen 2014ko ekainaren 5ean, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Maritxu Larrañaga Telleria

Joxe Arejola-Leibaren alarguna.



Bergaran hil zen 2014ko ekainaren 20an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Basalgo), 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Bego Beitia Irureta



Bergaran hil zen 2014ko ekainaren 25ean, 62 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Urtebete da gure ondotik joan zinela, baina betiko zaude gure bihotzean. Senarra, seme-alabak eta bilobak.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Mirari Juaristi Agirreolea



2014ko ekainaren 29an hil zen, Bergaran.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Ez nau izutzen negu hurbilak uda beteko beroan dokidalako irauten duela arainak ere geroan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Iñaki Etxarri Lopez de Zubiria



Bergaran hil zen 2010eko ekainaren 8an.

Bosgarren urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.


Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Zure senideak. Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Marcelino Gomez Tapias

Maxima de Paboren alarguna



Segovian hil zen 2014ko ekainaren 9an, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Matilde Beascochea Unamuno



Bergaran hil zen 2014ko ekainaren 17an.

Urteurreneko meza domekan, ekainaren 14an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Pilar Barrena Cortabarria

Claudio Biainen alarguna



2014ko ekainaren 10ean hil zen, 91 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi, bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean. Oñatin, 2015eko ekainaren 12an.

URTEURRENA

Basili Ugarte Ugarte



2014ko ekainaren 9an hil zen, 92 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 13an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko ekainaren 12an.

ESKER ONA

Jose Mari Ayastuy Arana



Arrasaten hil zen 2015eko ekainaren 4an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2015eko ekainaren 12an.

ESKER ONA

Luis Mari Gallastegi Altube



Bergaran hil zen 2015eko ekainaren 4an, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2015eko ekainaren 12an.

ESKELA

Miguel Angel Etxeberria Ugarte

'Etxebe'



Oñatin hil zen 2015eko ekainaren 10ean, 61 urte zituela.

Joan zara gure ondotik eta utzi gaituzu tristerik. Zure alaitasuna eta adiskidetasuna ez ditugu kenduko oroimenetik.

Kutxabank Eskoriatzako lankideak. Eskoriatzan, 2015eko ekainaren 12an.

HILETA

Juan Jose Astondoa Errasti



Arrasaten hil zen 2015eko ekainaren 11n, 82 urte zituela.

Emaztea: Concepcion Eriz Ormaetxea. Seme-alabak: Juanjo eta Elisabeth Arregi; Karlos eta M. Carmen Fuensanta. Bilobak: Imanol eta Martin. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako senideek jakinarazten dizute:

Haren aldeko hileta-elizkizuna bihar, zapatua, ekainak 13, izango dela, 18:00etan, Barajuengo Andra Mari elizan.

OHARRAK:
-Hilbela Arrasateko tanatorioan izango da gaur, egubakoitza, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.
-Gorpu-errotea, gaur, egubakoitza, izango da, 18:00etan.
-Helbidea: Belorrieta 1, 2.B (Aretxabaleta).

Bertaratuko zaretenoi alde zurei eskerrik asko. Aretxabaletan, 2015eko ekainaren 12an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

ELGETA Musika elektronikoa hizpide

Gune Musik taldearen eskutik, musika elektronikoa ardatz izango duen hamar bat orduko jaialdia egingo dute. Askotariko DJak egongo dira, baina, horien artean, David MK eta Carlos Revuelta nabarmen daitezke. Sarrerak, edari bat barne, hamabi euro. Aurrez erosita hamar euro. Gaur, egubakoitza, Espaloian, 19:00etan.

**OÑATI Rheinbergerren eta Faureren lanak 130 ahotsetan**

Oñati Abesbatzak eta Bergarako Orfeoak bi konpositoreen lanak interpretatuko dituzte Ganbara Orkestrarekin batera. Bi emanaldi egingo dituzte: hilaren 14an Oñatiko parrokian eta 28an Bergarakoan.

Etzi, domeka, parrokian, 19:00etan.

MUSIKA**ARETXABALETA Kontzertu akustikoa**

Arrasateko Hans, Jondi eta Konpainiak egingo dute kontzertu akustikoa.

Gaur, egubakoitza, Durana kalean, 19:30ean.

ARAMAIO Amaia Arregi, Maialen Ballina eta Maider Gardoki

Aramaio musikarien emanaldia. Doan.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.

BERGARA 'Bertsondorak'

Gaztetxeko bertso eskolako kideen eskutik bertso musikatua.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 23:00etan.

ARRASATE Otxoteen topaketa

Txorbelakoekin batera Lur Maita, Adurtza, Erizka, Azikoa eta Iruñeko Ahots Baxuak egongo dira: 12:30ean kalejira eta 14:00etan Herriko Plazan topaketa.

Bihar, zapatua, aipatutako lekuetan eta orduetan.

ARRASATE Griseras haur eta gazte abesbatza

Tuterako abesbatzak Arizmendi Ikastolakoarekin egiten diharduen elkartrukeko itzulerako emanaldia. Bi abesbatzek banakako saioak egingo dituzte, eta ostean elkarrekin kantatuko dute. Bihar, zapatua, parrokian, 20:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

EKAINA 12
EKAINA 18

OÑATI Musika eskolakoak

Jose de Azpiazu musika eskolako klarinete, saxofoi eta gitarra ikasleen entzunaldiak.

Ekainaren 15ean, kultura etxean, 16:00etan.

OÑATI Oñatiko eta Bergarako abesbatzak

Erretiratuen San Joxepe eta Aloña abesbatzen kontzertua. Zuzendariak Ramon Amasorrain eta Ainhoa Galdos izango dira.

Ekainaren 15ean, Santa Anan, 18:30etan.

GAZTELEKUA**BERGARA Urteurren jaialdia**

Laugarren urteurreneko jaialdia egingo dute: 19:30ean Niala magoaren emanaldia, 21:00etan afaria -oilasko errea- eta ostean bingo jokoa opariekin. Gainera, ordu-tegi berezia izango du gaztelekuak bihar, zapatua: 19:00etatik 23:00etara arte.

Bihar, zapatua, Xabaloten, 19:00etan.

IKUSKIZUNAK**ARETXABALETA Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

Txo, mikmak txikia ikuskizuna eskainiko diete neska-mutikoei.

Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Txerriketan berrikan' txotxongilo emanaldia

Kixka txotxongilo taldearen eskutik, 7x7 delako ekimenaren barruan.

Ekainaren 17an, Santa Kurtz kalean, 19:00etan.

ERAKUSKETAK**ARRASATE 1940ko hamarkadako Arrasate ikusgai**

Arrasate Zientzia Elkartearen eskutik 1945. urtearen bueltako Arrasate erakutsiko dute: bertako denda, fabrika, negozio eta herriko pertsonaia ezagunak arrasatear guztien eskura utzita.

Alberto Loiti arrasatearraren lanetik abiatu da erakusketa. Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute.

Uztailaren 11ra arte, Kulturaten.

OÑATI 'Irunberri sentituz' erakusketa

Oñatiko Euskal Memoria Taldearen eskutik, Andoain, Irunberri eta Oñatiko artisten lanak.

Ekainaren 28ra arte, kultura etxean.

OÑATI 'Baserriko tresnak'

Askazubi baserriko Joxe Lizaurrek eskuz egindako tresnak.

Ekainaren 14ra arte, kultura etxean.

ARETXABALETA Eskulan ikastaroko lanak

Rosa del Aguilaren ikastaroan egindako lanak.

Ekainaren 19ra arte, Arkupean.

BERGARA Juan Luis Goikolearen pinturak

Arrasateko margolariaren lanak.

Ekainaren 14ra arte, Aroztegi aretoan.

ELGETA 'Izarren azpian'

Eider Iturriagaren argazkiak. Ekainaren 21era arte, Espaloian.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren kulturak herrian izan duen eragina.

Harresi aretoan ikusgai.

DANTZA**BERGARA Biraka dantza taldea**

Ikasturte bukaerako emanaldia egingo du. Eurria egiten badu, seminarioko karpan.

Gaur, egubakoitza, Munibe plazan, 19:00etan.

ELGETA Camden jaialdia

Ikasturte amaierako ikuskizuna egingo dute Bergarako Camden Town dantza akademiako ikasleek. Sarrerak, hiru euro.

Etzi, domeka, Espaloian, 11:30etan.

JAIK**BERGARA San Antonio auzoko jaiak**

Askotariko ekintzak egongo dira aste bukaeran; besteak beste, erromeria, zezentxoak, buruhandiak eta musika emanaldiak.

Aste bukaeran, San Antonio auzoan.

BIDALI ARGAZKIAK

Arrasateko sanjuanetako umeen danborradakoak ARGITARATU EGINGO DITUGU GOIENAN!



PARTE HARTZEKO:



berriak@goiena.com



688 690 017



@goiena



facebook.com/goienanet

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

OÑATI Koixkar auzoko jaiak

Domekan egingo dituzte ospakizunak: 11:00etan meza Jesusen Bihotza ermitan, eta ostean salda eta txorizoa hartzeko aukera. Trikitilariak ere egingo dira. Etzi, domeka, Koixkarren, 11:00etan.

LITERATURA**ELGETA Ipuinen ordua**

3 urtetik gorako neska-mutikoen-dako euskarazko saioa, doan. Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:25ean.

OSPAKIZUNAK**ARRASATE Ikastolaren Eguna**

Haurrendako jolasak, musika doinuak, txosnagunea, musika emaldiak eta ipuin kontaketa egingo dituzte, besteak beste, Biteri plazan. Gaur, egubakoitza, Biterin, 17:30ean.

OÑATI Eskola Kiroleko azken jaiak

LHko 3. mailatik 6. mailara arteko ikasleendako sari banaketa. Gaur, egubakoitza, Zubikoan, 19:00etan.

OÑATI Elkar Hezi eguna

Askotariko ekintzak egingo dituzte ikasleek; besteak beste, eskulan tailerrak eta Garirekin musika lantzeko saioa. Bihar, zapatua, Oñatin, 09:00etan.

BERGARA Gaztetxearen eguna

Askotariko ekintzak egingo dituzte: 12:00etan poteoa, 14:30ean baz-

karia eta ostean elektro-txaranga-rekin kalejira, eta 22:30ean bertsoien gaua.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 12:00etan.

OÑATI Fan Hemendik Eguna

Aurtengo berrikuntza Guardia Zibilaren kuartela inguratuz egingo duten giza katea da. Aurretik poteoa, bazkaria eta manifestazioa, eta ostean kontzertuak. Bihar, zapatua, Oñatin, egun osoan.

OÑATI Gimnasia erritmikako erakustaldia

Ikasturte bukaerako erakustaldia. Etzi, domeka, Zubikoan, 12:00etan.

ESKORIATZA Aste Zapatista

Ekainaren 15etik 20ra askotariko ekintzak egingo dituzte 15 urte ametsen haziak ereiten leloarekin.

HITZALDIAK**OÑATI Dakar rallyari buruz**

Albert Llovera gidari elbarriak Dakarren izan duen esperientziak berba egingo du. Aretoaren sarrean rallyari buruzko erakusketa egingo da. Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 19:30ean.

ARETXABALETA 'Kontratazioen arazoa oinarrizko kirolean' hitzaldia

Kirol zuzenbidean aditu Koldo Irurtzunek egingo du berba, bereziki oinarrizko kirolean lan egiten dutenendako. Ekainaren 15ean, Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Hezurrei buruzko hitzaldia

Gure hezurren etorkizuna delako hitzaldia egingo du Jose Ramon Galartza mediku oñatiarrak. Ekainaren 16an, Santa Anan, 17:30ean.

IRTEERA**OÑATI Bizikleta irteera Bilbora**

Txirrinkaren eskutik Bilbo-Portugalete-Getxo ibilbidea egingo dute. Autoetan joango dira Bilbora eta bizikletak furgonetan eramango dituzte. Etzi, domekan, Ibarren, 08:30ean.

OÑATI Mendi irteera: Urbia-Oltza

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren, Arantzazuko Parke-txearen eta Arantzazuko Adiskideak Elkartearen eskutik irteera. Etzi, domeka, Arantzazun, 09:00etan.

ELGETA Elgetako hiru tontorrak

Gaztelekuaren eskutik. Etzi, domeka, Mendizaleen plazan, 09:30ean.

OÑATI San Martinera irteera

Hamarretakoa eta dantzaldia egingo dituzte han. Ekainaren 17an, Pake Lekun, 09:30ean.

BESTELAKOAK**ELGETA 80 urtetik gorakoan bazkaria**

70 bat lagun elkartuko dira bazkaltzeko. Gaur, egubakoitza, Ozkarbin, 14:00etan.

OÑATI Odol-ateratzea

Oporren aurreko azken ateratzea egingo dute. Abuztuaren 10erako deialdi berezia egin dute. Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

OÑATI Pintxo-poteoa Nepalen alde

Nepali lagundu egitasmoaren barruan, pintxo-poteoa eta ikus-entzunezkoa. Gaur, egubakoitza, Foruen plazan, 18:30ean.

ARRASATE Mahai-futbol txapelketa

Bikoteka jokatu dute txapelketa. Bikote bakoitzak, bost euro. Gaur, egubakoitza, Jai Zale tabernan, 19:00etan.

ARETXABALETA Imanol Ituiño magoaren emanaldia

Helduendako eta umeendako Munduari bira ikuskizun intimoa egingo du, doan. Ekainaren 15ean, Kuku Mikuren egoitzan, 18:00etan.

ELGETA Ipuinen ordua: balorazio bilera

Ipuin kontaketa saioek ikasturtean emandakoen gaineko balorazio bilera. Ekainaren 17an, liburutegian, 19:00etan.

AZOKA**BERGARA Domeka Azoka**

Berrerabilpena eta artisautza bultzatzen dituen azoka egingo dute. 25 postu elkartuko dira San Martin plazan. Hori bai, eguraldi txarra egiten badu udaletxe eta seminarioko arkupeetan egongo dira. Etzi, domeka, San Martin plazan, 11:00etan.

ZINEMA**BERGARA****ZABALOTEGI**

Dos a la carta
Domeka: 19:30.

Plumiferos: aventuras voladoras
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Tomorrowland
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

EIBAR**COLISEO**

Nuestro ultimo verano en Escocia
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

Requisitos para ser una persona normal
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Jurassic world
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD**

Jurassic world
Egubakoitza eta zapatua: 00:00, 00:30.
Egubakoitzik eguenera: 17:30, 19:00, 19:30, 20:00, 21:30, 22:00, 22:30.

Zapatua eta domeka: 16:30, 17:00.

Jurassic world 3D
Egubakoitza eta zapatua: 23:30.
Egubakoitzik eguenera: 18:30, 21:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Ups, ¿donde está Noe?
Egubakoitzik eguenera: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Insidious
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzik eguenera: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.

Dando la nota
Egubakoitzik eguenera: 17:30, 20:00.

It follows
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzik eguenera: 22:20.

Tomorrowland
Egubakoitza eta zapatua: 23:50.
Egubakoitzik eguenera: 18:30, 21:10.
Zapatua eta domeka: 15:50.

Caza al asesino
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

Nuestro ultimo verano en Escocia
Egubakoitzik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Astelehena eguenera: 18:00, 20:10.

Poltergeist
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzik eguenera:

20:00, 22:00.

Mad Max
Egubakoitzik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

Vengadores: la era del Ultrón
Egubakoitzik eguenera: 19:30, 22:15.

Asterix
Egubakoitzik eguenera: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

La oveja Shaun
Egubakoitzik eguenera: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:40.

Home: hogar dulce hogar
Zapatua eta domeka: 15:30.

Cenicienta
Zapatua eta domeka: 15:45.

La familia Belier
Astelehena eguenera: 22:15.

Requisitos para ser una persona normal
Astelehena eguenera: 17:00.

Nuestro ultimo verano en Escocia
Egubakoitzik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Astelehena eguenera: 18:00, 20:10.

Poltergeist
Egubakoitza eta zapatua: 00:00.
Egubakoitzik eguenera:

Egubakoitzik domeka: 16:45, 20:30.
Astelehena eguenera: 18:50.

Phoenix
Egubakoitzik domeka: 18:20, 22:30.
Astelehena eguenera: 17:00, 20:40.

Los insolitos peces gato
Egubakoitzik domeka: 16:40, 20:30, 22:30.
Astelehena eguenera: 19:00, 20:40.

Conducta
Egubakoitzik domeka: 18:20.
Astelehena eguenera: 17:00.

Tomorrowland
Egubakoitzik domeka: 22:30.
Astelehena eguenera: 17:00.

Hablar
Egubakoitzik domeka: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehena eguenera: 17:00, 20:40.

Insidious
Egubakoitzik domeka: 18:20.
Astelehena eguenera: 18:50.

Lejos del mundanal ruido
Egubakoitzik domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena eguenera: 17:30, 20:00.

La canción del mar
Zapatua eta domeka: 12:00.

Minuscule
Zapatua eta domeka: 12:00.

La oveja Shaun
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRIKA**Errealitatetik ihes egiten**

Berlinen kokatzen da *Phoenix* pelikula II. Mundu Gerra bukatu berriaren istorioaren pertsonaiek ezer gertatu ez balitz bezala egin nahi dute eta gauzak gerra hasi baino lehenagoko egoerara eramane nahi dituzte. Filmak garai hartako Alemaniari buruz hitz egin nahi du. Gizarteak urte haietan gertatutakoari bizkarra eman nahi dio, baina hori ez da posible. Benetan aurrera jarraitzeko erantzukizun hori euren gain hartu beharko dute. Christian Petzoldek mezu hori bidali nahi du, baina astuna izan daitekeen film politiko bat egin beharrean, maitasuna eta intriga erabiltzen ditu film aztoratzaile bat burutzeko. Izaten dira ikuslearen konplizitatea eskatzen duten filmak. Kasu batzuetan gure alde logikoa ahaztu behar dugu gure alde sentimentalagatik arrastatzen uzteko. Horixe gertatzen da *Phoenix*-ekin. Kontatzen zaigun istorioa nahiko harrigarria da: Berlinera bueltatzen da kontzentrazio-esparru batetik bizirik atera den emakume bat. Zeharo deseginda zuen aurpegia birmoldatu diote. Guztiak hilda dagoela pentsatzen dute. Senarra ez da

PHOENIX ★★★★★

Zuzendaria: Christian Petzold.

Herrialdea: Alemania.

Aktoreak: Nina Hoss, Ronald Zehrfeld.

konturatzen bera dela, baina, emaztearen antza duenez, hark zuen dirua berreskuratzeko haren lekua hartzeko proposamena egingo dio. Emakumea jokoan sartuko da senarraren benetako sentimenduak ezagutzeko. Guztiak errealitatetik ihes egin nahi dute, ez dute begien aurrean dutena ikusi nahi. Nork bere ameskeria sortzen du komeni ez zaion egoeratik eta mundutik ihes egiteko.

Zuzendaria badaki kontatzen duen istorioa hari-harian mugitzen den horietakoa dela. Hortaz, ez ditu gauzak gehiegi azpimarratuko. Istoriari gerturatzeko modua oso neurtua da, kontatzen diren gertakizunak sinesgarriak izan daitezke. Ez da gehiegikerian errotzen, istorioa poliki garatzen doa eta pertsonaien deskribapena, eta, garapena eginez, bukaera hunkigarri batera heldu arte.

ANTONIO ZABALA

Euskaraz blai

Matrikula-epa ZABALIK

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK 14/15

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA
Arimazubi plaza, 2
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33 (Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Aretxabaleta
Intxaurtueta 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Hilarion jatetxeko
bakailoa onddo
konfitatuekin.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-06-12

AZKEN BERBA

AINTZANE
OARBIDE



Herriarentzat
eta herriarekin

Bihar osatuko dira udalbatza berriak eta herrietako buru izango diren alkateak ere bihar aukeratu dituzte.

Debagoienean nagusiki bi kolorez margotuko da eskualdeko mapa -Gatzagako herri zerrenda salbuespen-; botoetan EAJren kolorea nagusi eta Mankomunitatean ere gehiengoaren aldaketa erabatekoa, Bilduren gehiengo nagusitik EAJren gehiengo nagusi izatera pasa baita egoera.

Erabateko aldaketa sortu du debagoiendarren hauteskundeetako erabakiak, eta, orain horrela gertatu bada, lau urte barru besterik gerta daiteke, herritarrok udal gobernuen lana babestu edo gaitzetsi gure eskuetan baitugu. Demokraziaren arauak dira hauek, baina azken hauteskundearen emaitzen jira bueltak zerbait erakutsi digu, hauteskundeetan irabaztea bakarrik ez dela nahiko.

Herritarrak entzutea, beraiegandik hurbilago egotea eta udal kudeaketa zentuz eta errespetuz egitea ezinbestekoa da. Botoak ez dira alderdi politikoarenak, herritar bakoitzarenak baizik, eta udalbatza berriak osatuko dituzten zinegotzi eta alkateek kontuan izan beharko dute hau lau urtetako agintaldi berri honetan. Herriarentzat eta herriarekin, ez despotismo ilustratuaren herriarentzat baina "herriari bizkarra emanaz".

BUKATZEKO

Antzuolako kanpai hotsa Albanian

- ▶ Uzarraga auzoko elizakoa da, 40 zentimetro ingurukoa, eta 2012ko maiatzean eraman zuten
- ▶ Eskoriatzako Jesus Madinabeitia marianista bizi den Tresh herrian egindako elizatxo bati jarri diote

MIRARI ALTUBE | ANTZUOLA

Uzarragako elizako kanpaia dilin-dalan dabil Albaniako Tresh herritxoan. Uzarragan isilik egon beharrean, beste nonbait dantzan ibiltzea hobetsi dute, eta 2012ko maiatzean eraman zuten hara 40 zentimetro inguruko garaiera eta 30 bat zentimetroko diametroa duen kanpaia.

Aurrefabrikatutako eliza

Albanian bizi da azken hamahiru urteotan Eskoriatzako Mendiola auzoko Jesus Madinabeitia abadea, eta pozik hartuko luketela kanpai bat han jakinarazi zion anaiari: "Esan eta laster bideratu zuten kanpaia. Zelan bidali, baina, honaino? 'Albaniara ez dago kristorik joango denik', esan zidan garraiolariak, eta nik erantzun: 'Horixe... Albaniara Kristo bakarrik doa', jakinarazi du umoretsu Madinabeitiak. Hala, anaiak eta koinatak Milaneraino eraman zuten eta handik Albaniara Caritasko kideen bitartez iritsi zen.

Marianista da Madinabeitia eta beste bi kide italiarrekin batera bizi da han. "Lehenengo sei urteetan Lezhe herriaren iparraldean egon nintzen, hiru eliza zituen parrokia batean; gero, bost urte egin nituen hegoaldean, bi



Madinabeitia kanpaiarekin. | J. MADINABEITIA



Uzarragako kanpaia. | J.M.



Kanpaia Albaniako Tresh herrian. | J.M.

parrokian lanean; eta azkeneko bi urteotan eliza bakarra duen parrokia batean nago, baina bi elizatxo egin ditugu, aurrefabrikatuak, eta horietako batean jarri dugu kanpaia", jakinarazi du. Eta iazko abenduaren 25ean entzun zuten lehenengoz Albanian Uzarragako kanpaiaren hotsa.

Horren guztiaren berri eman zien Madinabeitiak berak Uzarragako auzotarrei maiatzean, bisitan etorri zenean. "Argazkiak erakutsi zizkigun eta kanpaiak zelan egiten zuten dantzan ere bai", dio Bittor Arbulu antzuolarrak, eta gaineratu du: "Hunkitu ere egin ziren hainbat auzotar".

Berreraikuntzan laguntzen

Marianistari harrera ezin hobea egin zioten Albanian 2002an iritsi zenean: "Lezhe herritik gertu Espainiako militarrek egon ziren Kosovoko gerra garaian eta oso zintzoak izan zirela diote". Madinabeitiaren lana, oster, albaniarren beharrei erantzutea izan da: "Haiekin berba egin, haiei lagun egin pertsonaren berreraikuntzan... Diktadurapean urte askoan bizitako herritarrak sozializatzen lagundu gura izan dut; izan ere, gosea, kartzela zigorrak eta miseria handia jasan dute urte askoan".

OMEGA
Urban
Service

24h



945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak
Igogailuen
Mantentze-lanak